



Debagoienarrek ere egiten dute garagardoa etxean



Javier Gurruchaga musikariari elkarrizketa



## BADATOR BIRA!

Lehenengo bi etapak Bizkaian lehiatu ostean, Debagoiengan jokatuko dute hirugarrena / 38

Emakumeen Birako tropela, lurretako lehenengo etapan, eguaztenean.. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

# Baserria herritik gertuago, Antzuolan

San Isidro azokaren bueltan batuko dira bihar, zapatua, ganadua, artisautza produktuak, bidezko merkataritzakoak, udalerriko jakiak eta beste / 36

**Euskara ahoan dutela kale bazterrak girotuko dituzte Euskeriaren Egunean, Aretxabaletan / 15**

**Aisialdirako proposamenak, txapelketak, omenaldiak... Puntaik Puntan / Ikus 'Herriak' saila**

**Mondrako nesken talde nagusiak hil edo biziko finalerdia du bihar, zapatua, Eibar taldearen kontra / 12**

### SINADURAK

 IRATI ITZIAR / 6	 ELIAS ZUMALDE / 30
 ANE GOROSABEL / 12	 ASIER ELORTZA / 32
 MANEX ARROLABENGOA / 19	 IDOIA ETXEBERRIA / 48



**AUTOEN GEHIGARRIA / 21**

# "Espazio atemporalak sortzea gustatzen zait"

**AMAIA BEISTEGI EGUREN** ARKITEKTOA, DISEINATZAILEA ETA INTERIORISTA

Arkibe estudioko sortzailea da eta arkitektura eta barne diseinu proiektuak egiten ditu Beistegik; batez ere, etxebizitzetarako eta lokal komertzialetarako

Betidanik izan du gustuko etxebizitzaren espazioa banatzea, irudikatzea eta marraztea Amaia Beistegik (Bergara, 1985). Arkitektura ikasketak amaitu eta orain dela bi urte hasi zen freelance moduan lanean.

**Zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dituzu?**

Barne espazioaren diseinua arkitekturaren parte bat da, egiturak edo instalazioak kalkulatzeko bezala. Diseinuaren fase guztiei ematen diet erantzuna, arkitektoaren sinadura behar duten proiektu teknikoetatik hasi eta espazioa dekoratzeraino. Hala, proiektu teknikoak, jarduera proiektuak, erreforma zein interiorismo proiektuak eta dekorazioa egiten ditut.

**Ze leku hartzen dute bezeroek zure proiektuen diseinuan?**

Askatasuna ematen diot bezeroari berak nahi duen punturaino iristeko. Nire lana diseinatzea da, eta, bezeroak eskatzen badu, baimenak tramitatzen eta obrak zuzentzen ditut baita ere. **Bakarrik egin ohi duzu lan ala sektoreko bestelako profesionalekin koordinatzen zara?**

Erantzun egokiena emateko askotariko profesionalekin egiten dut lan. Beharrezkoa da, proiektu bakoitzak behar jakin



Amaia Beistegi arkitekto, diseinatzaile eta interiorista bergararra. NEKANE LAZKANO

batzuk dituelako. Esate baterako, instalazio kalkulatuak egiteko edo lokal komertzialen irudi korporatiboa sortzeko.

**Proiektuak egiten dituzu, baina altzaririk saltzen duzu?**

Ez naiz hornitzaile jakin batzuetara mugatzen. Bezeroak egindako eskaerara eta aurrekontura egokitzen naiz. Altzari egokienak bilatzea da nire egitekoa, eta gustuko dut gauza berrien bila ibiltzea. Atsegin ditut sortzaile eta proposamen berriak. Hori bai, ez badut altzari egokia aurkitzen, diseinatu egiten dut.

**Nola definituko zenuke zuk zeuk zure estiloa?**

Giro erosoak sortzea gustatzen zait; bereziki, babes sentsazioa ematen dutenak. Gustura sentiarazten nauten espazioak sortzen ditut. Giro hotzak edo minimalistak baino gehiago gustatzen zaizkit. Hala ere, espazio bakoitzak estilo bat eskatzen du. Ez da berdina hiri erdian dagoen eraikin moderno batean diseinu lana egitea edo bere historia duen baserri batean.

**Modak ere izango du eragina zure egitekoan. Moda jarraitzailea zara?**

Modei kasurik ez egitea zaila den arren, espazio atemporalak sortzea gustatzen zait, modaz erraz pasatzen ez direnak. Kolore neutroekin eta material naturalekin lan egitea gustatzen zait -zura, harria, metalak...-. Ukitu pertsonala altzariekin edo pieza puntual batekin ematen dut.

**Profesional moduan, zer da, zure ustez, garrantzitsuenak baten diseinuan?**

Helburua da ahalik eta barnealde funtzionalenak sortzea eta espazio hori bezero bakoitzari ondoen egokitzen zaion estetika batekin janztea. Esan

gabe doa horretarako ezinbestekoa dela bezeroa ondo ezagutzea: nola bizi den, zein gustu dituen...; izan ere, etxebizitza bezeroak dituen beharren neurritara diseinatzea da nire erantzukizuna. Azkenerako, harreman estua sortzen da gure artean.

**Lokal komertzialak ere diseinatzen dituzu. Kasu honetan, lehentasunak beste batzuk izango dira, ezta?**

Gero eta gehiago zaintzen da lokal komertzialen diseinua, baina oraindik asko dago egiteko esparru horretan. Bezero garen heinean, estimatzen dugu diseinu zaindua izatea. Taberna batean, esaterako, janaria goxoa izateaz gain, baloratzen dugu baita ere leku erakargarria izatea eta gustura sentitzea bertan. Diseinuak garrantzi handia du. Egun, konpetentzia handia dago eta nabarmendu gaitzeko barne diseinu erakargarri batekin. Ahalegina egiteak gure irudi komertziala ere indartuko du. Eta diseinu horri jarraiki egiten baditugu webgunea, logotipoa eta menuen karta, zer esanik ez!

**Gaur egun, zeintzuk dira esku artean dituzun proiektu garrantzitsuenak?**

Donostian eta Tolosan dihardut lanean. Hiriburuan Aiete hoteleko sarrera diseinatzen ari naiz, baita gela batzuk ere. Tolosan oso bestelako proiektu batean dihardut: hortz klinika baten barnealdeko diseinua egiten ari naiz.

**"ESPazio BAKOITZAK ESTILO BAT ESKATZEN DU ETA BEZEROAK DITUEN BEHARRETARA EGOKITZEN NAIZ"**

**ARKIBE** ARKIBE ESTUDIO *arkitektura - diseinua - interiorismoa*  
20570 BERGARA Tel: 603522054 arkibestudio@arkibe.com www.arkibe.com

# EH Bildu: ahots propiorako bidean

Koalizio izatetik subjektu politiko bilakatzeko eratze prozesuan dihardu EH Bilduk. Ekainaren 17ko kongresuan gauzatuko da ibilbidea; besteak beste, bilkideei, EH Bildurenak berarenak izango diren militanteei, lekua egin gura diete, erabakimena aitortuz

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

EH Bildu "denon etxea" izatea; "alderdi jakin batekin loturarik ez duten pertsonak eta sektore politikoak bilduko dituen subjektu politiko" izatea; "militan-

tzia komuna" ahalbidetzea, "bilkide" izango direnei erabakitze-ko eskubidea aitortu eta ematea... azken batean, identitate eta "ahots" propioak izatea. Hori gura dute bermatu EH Bilduren

baitan abiarazitako eratze prozesuaren bitartez.

Ekainaren 17an gauzatuko da berau, Bilbon egingo den kongresuan. Eta ordura arte herri-tarren parte hartzea eta ekar-

penak bideratzeko erremintak jarri ditu koalizioak eskura; izan ere, besteak beste, EH Bilduren "mahai politikoko ekipoa, bakoitzari dagokion herrialdeko arduraduna eta idazkari sektorialak proposatu eta hautatzeko aukera" izango dute kongresuan, EH Bilduren prozesu eratzailan parte hartzen duten guztiek; horretarako: *kongresua.ehbildu.eus*. webgunean erregistratu beharra dago. "EH Bildu herri-tarren neurrira egitea lortuko dugu guztion artean", azpimarratu dute.

**Zuzeneko informazioa**

Ildo horretan, prozesu eratzaila horren nondik norakoak ezagutzera emateko eta bertan parte hartzeko bideak azaltzeko hitzaldiak dabilta antolatzen Debagoiengan.

Oñatin egin dute horietatik lehena, oraingo astean, Juan Karlos Izagirre eta Maider Otamendiren partaidetzarekin.

Bergaran, berriz, maiatzaren 23an, martitzena, Marian Beitarrangoitiak eta Gari Mujikak berba egingo dute Irizar jauregian, 18:30ean.

Eta Arrasaten ere izango da informazioa eskuratzeko aukera. Maddalen Iriarte eta Unai Larreategi izango dira hizlari, maiatzaren 30ean, Kulturateko Areto Nagusian, 18:30ean.

Oro har, koalizioa osatzen duten Sortu, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba alderdiek, guztiek ikusten dizkiote onurak prozesu eratzailari; ahots kritikoak ere plazaratu dira, EAren ingurutik, bereziki; baina kritikoek ere EH Bilduren alde egiten dute.

## Koalizioa osatzen duten alderdien irakurketa



**LARRAITZ UGARTE**

LEGE BILTZARKIDEA (SORTUKO KIDEA)

### "Ezkerreko independentismoa oso anitza dela demostratu behar dugu"

"Oso modu naturalean, alderdi desberdinetatik gatozenok gure lana EH Bildu bezala egin nahi dugu. Neuk Sortuko kuota ordaintzen dut, baina EH Bilduko militantea naiz. Kide guztiok botoa izatea nahi dut, eta gure botoa errelebantea izatea. Interesgarria da alderdiak egotea, eta eurek ahots propioa izatea; baina EH Bilduk ahots propio bat izan behar du, bere militanteek, bilkideek nahi dutena. Subjektu politiko bilakatzeko prozesua ez dago hauteskunde emaitzekin lotuta. Barne beharrekin lotuta dago; egitura eta modu efizienteagoak behar ditugu gauzak egiteko, eta EH Bilduren potentzialitatea bideratzeko. Koalizioa osatzen duten alderdien artean beldurrak sortzea ulergarria da, baina EH Bilduk argi esaten du alderdien ahotsa ere beharrezkoa dugula. Hau denon etxea izatea lortu behar dugu, oinarri komun batzuekin gobernuan eta instituzio gehienetan dagoen eredu horri alternatiba sendo bat eman, eta demostratu behar dugu ezkerreko independentismoa oso anitza dela, modu asko daudela ezkerreko soberanista izateko eta sentsibilitate guztiak islatu ahal dituela".



**REBEKA UBERA**

LEGE BILTZARKIDEA (ARALARKO IDAZKARI NAGUSIA)

### "Alderdiek eta koalizioek gizartearen beharretara egokitu behar dugu"

"Premia dugu eta ezinbestekoa da. Gizartea asko aldatu da eta alderdiek eta koalizioek gizartearen erritmo, eboluzio eta beharretara egokitu behar dugu. Eta EH Bildun parte hartzen duten eta kide diren pertsona independente horiei ere tokia eman nahi diegu. Halakoetan sortzen diren beldurrak normaltasunez hartu behar dira, errespetuz. Baina ahotsok esaten dute alderdiek nortasuna galduko dutela, profilak ahuldu... eta ez da horrela. Ze EH Bilduren akordioan jasotzen da alderdiek jarraitu egingo dutela. Bestalde, esango nuke azken hauteskunde orokorrekin eman diotela prozesuari azken bultzada. Eztabaida hau aspaldi buruan geneukan EH Bildun eta alderdion artean. Baina hauteskunde ugari izan ditugu... Horrek ez du kentzen 2015eko hauteskunde ostan identifikatu genituela zenbait akats, eta hausnarketak egin genituela. Gure jomuga argia da: Euskal Herri aske bat bilatzen dugu, erabakitze eskubidea eskuratzeko, osasun, hezkuntza, enplegu politika propioak egiteko baliabideekin... eta horretarako erabakiak guk hartu behar ditugu gure gizarteari egokitu eta ez Madrilen menpe"




**PELLO URIZAR**

LEGE BILTZARKIDEA (EA-KO IDAZKARI NAGUSIA)

### "EH Bilduri buelta ematen diogu, irekitzeko, aniztasuna bermatzeko"

"Desadostasunak EA agertu dira; berria den edozertan, etorkizuna ez dago lotuta eta ziurgabetasun puntu bat egoten da; horren baitan aukerak edo mehatuak ikus daitezke. Gidatzen dudana zuzendaritzak apustu egiten du aukera bezala ikusteko; horrela ikusten dute EH Bilduko beste eragile politikoek eta EH Bildu osatzen edo osatuko duten banakako pertsonak. EH Bilduri buelta ematen diogu, irekitzeko, aniztasuna bermatzeko, parte hartzean sakontzeko, eta alderdi politikoek eskuzabaltasunez jokatu beharra dugu. Inkesta soziologiko guztiek esaten dute Euskal Herriko gizartearen identifikazio handiena erdialdetik ezkerre dagoela, eta hori izan behar da EH Bilduren joko esparrua, baina, horretarako, marka politiko konkretu batzuetatik harago esparru horretan ere jokatu nahi dutenei atea irekitzeko ezinbesteko aukera da. 2014 bukaeratik zerbait egin beharkeo ideia mahai gainean zegoen, baina etengabe hauteskundeak izan ditugu... Helburua argia da: Euskal Herriak behar duen aldaketarako EH Bildu ezinbestekoa da, berau izan behar da alternatiba; Nafarroan, Iruñean, Gasteizen... moduan".



**JUAN RAMON GARAI**

ALTERNATIBAKO KIDEA

### "EH Bilduk militantzia komuna izango du erabakiak batera hartzeko"

"Euskal Herriko ezkerreko indarren elkarlana sustatzea zen helburu nagusia eta horregatik egon gara lanean sorreratik gaur egunera arte. EH Bildun berez urteotan gertatu denari forma ematera goaz; ariketa demokratikoa da, gaur egun alderdien esku daudelako erabakiak eta hemendik aurrera EH Bilduk militantzia komuna izango duelako, erabakiak guztion artean hartzeko, EH Bildu irekiagoa izateko. Prozesu bizia da, ekarpenen bila gabiltza, zuzendaritza organoak edozeinentzat irekiak izango dira eta alderdietako batean gertatzen ari den gatazka da militantzia mugitzen ari den seinale. Lehia horretan, gainera, alde biek berretsi dute EH Bilduren aldeko apustua. Gizarteak erakunde inportanteen gidaritzan jarri gintuen: Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Iruñekoa... eta Maroto bezalako pertsonaia bat kanporatzeko giltza izan gara. Helburu politikoa da gizarte justuagoa eta herri burujabea lortzea. Gainera, EAJk, PSEk eta PPK ez dute konplexurik elkarlanean aritzeko eredu kapitalistaren aldeko politikak aurrera ateratzeko, eta horren aurrean ezkertiarroki tokatzen zaigu gure artean ere elkarlan hori sustatzea".



Epeleko konpost plantaren artxiboko irudi bat. MIRARI ALTUBE

## Lege akzioak iragarri dituzte Epeleren harira

Konpost plantako proiektugile, obra zuzendaritza eta eraikitzaileen kontra lege-akzioak hasiko ditu Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUK, proiektuaren hasiera fasean antzemandako "akats teknikoak eta hutsegiteak" daudela argudiatuz

**Xabi Gorostidi** BERGARA

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUK prentsa oharrez jakinarazi duenez, txosten teknikoak eta txosten juridikoa eskatu zituen "akatsak" zeintzuk diren zehazteko. Eta ondorengo hauek antzeman dituzte: euri-ur andelaren edukiera falta; aireztapen kanalaren erzen haustura; balantze hidrikoaren desoreka; zunda termikoen seinalearen etendura; gantz-solidoen eraketa; eta amonio andelaren hustuketa.

**Ardurak eskatzea helburu**

Txostenaren ondorioak kontuan hartuta, GHKko administrazio kontseiluak erabaki du lege-akzioei hasiera ematea, eta, ardurak eskatzeko, zerbitzu juridikoen eskuetan jarri dute kontua. "EH Bilduko aurreko arduradunek esleitutako proiektuaren abiarazte fasean antzemandako akats teknikoak eta hutsegiteen eraginez hartu ditugu lege akzioak", adierazi

du GHKko administrazio kontseiluak.

EH Bildutik adierazi dute legegintzaldi berria hasterakoan administrazio kontseilutik "bota" egin zitzutela EAJk eta PSEk. Hori dela-eta ez dute horren berririk izan, ez baitute inongo informaziorik edo txostenik jaso. Hala, txosten teknikoak eta juridikoa eskatuko dituzte Batzar Nagusietan, eta behin hori egin da balorazioa egiteko moduan egongo direla jakinarazi dute.

**Bitartean, planta geld**

Konpost plantak 2016rako egon behar zuen funtzionamenduan, baina akatsak eta haiek argitzeko txostena martxan jarri izanak planta oraindik funtzionatu

**ARDURAK ARGITZEKO PROZESUAREN ERAGINEZ KONPOSTATZE PLANTA GELDI DAGO ORAINDIK**

gabe egotea eragin du, GHKren esanetan.

Oraingo administrazio kontseiluak zera jakinarazi dute atzerapenaren inguruan: "Zerbitzu juridikoei txosten bat eskatu diegu egoera honek planta kudeatzeko lehiaketari eragin diezazkiokeen ondorio posibleei eta eraginei buruz. Izan ere, gaur egun esleipen prozesuan dago".

**Urtean 5.500 tona konpost**

Hori da Epeleko konpost plantak urtean lortuko lukeen tona kopurua. 10.000 tona bio-hondakin konpost bihurtzeko ahalmena izango duela aurreikusten da.

Lapatxeko konpost plantarekin batera gaur egun Gipuzkoan sortzen den bio-hondakin gehiena tratatzeko aukera emango du Debagoieneko plantak.

Bestalde, Epeleko plantaren beste ezaugarrietako bat ez duela ur-sareko hornikuntzarik izango, ahalik eta jasagarriena izateko asmoz euri urak erabiltzeko dituelako.

## Dena gertu dago Puntaik Punta jaialdia arrakastatsua izan dadin

Asteazkenean hasi zuen bere bidea Oihane Kortazarren hitzaldiarekin, eta asteburua ekintzaz beteta dator

**X. G. BERGARA**

Bergara izango da aurtengo edizioaren gune zentrala, baina eskualdera ere barreiatuko da Puntaik Puntaren eskaintza. Bergararen ondare naturala eta kulturala bertakoen eta bisitarien eskura jarriko du jaialdiak; kirola, natura, aisialdia eta kultura uztartzen dituen eskaintza zabala baliatuta.

**Autobus zerbitzu berezia**

Garraio publikoaren erabilera sustatzeko asmoz, autobus zerbitzu berezia prestatu dute antolatzaileek. Hala, autobusak izango dira Eibartik, Soraluze-tik, Arrasatetik, Aretxabaletatik Eskoriatzatik, Elgetatik, Bergararik, Oñatitik, goizean goizetik goizeko ordu txikiak arte.

Eskaintza amaigabeko egitaraua prestatu dago, txikiak, gazteak eta helduek primeran pasa de-



The Uski's taldeko abeslaria. DENA FLOWS

zaten. "Adin tarte guztietarako ekintzak egongo dira; kontzertuak, mendi irteerak edota Labegarietan umeentzat prestatutakoak", azaldu du Maite Agirrek, Bergarako Kultura zinegotziak. Egitarau guztia ikusteko, jo 32. orriko QR loturara.

## Etzi, domeka, hautetsontziekin dute hitzordua sozialistek

PSOEn afiliatuek oraingo domekan dute alderdiko idazkari nagusia zein izango den erabakitze bozketa eguna. Lehian dira Patxi Lopez, Pedro Sanchez eta Susana Diaz hautagaiak.

Debagoiengan, talde sozialista dagoen udalerrietan ahalbidetuko dute bozketa: Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran

eta Antzuolan. Gainontzeko udalerrietako afiliatuek lau udalerririkorietako batean botatu beharko dute.

20:00ak arte jasoko dituzte botoak. Eta, ohi den moduan, hauteslekuak itxi ondoren botoen zenbaketa egingo dute. Emaizta guztiak bideratuko dituzte primarioez arduratzen diren probintzietako batzordeetara zein Madrilera. Aurreikuspena da idazkari nagusi berriaren izena egunean bertan jakinaraztea.

## Hezkuntza publikoaren greba Debagoiengan ez da erabatekoa izan

Greba egin dute Bergaran, Eskoriatzan eta Elgetan, baita Aretxabaletako DBHn ere. Grebarik egin ez duten zentroak izan dira Arrasaten, Antzuolan, baita Aretxabaletan ere. Oñatin, Aramaio-ko eskolan eta Aretxabaletako Lanbide Heziketa zentroan, aldiz, erabakia ez da loteslea izan eta irakasle bakoitzak erabaki du greba egin edo ez.

ELAk, Steilasek, LABek eta CCOOk deitu dute protestara, eta aldarrikapenen zerranda luzea dute sindikatuek: inbertsio handiagoko, ratio txikiagoak eta ordezkapenak lehenengo egunetik eskatzen dituzte, besteak beste. Baina Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua ez die nahi duten erantzunik ematen.

Astearteko grebaren ostean, gehiengo sindikalak hilaren 23rako ere deitu du beste greba egun bat.

# Azken ukituak ematen Lasterbidean-i

Ekainaren 4an egingo dute Lasterbidean elkartasun lasterketaren bosgarren edizioa, Oñatin. Antolatzaileak hasiak dira azken ukituak ematen. Horren baitan, zapatuan, hilaren 13an, aurkeztu zuten lasterketa luzearen ibilbidea

## Iker Oñate OÑATI

Lasterbidean-eko antolatzaile eta laguntzaileek zapatuan aurkeztu zuten egitaraua; horrez gain, lasterketa luzearen ibilbidea egin zuten, korrika. Modu horretan, azken ordukoak aurkezteaz aparte, ekainaren 4ko elkartasun lasterketa gertu dela gogorarazi gura izan zuten, Lasterbidean-eko antolakuntzako kide Jose Mari Zugastik azaldu duenez.

Egitarauari dagokionez, bi egunetan banatu dituzte ekintzak. Ekainaren 3rako finkatu dute lehen hitzordua, herriko gaztetxean egingo den kontzertuarekin. Bestetik, esan bezala, hurrengo egunean egingo dira lasterketak: patinen gainekoa (9,2 km), luzea (8,3 km) eta laburra (3 km). Aipaturikoez gain, ekitaldia, herri bazkaria, umeentzat ekintzak, dantza bertikalak eta pilotari profesional ohien partidua ere antolatu dituzte.

## Sari bereziak

Zugastiren esanetan, "euskal preso politikoen egora salatu eta euren senideekin elkartasuna adierazi guran, kirol munduko jendeak jarritako aletxoak da Lasterbidean". Bide horretan, ohiko lasterketaren formatua mantentzen du; kategoria ezberdinetan banatuko dituzte korrikariak, eta, ostean, sari banaketa izango da. Esan beharra dago Lasterbidean-en ukitu nabari dela banatuko dituzten sarietan: "Hainbat euskal preso politikok espetxean eginiko eskulanak jasoko dituzte garaileek; horiek izango dira garaikurrak".

## Aurreikuspenak gorantz

Aurtengo edizioari begira, aurreikuspen oparoak dituzte Lasterbidean-eko antolatzaileek. "Patinen gainean egiteko ibilbidea prestatu dugu lehenengoz; alegia, orain, bi beharrean, hiru lasterketa ezberdin eskainiko

ditugu. Horrek jende gehiago erakar dezake", aitortu du Zugastik. Gaineratu duenez, hala ere, horretan eragina izango du eguraldiak: "Patin gainean ibiltzen direnek garrantzi handia ematen diote eguraldiari; euria egitea ez da ona izango guretzat". Aurreko urtean, 1.000 pertsona baino gehiago elkartu ziren Laudion; aurten, kopuru

## AURREKO EDIZIOKO PARTE-HARTZEA HANDITZEA ESPERO DUTE ANTOLATZAILEEK

hori gainditzea espero dute antolatzaileek.

## Izen-ematea irekita

Irekita dago Lasterbidean-eko hainbat hitzordutan esku hartzeko izen-ematea; maiatzaren 22ra bitartean egongo da apuntatzeko aukera. Lasterketa luzea eta patinen gainekoa egiteko, [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean eman beharko da izena.

Bestetik, herri bazkarirako txartela ere aurrez erosi behar da: Arrano tabernan eta herri-krosaren webgunean jarri dituzte eskuragai, 15 euroko prezioan. 660 pertsonako muga izango da herri bazkarian; eta,



Lasterketa luzearen ibilbidea aurkezten, zapatuan, Oñatin. LASTERBIDEAN

antolatzaileek jakinarazi duteenez, menu begetarianoa hartzeko aukera ere izango da.

## Boluntario ugari

Euskal Herri osoko jendea bildu ohi du Lasterbidean-ek; eta, hori horrela, boluntario sarea eratu behar izan dute antolatzaileek. "Guztira, 200 boluntariotik gora ditugu. Herriko eragile zein norbanakoekin abiatutako kontak-

tu errondaren emaitza da hori. Zentzu horretan, Oñatin ez dugu arazorik izan, ohituta baikaude auzolanean jardutera", aitortu du Zugastik.

Lasterketak irauten duen bitartean, esaterako, 60 pertsona egongo dira herriko hainbat bidegurutzetan. Orain, horiek guztiekin batzartzen hasiak dira, lanak banatu eta egitarauaren nondik norakoak azaltzeko.

## Goiena Komunikazio Taldea

# BATZAR OROKORRA

## DEIALDIA

**Data:** 2017ko ekainaren 8an.

**Ordua:** 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenan.

**Tokia:** Arrasateko Kulturaren izango da, Jokin Zaitegi gelan.

## GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2016ko ekainaren 20ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2016ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2016ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2017ko kudeaketa plana onartzea.
7. 2017ko aurrekontua onartzea.
8. Bazkide ekarpenen eguneraketa.
9. Galderak eta eskaerak.

Arrasaten, 2017ko maiatzaren 9an.  
Aitor Izagirre Navarro  
Errektore Kontseiluko lehendakaria

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA



ULMA Servicios de Mantenición, S. Coop.

Oñati

## OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

**Eguna:** 2017ko maiatzaren 26a  
**Ordua:** 14:00etan lehen deialdia eta 14:30ean bigarrena  
**Tokia:** ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

## GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2016ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2017ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2016ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, onartzea hala badagokio
  - 4.1 2016ko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
  - 4.2 2016ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditorea izendatzea edo berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2016ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2016ko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III-n kooperatiben arteko finantza tresnei buruz ari den III. idazpuruaren aldaketa, hala badagokio
9. POGU III-ren II. idazpuruaren 1.4 atala eta Kooperatibaren Barne Araudiko 82. artikulua 8. eta 9. artikuluen aldaketa, pizgarri kolektiboaren kalkulurako erreferentzi taulak egungo egoera egokitzeko
10. Kooperatibaren Barne Araudiko 27. bi, 28. bi, 29. bat eta 29. lau artikuluen eta estatutu sozialetan kontseilu sozialeko kideen agintaldia ezartzen duen 48. hiru artikuluen aldaketa, hala badagokio
11. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzio aplikatzea (IPDK)
  - 11.1. 2016an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
  - 11.2. 2017an IPDK-k aplikatzeko proposamena
12. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
13. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena
  - 13.1 Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipenaren bilakaera eta itxiera
  - 13.2 Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. ULMA Servicios de Mantenición, S.Coop.ek ULMA Safe Handling Equipment, S.Coop. xurgatuz kooperatiba biek bat egiteko proiektua eta proiektua bera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
  - 16.1. ULMA Servicios de Mantenición, S. Coop.ek (Kooperatiba xurgatzailea) ULMA Safe Handling Equipment, S. Coop. (Kooperatiba xurgatzailea) xurgatuz kooperatiba biek bat egiteko proiektua, eta bere gehigarria aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
  - 16.2. 2016ko abenduaren 31n itxiatiko bat egitearen balantzearen azterketa eta, hala badagokio, onartzea.
  - 16.3. ULMA Servicios de Mantenición, S.Coop.ek (Kooperatiba xurgatzailea) ULMA Safe Handling Equipment, S.Coop. (Kooperatiba xurgatzailea) xurgatuz Kooperatiba biek bat egitea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
  - 16.4. Kontseilu Errektoreari ahalmenak eskuordetzea.
17. Hurrengo batzarrak egiteko lekua
18. Ahalmenak eskuordetzea
19. Galde-eskaerak

**OHARRAK:** 1. Bazkideei gogorazten zaie ULMA Servicios de Mantenición, S.Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena. Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.  
2. Halaber, bazkide guztiak jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan dituztela eskuragarri Estatutuetan, araudietan eta POGU III-n proposatutako aldaketan testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostenak, eta horiek denak doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.  
3. Gai zerrendako 16. puntuari dagokionez, berriaz jasorazten da bazkide guztiak eskubidea dutela Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/1993 Legearen 78. Artikuluan -Bat egiteari buruzko informazioa- adierazitako dokumentuak aztertzeko, kooperatibaren egoitza sozialean, dokumentu horietako bat izanik Bat egiteko Proiektuaren testu osoa eta bere gehigarria. Eskubidea dute, halaber, dokumentu horiek doan eskuratzeko edo bidaltzeko eskatzeko.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA  
Oñati, 2017ko maiatzaren 12a



ZABALIK

IRATI ITZIAR

## Bertakoa

"Eta zu nongoa zara?" galdetzen didaten bakoitzean, badakit, azkenean, azalpenak ematen amaituko dudala, "gasteiztarra naiz" erantzutean harridura aurpegia jarri eta "baina zure euskara..." esango baitidate.

Bai, nire euskalkiak salatzen nau, Oñatin jaiotakoa naiz eta euskalkia nirekin daramat.

30 urte igaro dira dagoeneko Gasteizen bizi naizela, eta nire burua gasteiztar gisa aurkezten dut, baina ezin nire jatorria ezkutatu.

Egia esan, ez da sekretuan gorde beharrekoa ere, nire nortasuna, nire identitatearen parte garrantzitsua baita oñatiartasuna –haurtzarora bertan igaro eta familiaren %99 bertan bizi izateak ere laguntzen du–.

Baina kuriozoso da euskaldunon artean "nongoa zara?" horren erantzunak daukan esanahia –"pisua", esango lukete batzuek–.

X tokikoa zarela erantzutean, etiketa jarriko dizute eta galdetzailak bere mapa linguistiko-geografiko-topiko

mentalean kokatuko zaitu... onerako zein txarrerako.

Bertakoa edo urrunekoa, hemengoa zein kanpokoa izatea, ez litzateke, ba, hautu pertsonala izan beharko?

## HERRI ETA ESKUALDEKA KOKATZEN DITUGU PERTSONAK EZINBESTEAN

Tokikotasunak indar handia dauka gudan. Herrietan auzoak, etxeak eta familiak identifikatzen diren moduan, makrora eramanda, herri eta eskualdeka ere kokatzen ditugulako pertsonak ezinbestean. Are gehiago, euskaldunak eta euskalkidunak badira.

Ez dakit antropologiak nola izendatuko duen fenomeno hau; seguru, ezaguna eta aztertua izan dela. Baina etno-kokapen herritar honek balio ote du euskaldun berriekin? Edota hirietan? Aipatutako mapa mental hori zabaltzen gabiltzalakoan nago.

Hurrengoan, "nongoa zara?" galdetu ostean jasotzen duzuen erantzunaren atzetik identitate eta hautu pertsonal bat ere badagoela konturatu zaitezte, zuen mapa handitu eta aberastu egingo baita, dudarik gabe.

A! Eta bai, gasteiztarra naiz, Oñatin jaiotako gasteiztarra.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Masibismoaren kontra

#### GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

[HTTPS://LABUR.EUS/AN8VX](https://labur.eus/an8vx)

Gutxiegi garelako, are gutxiago garela iruditzen zaigulako, oraindik eta gutxiagotan elkartzeko garelako eta, zergatik ez aitortu, gure gutxitasunaren errekreazio masokistak ere pixka bat berotzen gaituelako, badirudi premia larri batek bizi gaituela euskaldunok: denak elkartu eta zenbat garen erakustea.

Ez naiz ni izango horretarako antolatzen diren jaialdi, saltsa eta festen kontra ariko dena, ezinbestekoak iruditzen baitzaizkit. Bada ordea

fenomeno horiekin lotutako pentsamendu (?) lerro bat, hainbeste grazia egiten ez didana, premia soziolinguistikoetatik datorrena eta esaten diguna euskaraz sortzen den edozerk, definizioz, ahalik eta jende gehienarengana iritsi behar duela, hil ala biziko kontua delako euskararen salbaziorako.

Ez da helburu txarra doike, baina funtzionatzeko modu bat ezartzen du, zeinean edozein proiektu baldintzatzen den abiapuntutik, xede handia lortu beharrez.

Masibismoa deitzen zaio korronte ideologiko horri eta, gorrotatzera iritsi naizen

ekoizpen kultural askoren atzean dago. [...]

Gaitzerdi, dakarren kalte bakarra hori balitz: egiten dena aski baloratzen uzten ez digun perspektiba da –inoiz ez baikara aski masibo, aski arrakastatsu, aski fucker–; eta gainera, ikuspegi horrek ez du ezer berririk sortzeko oinarririk eskaintzen, "denak balio du baldin eta" legetik harago. [...]

Gure normalizazio-grinaren basoak ez gaitzala itsutu arbolaren xehetasunak bazterteraino: hemen benetan arrakastatsuak izan diren sorkuntza lanak ez dira gehienetan logika horretatik abiatu. Eta eskerrak, bestela gureak egin zuen dagoeneko.

**goiena**<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

**Publizitatea**

Amala Mundiñano,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Marta Leturia.

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantxabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredaktore burua**  
Ubane Madera.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

## PROTAGONISTA

# "Eskualdeko bi leku bereziak dira: Araotz eta Udalatx"

JOSE ANTONIO APERRIBAI EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO ADISKIDE NUMERARIOA

**Ubane Madera** BERGARA

Bergarako Industri Maisutzan ikasitakoa, enpresa-gizon lanbidez, eta botanikan zale amorratu, aditu bilakatzeraino. Jose Antonio Aperribai Gallastegi (Bergara, 1945) joan den zapatuan izendatu zuten Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte Adiskide Numerario, botanika arloan egindako ekarpenarengatik: 3.000 paper-orri baino gehiago dituen herbarioa egin du. **Esango zenuke aitortza akademikoa eman dizutela autodidakta izanda ere egindako lanarengatik?**

Bai. Adiskideen Elkartean sartzea ohore handia da; hor dagoen jendea ikusita, elkarteak ze historia duen jakinda eta egin dituen gauzak kontuan hartuta, elkarte hori ez da edozer gauza.

**Zure lana informatizatuta dago, baina egon non dago?**

Bergarako lokaltxo batean. Fisikoki han gordetzen dut, hosto bakoitza plegu batean sartuta dago, familiaka



Jose Antonio Aperribai Gallastegi. IMANOL SORIANO

ordenatuta, bakoitza bere fitxarekin eta informazio piloa duen barra kode eta guzti: non hartu den, ze egunetan, ze lur klase, geoerreferentziarekin... Hezetasun aldetik ondo kontrolatuta dago bilduma,

baldintza onetan, eta kaxetan gordeta.

**Gipuzkoan lehen aldiz topatu diren landare dezente dituzu bertan; baduzu kuttunen bat?**

Bai, *Rubus laciniatus*. Arrasate eta Aramaio artean topatutako

landare bat da, eta Espainian bakarra. Badira 24 bat urte topatu nuela, eta ez da besterik agertu. Sasi bat da, baina sasiak oso zailak dira bereizteko; honi zerbait arraroa ikusi nion, eta Madrilgo Lorategi Botanikora bidali genuen. Han, sasietan espezializatutako aditua zegoen, eta esan zigun *Rubus laciniatus* zela, eta lorategi botanikoaren orrian azaltzen da bakarra izaten segitzen duela, penintsula osoan. **Zentzu horretan, gure ingurua zelakoa da?**

Paraje ederrak eta bereziak daude. Bi bereziki: Araotz ingurua. Landareek esaten dute mikroklima dagoela, euren egokia. Orain dela urte asko topatu nuen graminea bat, Gipuzkoan lehendabizikoa, eta hala segitzen du. Eta badaude beste bi espezie Gipuzkoarako lehendabizikoak: bi orkidea. Publikatzeko tramitean daude. Landare gehiago ere bai. Beste leku interesgarria Udalatx da. Ematen du harria bakarrik dela, eta ez da egia. Hor dauden landare eta loreak oso ikusgarriak dira. Udalatx berezia da. Badago zuhaixa garrantzitsu bat: *Quercus coccifera*. Azkeneko Glaziazioaren aurretik daude bertan, eta hori oso arraroa da.

## HAU BE BADOGU!

**'#LGTBifobia'-ren aurka, '#loveislove' traola**



Asteazkenean, maiatzak 17, LGTBifobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta oraingoraino dauden aurreiritziak salatzen eta errespetua eta tolerantzia eskatzeko *#loveislove* traola erabili dute mundu osoan:

**@IxoneRekalde:** "Askatasuna, errespetua, aukera, ikasi, ahaztu, sentitu, gozatu, maitatu, bizi. Ni ere *#LGTBifobia*-ren kontra".

## Euskal txirrindularien garaipenak Giroan



Zapatuan Gorka Izagirre ormaiztegiarrak lortu zuen etapa garaipena, eta eguaztenean Omar Fraile santurtziarrak. Horrela, *#Giro100* traola *trending topic* bilakatu da gurean, eta zorion mezu ugari partekatu dituzte hainbat erabiltzailek:

**@mikelastarloza:** "Zorionak Omar Fraile! Aurtengo Giroan soilik 7 euskaldun izan arren, 2. garaipena eta ezetz azkena izan...".

## Hezkuntzako grebak, oihartzuna sarean ere

*#Grebaheskuntzan* eta *#LOMCEriplanto* traolak erabilienetakoak izan dira asteon, astelehenerako greba deitu zuten-eta hezkuntzan:

**@Ignatius\_Walker:** "*#Grebaheskuntzan* Hau momentu ona gizarteak esaten duena entzuteko!".

**@MKueto:** "*#Grebaheskuntzan* Tinko jarraituko dugu! Dirua kenduko diguzue baina ez gure dignitatea!".

## ITURRI ONETIK

## Bergarako jaietako egitaraua

Laster dira Bergarako Pazkoak. Ekainaren 2an hasi eta 11n bukatuko dira, Mahonero Jaiarekin. Dagoeneko jaietako egitaraua gertu dute antolatzaileek. Horren adierazle da datorren martitzenean, maiatzaren 23an, egingo dutela aurkezpena. Bestelakoan artean, bertantxe jakinaraziko dute Bergarako Erraldoi Taldeak aurkeztuko dituen erraldoi-ertain berrien izenak: *Kotoi* eta *Mahoi*. Elkarte horrek ohi duenez, udalerriarekin zerikusia duten gaien edo pertsonen bueltan lantzen ditu erraldoiak, arrakasta handiarekin.

## GORA ETA BEHERA



## Gaizki erabiltzearen ondorioak

"Oñatiko Olakua auzoan dagoen olio batzeko gailu hau sarri egoten da ezin erabilia, erabiltzaileek gaizki erabiltzen dutelako. Askok kristalezko poteetan sartzen dute olioak dagokien edukiontzi aproposetan baino, eta, horren ondorioz, ataskatu egiten da. Mantentze-lanetakoa sarri etortzen da, baina erabilera da okerra", jakinarazi du oñatiar batek.



OIHANA ELORTZA

## Baserritarrok ere, errauskailuari ez!

**ANE GOROSABEL MONJE, LUR PAGOAGA ZALOÑA, AITZOL ITURBE BERISTAIN ETA NAROA ARIZNABARRETA IBARLUZEA**  
BASERRIA XXI-EN IZENEAN  
DEBAGOIENA

Hasi dira dagoeneko Zubietan errauskailua egiteko lanak. Gipuzkoako Baserritarren Elkartetik, Baserri XXIetik, lehenago ere adierazi izan diogu atxikimendua errauskailuaren aurkako borrokari, eta, atzeraezinezko dirudien une honetan, atxikimendu hori berrestera gatoz.

Bat egiten dugu errauskailuaren aurkako mugimendutik egiten diren salaketekin: gipuzkoarrok zorpetzea, gure hondakinak kudeaketa eta bertatik beraiek nahieran ateratako irabaziaz enpresa batzuei oparitza –tarte, horren famatu egin den *Lezo* operazioan agertu den bat–, gizakiongan sor ditzakeen gaixotasunak, natura kaltetzea...

Guztiantzat garrantzitsua den baina nekazari eta abeltzainon jardunaren erdigunean dagoen gaiari arreta berezia eskaini nahi genioke, naturaren kaltetzeari.

Beste behin, azpiegitura handi batek gure landare eta abereei aire garbia kenduko die, gure jarduerarako ezinbesteko den ur garbia pozoituko du, horren beharrezkoa den eta urri daukagun materia organikoa pribatizatuko du, eta horren eskas daukagun lur emankorreko hektarea pila bat pikutara bidaliko ditu eraikuntzarekin berarekin eta bertako hondakinak gordetzeko beharko diren zabortegi bereziekin.

Dei egiten diegu Gipuzkoako baserritarrei gainontzeko eragileekin batera errauskailuari aurkakotasuna adierazi eta alternatibetan parte hartzera, gure herriarentzat kalitatezko janaria ekoizteko ardura daukagunok ere ezin

dugulako honelako astakeria bat onartu.

Eutsi Lurrari! Errausketarik ez!

## Larrialdi zerbitzu duin eta seguru baten alde

**AMAIA AGIRRE, MIREN KORTABARRIA, LAURA SANCHEZ, ROSA DIAZ DE CERIO, AMAGOIA GOROSABEL, EIDER MADINA, AINHOA ALTUBE, JUDITH BADIOLA, ALEJANDRO MASIE, MARI JOSE MUÑOZ, ZURIÑE PEREA ETA LOURDES SORDO**

DEBAGOIENEN OSPITALEKO LARRIALDI ZERBITZUETAKO LANGILEAK  
DEBAGOIENA

Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzuetan gertatzen dabilen egoera kezkagarriaren berri eman nahi diegu herritarrei bertako langileok. Zerbitzu honek beti izan du pertsonal gabezia, bereziki, beste eskualde batzuetakoekin alderatuta, baina egoera jasanezina da gaur egun.

Ospitale berria orain dela bost urte inauguratu genuen, ilusio handiarekin eta instalazio berrien abantailekin. Baina lan kargak gora egin du nabarmen eta pertsonalak ez, ordea; are gehiago, kasu batzuetan, behera egin du.

Debagoienean, inguruko eskualdeek duten antzeko biztanleria izanik, larrialdi kasu gehiago hartzen ditugu pertsonal gutxiagorekin. Eta horrek eragin handia dauka bai langileon osasunean eta, nola ez, gaixoei atentziao emateko orduan.

Onartezina iruditzen zaigu Osakidetza atentzio desberdina ematea Debagoienean bizitzeagatik.

Gure helburu nagusia herritarrei behar bezalako osasun zerbitzua eskaintzea da, gu eta gure ingurukoak langile izateaz gain erabiltzaile ere bagara eta.

Egoera hau salatzeko mobilizatzea erabaki dugu.

Larrialdietan egindako egonaldian itxaron beharra gertatu bazaizu edo atentzioan gabeziaren bat igarri baduzu, jakin ez dela izan profesionaltasun ezagatik, pertsonal ezagatik baizik.

## Antzuolako EH Bildu, zuk erabakitzen duzuna

**MIKEL LIZARAZU**  
ANTZUOLA

Azken egun hauetan, EH Bilduko kongresuaren inguruko berriak argitaratu eta zabaldu dira hainbat komunikabideetan. Duela gutxi Donostian egindako batzar batean, 350 pertsonak kongresu horri begirako araudia onartu zuten, eta ekainaren 17ko data finkatu zen.

Antzuolan egiten ari garen lanak oraindik ez du komunikabideen arretarik jaso, etxe barrura begira aritu garelako, baina ari, ari gara. Maiatzaren 27an, batzarra egingo dugu Torresorooan. Orain arte egindakoa mahai gainean jarri nahi dugu, eta erabakiak hartu: nola antolatuko da Antzuolako EH Bildu? Nola funtzionatuko du? Zertan eragin behar dugu? Zein gairi eman behar diogu lehentasuna? Herrian zertan aritu? Gaiak zela landu? Udal-taldearekin nola koordinatu?...

Abenduaren 3ko herri batzarreko ideiekin sortutako proposamenak aurreko galderai erantzuten die. Momentuz, proposamena besterik ez da. Maiatzaren 27ko batzarrean, horren guztiaren inguruko iritziak entzun eta emateko aukera egongo da eta, bide batez, erabakitzeko datoen urteotan Antzuolan EH Bilduk hartuko duen norabidea. Etorkizuna zure esku dago. Etorri, parte hartu, eta erabaki.

## Mila esker posible egin zenuten guztioi

**IRENE SANTAMARIA AZKARATE**  
'ZIGORREKIN ETA FAMILIAKOEKIN BAT EGITEKO' JAIALDIKO ANTOLATZAILAK  
BERGARA

Egun polita eta denbora luzean gogoratzekoa pasa genuen larunbatean Bergarako Kartzela Zaharrean. Haur, gazte eta heldu bertan izan ginenartzeko bizi den Zigor Azkargorta bergararra pasatzen ari den

gaixotasunaren aurrean berarekin bat egiteko antolatutako jaialdian.

Laurogei heldutik gora eta hogeita hamar bat haur elkartu ginen bazkaltzeko, Zigor barne. Jatordu goxo bat hasteko, giro alai, eta jarraian, Bergarako talde ezberdinek eskaintutako musika. Talde lasai eta ez hain lasaiak, guztion gusturako. Pintxo bat hemendik, edaria zein jai giroa bestetik, halaxe joan zitzaigun arratsaldea. Baina festa ez zen hemen amaitu. Gau luzea genuen aurretik. Bailarako DJ ezberdinak izan ziren bertako dantzaldi eta eromenaren erantzule. Eta, nola ez, goizera arte iraun zuen festak.

Zigorrekin eta bere familiarekin bat egun eta egun polit bat igarotzea zen helburuetako bat, baita ekonomikoki Zigorri laguntza ematea ere. Eta antolatzaileok oso pozik gaude lortutakoarekin. Baina nola ez, ez zen posible izango egun horretako parte-hartzaile bakoitzaren laguntza gabe. Beraz, etorri zineten eta lagundu zenuten guztioi, etorri ezin baina laguntza eskaini zenutenoi, kartel diseinatzaile, pintxo egile, musikari, barrako langile, sarrerako langile, DJ, gazte asanbladako kide, eta abarri, mila esker, bihotzez, antolatzaileen partetik eta, nola ez, baita Zigorren partetik ere. Mila esker posible egin zenuten guztioi.

## 'Erabakitzeko prest'

**JASONE GIRALDO**  
GURE ESKU DAGO ARRASATE  
ARRASATE

Arrasateko GEDko batzordekideok ekainaren 10ean, Bilbon, izango den ekimenaren berri ematera gatz, *Erabakitzeko prest* ekimenaren berri ematera.

2013an Gure Esku Dagoren aurkezpena egin genuen. 2014an, lehen galdeketa egin ziren Etxarri-Aranatzen eta Arrankudiagan. Urte berean, 150.000 lagunok giza katea osatu genuen erabakitzeko

eskubidearen alde. 2015ean, Euskal Herriko estadioetan beste elementu bat gehitu genuen: hautetsontzia. Urte bereko udazkenean, *Eskura* prozesuan, oinarriak finkatu eta etorkizunerako bidea marraztu genuen. 2016an, galdeketa lehen olatua abiatu zen eta ostean, olatu horrek sortutako uhinak beste hainbat galdeketa olatu bihurtu ziren Euskal Herri osoan. Honek guztiak, 2016ko udazkenean, ibilbide berri bati eman zion bultzada: *Prest* prozesuari. Bide-orria zehaztu genuen, forma eman genion eta lan ildoaren ardatzak adostu genituen: ituna, herri galdeketa, mobilizazioak eta elkarlana.

*Prest* ibilbide-orrian onartutako ardatzetako bat *Itun herritarra* da. Erabakitzeo eskubidearen aldeko adostasunak sortu dira hainbat esparrutan. Adosgune horiek herrietako edota eskualdeetako galdeketa orube komuna osatzen ari dira, erabakitzeo eskubidearen aldeko tokiko adierazpenak bihurtuz. Forma eta eduki anitzeko adierazpen horiek guztiak erabakitzeo eskubidearen aldeko itun herritar batean bildu ditugu. Itun horrek GEDren filosofia jasotzen du. Beraz, hau da ekainaren 10ean, Bilbon, mobilizazio jendetsu baten laguntza, plazaratuko duguna: *Itun herritarra*.

*Prest* gaudelako, erabakitzeo eskubidearen aldeko *Itun herritarra* partekatuta eta gizarteratu nahi dugulako, herritar guztiak Bilbon izango den ekimenaren parte hartzera gonbidatzen ditugu eta denon artean gure erabakia galdera ikur erraldoi batez irudikatuko dugu. Egun handi horri behar besteko oihartzuna emateko, eta motorrak berotzen joateko, maiatzaren 27an, Arrasaten, arrasatearren galdera ikurra irudikatuko dugu.

Denok gara beharrezko, denok dugu lekua eta zeresana prozesu honetan; horregatik, zatoz Bilbora eta zure ahotsa ere entzun dezatela: *Erabakitzeo prest!*



# Hiru droga-operazio bederatzi egunean

Epe laburrean drogekin lotutako atxiloteta eta gertaeren kokaleku izan dira Arrasateko hainbat taberna. Horietako azkena Santa Teresako Montserrat tabernan izan zen, egubakoitzean, eta jabea Martutenen atxilotuta dago droga-trafikoagatik

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Ertzaintzak droga-trafikoaren aurkako operazioa egin zuen pasa den asteburuan, Santa Teresa auzoan dagoen Montserrat tabernan.

Zigorrolako jaiak hasteaz bat, barikuan, segurtasuna bermatzeko ohiko miaketa egitera sartu ziren. Tabernan zeuden hainbat bezerori drogak atzeman zizkieten, eta tabernan aurkitutako drogak batzeko plastiko eta alanbre sokatxoak bezeroei antzemendakoen berdinak zirela ohartu ziren ertzainak.

Zapatuan, epailearen miaketa baimenarekin eta txakurren laguntzarekin, taberna, biltegia eta zerbitzariaren autoa miatu zituzten, eta orduan atzeman zituzten substantzia estupefazianteak, horiek batzeko materiala eta preziosozko balantza bat.

Segurtasun Sailaren arabera, 1.261 gramo marihuana, 398 gramo hauts zuri, anfetamina izan daitekeena gehi hura mozteko beste 90 gramo hauts zuri, eta kristal formako beste 1,2 gramoko substantzia atzeman zituzten.

**Jabea eta zerbitzaria atxilotuta**

Egubakoitzean atxilotu ondoren, astelehen goizean deklaratu zu-



Montserrat tabernan izan zen hiru operazioetako azkena. IMANOL BELOKI

ten tabernako jabeak eta zerbitzariak. Epailearen aurretik pasa ondoren, tabernako jabe den 52 urteko emakumea Martuteneko espetxean dago eta 35 urteko gizonezkoa aske geratu da. Ertzaintzako iturriek adierazi dutenaren arabera, ez jabeak, ez zerbitzariak ez zituzten aurrekari penalik.

**Hirugarrena epe laburrean**

Bi aste baino epe laburragoan drogaren aurkako hiru operazio egin ditu Ertzaintzak Arrasateko tabernetan.

Lehena Iriztu tabernan izan zen, maiatzaren 4an, eta bertako zerbitzaria atxilotu zuten. Tabako pakete batean substantzia estupefaziante baten 15 dosi aurkitu zituzten eta atxilotuaren gauzen artean beste 47 dosi gehiago, 3 tableta haxix eta 4 ezkur marihuana. Aurrekari penalik zituen, eta orain, Martuteneko espetxean dago atxilotuta. Hiru operazioetatik bigarrena Equis tabernan egin zuten pasa den egunean; hainbat lagun identifikatu zituzten, eta estupefazianteak atzeman.

## Haurrak naturan jolasteko duten beharra islatzera

Txatxilipurdik *Naturan jolasean* jardunaldia antolatu du biharko, Leintz Eskola Kirolarekin, Bezaide Mendi Elkartarekin, Olgeta Jolaserako Zentroarekin, AGAKOrekin eta Naturtzaindia Kontserbazio Biologiaren Elkartarekin batera.

10:45ean Herriko Plazatik Santa Barbarara joango den ginkanarekin hasiko dute eguna, 12:00etan Monterron aisialdirako gune libre bihurtuko da, eta familiek bertan bazkaltzea da antolatzaileen asmoa.

Bazkalostean, gaztetxeko kideen eskutik oihal akrobaziak egongo dira eta Olgetan zentrokoen eskutik tipiaren eta babeslekuen eraikuntza.

## Herriko artisauen presentzia biharko baserriarren azokan

Bihar, zapatua, egingo dute maiatzeko baserriarren azoka Seber Altube plazan. Oraingo honetan, herriko artisauak izango dira protagonistak. Esku Artean artisau taldekoek bitxigintza, erruberen hagunekin egindako gerrikoak, biserak, ilustrazioak eta zeramikak jarriko dituzte salgai, eta, bide batez, herritarrek euren lana ezagutzeko aukera izango dute.

Landatzeko garai aproposa denez, ez da jenero askorik izango. Hala ere, baba beltzak, ilarrak, letxugak, kipulak eta espinakak salduko dituzte baserriarrek, eta erosleen artean baserriko produktuekin osatutako otarre bat zozketatuko dute.



ANE VITORIA

## Asteburuko erasoak gaitzetsiz

San Pankrazio jaietan izandako bi erasoak eta ostiral gauean Arrasateko taberna batean gertatutakoa salatu zituzten astelehenean. Emakumeen Mundu Martxako kideek adierazi zuten egoera "jasenezina" dela, zerbitu egin beharra dagoela. Martitzenean, udal taldeek adierazpen bateratua kaleratu zuten, eta unibertsitatean elkarretaratzeak egin zituzten.

**E-LEARNING KONPONBIDE BAT BEHAR DUZU? E-KASTEN DA ZURE AUKERA!**

www.e-kasten.com  
info@e-kasten.com  
943 71 20 72

Zure enpresako barne formakuntza tradizionala –produktuak, harrera planak, sare komertzialak– edo bezeroei zuzendutako formakuntza tradizionala e-learning ikastaro bihurtzen dugu.

**Formakuntza gastuetan %60tik gorako murrizketa.**

Ikasleentzako malgutasuna, erosotasuna, ikaskuntza erritmo egokitua.

Ikaslearen lan prozesuaren jarraipen integrala.



# Unzurrunzagaren lana hilabetez ikusgai

Xabier Unzurrunzaga (Zarautz, 1937) arkitektoak Arrasateko berrantolaketa urbanistikoa egiteko erronka hartu zuen 70eko hamarkada hasieran, eta orduan egindako planteamenduak plazaratzeko erakusketa jarri du Kulturateko klaustroan

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateren oparotasun industrialak sortutako hazkunde demografikoak arazo sozioekonomiko, egiturazko eta urbanistikoak sortu zituen herrian, eta horiei konponbidea emateko Siadeco enpresa aukeratu zuen Arrasateko Udalak 1968an. Lan mardul horren barruan, Unzurrunzagak herriaren hirigintza-azterketa egin zuen, ordura arte ondo eta gaizki egindako antolamendu urbanistikoa aztertuta.

Ez zen lan makala izan, eta, ondoren, tesi modura garatu zuen Ameriketako Estatu Batuetako North Carolina State unibertsitatean egin zuen hirigintza diseinuko graduondoa. Orain, amerikarrei erakutsitako lan hori guztiori arrasatearrek partekatzen, erakusketa antolatu du Kulturateko klaustroan. Atzo inauguratu zuten, eta han izan ziren berarekin tratatu zuzena izan zuten pertsonak; adibidez, Alvaro Arregi alkate ohia.

## 40 panel inguru

Erakusketan, planoak, garaiko argazkiak eta eskuz egindako marrazkiak egongo dira ikusgai, bakoitza dagokion azalpenekin. Ekainaren 19ra arte egongo da ikusgai, 17:30etik 20:30era.



Unzurrunzaga, erakusketaren muina kazetarien aurrean azaltzen. XABI GOROSTIDI

## Ilusioz beterik

Berak egindako lana herriko jendeari erakusteko aukerarekin pozik azaldu da Xabier Unzurrunzaga.

"Ilusioz beterik nago duela 40 urte baino egindako lana plazaratzeko aukerarekin. Oso garai zailak izan ziren, eta lan handia egin genuen; batez ere, garaiko agintariei gure ideiak azaltzeko eta konbentzitzeko. Beraz, herriarrek eta, batez ere, belaualdi berriek guk egindakoaren berri izatea oso positiboa iruditzen zait".

## Ibilbide oparoa

Ibilbide profesional oparoa izan du Xabier Unzurrunzagak arkitekturaren alorrean, eta horren erakusle da, esaterako, 1994an jaso zuen Thyssen arkitektura saria.

Profesional bezala 50 urte bete zituenean, erakusketa zabal bat egin zuen Donostiako EHUko Arkitektura Fakultatean. Alvaro Arregi eta Pedro Basterretxea alkate ohiak han izan ziren, eta, Arrasateko pisu handia zuela ikusita, erakusketa herrira ekartzeari proposatu zioten.

## 1956ra arte ondo egindakoak

Unzurrunzagak Arrasateko hirigintza-azterketa egin zuenean, ordura arte ondo egindako hainbat gauza ikusi zituen.

"Osorik hartuta, Arrasateren hiri-hedapen eta eraldaketa modu txukunean gauzatu zen XX. mende erdialdera arte, hiri-kultura maila handi batekin". Ondo egindako eraikinen artean, honako hauek aipatzen ditu: "1924an, adibidez, Union Cerrajeratik hurbil, Maalako Etxaldea (Etxe Txikiak) eraiki zen, familia bakarreko hamazortzi etxebizitzarekin. Europa erdialdeko industria hirietan garatzen ari ziren bizitegi erako eredu bat jarraitzen. Horrez gain, gerra osteko lehen urteetan, San Juan auzoa eraiki zen. Arrasateko lehen bizitegi erako zabalguneraz arrazional modura har daiteke, *hof* baten antzerako morfologia jarraitzen zuelako".

## 1956-1971 artean etxeak laukoiztu

Epe hartan, Arrasateko industria kooperatibistaren garapen izugarria bizi izan zuen eta horrek hazkunde demografiko oso handia ekarri zuen urte gutxiren baitan. 1950ean 1.039 etxebizitza zeuden Arrasaten eta 1970ean, aldiz, 4.138 ziren. Hogei urteko epean kopurua laukoiztu egin zen.

"Kanpotik etorritako langileen etxebizitza beharra konpondu zen, baina, urbanistikoki, ez zen ganorazko hiri bat eraiki. 60ko hamarkadan 25 plan partzial sortu ziren 1956ko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren gainean. Hala, Santa Marina, Musakola, San Andres eta Uribarri bizitegi auzoak sortu ziren, biztanleria-dentsitate handiarekin eta erdigunetik deskonektatuta".

## Proposatutako konponbideak

Arrasateko hirigintza antolamendua zehazteko orduan hainbat konponbide planteatu zituen Unzurrunzagak, eta horietako batzuk errealitate bihurtu dira. Aurretik aipatu diren auzoak herriko erdigunearrekin konektatzeko oinezkoentzako zumardi bat egitea planteatu zuen; gaur egun Musakolako kiroldegia Erguingo etxeekin lotzen duen pasealekua, hain zuzen.

Alde zaharren hiri-balioa eta balio arkitektonikoa mantentzeko hirigune historikoa birgaitzeko plan berezia idatzi zuen, besteak beste, behe solairu eta hiru etxebizitzako altuerako eraikinak izatea legez mugatuz. "BBVA gainean altxatzen den etxe orratzaren mehatxuaren aurrean zerbait egin beharra zegoen", azaldu du.

## PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda  
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta  
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra  
Kontxi Lazkano - Pedagogoa  
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Laguntza eskolarrak

Psikoterapia:  
umeak, gazteak eta helduak

Estimulazio goiztiarra

Arreta psikologikoa  
genero indarkerian

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

## Hauteskunde sindikalak izango dituzte Iturbideko erizainek

Askatu da Iturbide egoitzan lan egiten duten Aita Menniko erizainen lan gatazkaren korapiloa.

Asteazkenean egin zuten enpresa batzordea desegiteko deitutako batzarra, eta langileen gehiengoak horren alde bozkatu zuen. 53 langileetatik 47k parte hartu zuten, eta horietatik 29k aldekoa botoa eman zuten, hamalauk aurkakoa eta lauk zuri

bozkatu zuten. Batzarra normaltasunez egin zen, eta laster hauteskunde sindikalak egingo dituzte.

## Lan egutegiaren bozketa

Comisiones Obreras-ek esan zuen asteazkeneko batzarraren aurretik euren egutegia bozkatzeko hasierako akordioa egin zutela. Edozelan ere, azkenean, hauteskunde osten egitea erabaki dute. "Ez dugu giroa gehiago okertu nahi, eta bozketa atzeratzea erabaki dugu".

Kids&amp;Us / Ingelesa 1. urtetik aurrera



## Kids&Us-ek zentro bat zabalduko du Arrasaten

1 eta 18 urte arteko ingelesa ikasteko metodo iraultzaileak lehenengo zentroa zabalduko du Arrasaten.

Zentro hau datorren ikasturte hasierarako izango diren 375ei gehituko zaie, 100.000 ikaste baino gehiagorekin. Kids&Us hainbat herrialdetan dago: Espainian, Italian, Belgikan, Andorran, Frantzia, Txekiar Errepublikan, Marokon eta Mexikon.

Kids&Us-ek ama-hizkuntzaren jabetze-prozesu naturalean oinarritutako metodo propioa dauka; prozesua guztiz eraginkorra da, eta ordena berezi, natural eta berezkoan gauzatzen da. Bizitzaren lehenengo urteetan martxan jartzen diren mekanismo guztiak ustiatu eta optimizatu gura ditu Kids&Us-ek, bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasten laguntzeko.

Natàlia Perarnau fundatzailearen ikuspegi berritzaileak ekarri du Natural English izeneko metodo propioa sortzea. Hauxe da sekretua: ingelesa ikastea eta gure ama-hizkuntzaren jabetze-prozesu naturala parekatzea.

### Zertan datza Kids&Us-en Natural English metodoa?

Ikastaroak ez dira mailaka banatzen, ikasleen adinen arabera baizik; izan ere, denak hasten dira, beranduenez, 7 urterekin. Materialak ikasleen interesetara egokituta daude; horrela, ondo

pasatzen dute eta ikasten segitzeko motibazioari eusten diote.

Kids&Us-en ustez, ingelesak umeen egunerokoan egon behar du. Horregatik, hizkuntza ikasteko metodo honek audioak eskaintzen ditu, ingelesarekiko loturari euts diezaioten, egunero, etxean dauden bitartean. Horrez gain, gelaz haragoko ikasketa sustatzen du: txikiendako jolasak aplikazio mugikorren bitartez, oporretarako jarduerak, umeendako eta gazteendako argitalpenak, antzeztanak ingelesez, sukaldetailerrak, eta abar. Metodo honek irauli egin du hizkuntza ikasteko sistema tradizionala, umeak jatorrizko ingeles hitzun moduan hartzen dituen ikuspegi berritzaileari esker.

Eskolak minutuka diseinatuta daude, eskola bakoitza ondo aprobetxatzeko. Edukiak araututa eta definituta daude, ikasleek erritmo egokian ikas dezaten. Kids&Us-en Pedagogia Departamentuan hogeit hamar profesional bakoitza ikasle bakoitzarekin lan egiten dute; edukiak gainbegiratu eta eguneratzen dituzte, ahalik eta eraginkorrenak eta motibagarriak izan daitezen ikasleek hizkuntza ikas dezaten.

Kalitatea bermatuta dago; izan ere, eskolen eta irakasleen kalitate-kontrol zorrotza egiten da, ikuskaritzekin eta eskolen grabazio-sistema batekin. Urtero, eskolen eta irakasleen 4.000 ikuskaritza baino gehiago egiten dira eta haien jarduna eta metodoa betetzen dutela ebaluatzen da.

Kids&Us-ek ateak zabalduko ditu Arrasaten, eta, horretarako, informazio-jardunaldiak antolatuko

ditu. Isabel Murrek, Kids&Us-en formakuntza-arduradunak, metodologia eta harekin lotutako guztia aurkeztuko du. Ikastaroen pertsonaiak eta gelan erabiliko diren materialak aurkeztuko dira, gurasoek Kids&Us-en eskaintza zabala ikus dezaten; betiere, umearen adinari eta beharrei egokituta.

#### Informazio-jardunaldiak:

- Ekainaren 3an
- 10:00etan eta 12:00etan
- Kulturaren (Azoka kalea 1)

Asistentzia konfirmatzeko:

**Kids&Us Arrasate**

Euskal Herria plaza 13 (Gelma eraikina)  
20500 Arrasate  
T. 656 740 578  
arrasate@kidsandus.es



Mondrako neskek indarrez eta ilusioz beteta daude zapatuan Eibarri hortzak erakusteko. XABI GOROSTIDI

# Kopako finala jokatzeko azken pausoa ematera

Pasa den asteburuan Allerruri 1-0 irabazi ondoren, Andoni Ezkurraren eta Hodei Guridiren taldeak urrats bakarrera dauka kopako finala. Hori lortzeko, Eibarren bigarren taldea garaitu beharko dute, bihar, 18:30 Mojategiko zaleen aurrean

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Denboraldia titulu batekin bukatzeko aukera handiak ditu Mondrako nesken talde nagusiak. Hil edo biziko finalerdia gainditu beharko dute horretarako, Eibar taldearen aurka.

## Aurkari ezaguna aurrez aurre

"Ondo ezagutzen dugun taldea da Eibar. Aurten lau aldiz jokatuko dugu euren aurka eta ez dugu sekretu handirik elkarri ezkutatzeke", adierazi du Andoni Ezkurra prestatzaileak.

Lau lehia horietan bi aldiz gailendu ziren armaginak, bat berdinketan amaitu zen eta bestea arrasatearrek irabazi zuten. "Aurtengo balantzea euren aldekoa izan den arren, partidu oso orekatuak izan dira, gol alde oso txikiarekin amaitu direnak. Gehienetan, baloi geldiko jokaldiak izan dira balantza alde batera edo bestera erabaki dutenak, eta, ziur aski, biharko partiduko gakoa hori izan daiteke".

## Taldea ia osotasunean

Biharko hitzordu garrantzitsuari aurre egiteko hamazortzi jokalaririk izango ditu Ezkurrak bere aginduetara. "Hemeretzi laguneko taldea gara, eta, bihurdu-rak jota dagoen jokalaririk bat izan ezik, gainontzeko guztiak jokatzeke prest egongo dira".

Etxean jokatzea aldeko faktore izan daiteke kasu askotan, baina, Ezkurraren ustez, presio gehigarria ekar dezake. "Batzuetan, etxean jokatzerakoan, jokalariek ez dute aske jokatzen. Aurreko astean Lezoko Allerru taldearen aurka hori gertatu zitzaigun. Partiduaren kontrola izan genuen, baina hori ez zen markagailuan islatu. Urduritasuna izan genuen momentu kla-

**EIBARRI IRABAZI  
BEHAR DIOTE BIHAR,  
KOPAKO FINALERAKO  
TXARTELA LORTU  
AHAL IZATEKO**

be batzuetan, eta, azkenean, larrialdiak pasatuta, baina lortu genuen garaipena. Eskerrak Uxue Ezpeleta atezaina fin aritu zela atepian".

## Kopako helburua beteta

Liga erregularrean igoera fase-tik kanpo geratuta, Kopan lehen bi sailkatuen artean geratzea jarri zuten helburu, eta lehenengo amaitu zuten. "Ligako fasean ez genuen igotzeko helbururik. Minutuak ahalik eta gehien banatzea zen nire lehen-tasuna, eta, ondo hasi ginen arren, bosgarren postuan amaitu genuen. Ostean, Kopako lehen bi postuetan sailkatzeke erronka hartu genuen, eta bete dugu; beraz, pozik nago taldearekin".

Finalean sartzea denboraldia-ri amaiera bikaina ematea izango litzatekeela azaldu du Ezkurrak. Eibarri irabaziz gero, Lagun Onakek eta Urnietak jokatuko duten finalerditik ateratzen den taldea izango dute aurkari finalean.



Maialen Iarza, pozarren. XABI GOROSTIDI

**"Gatzagako pertsonarik zoriontsuena ni nintzen"**

## MAIALEN IARZA

### AUTO PILOTUA

Debuta egin berri du Gatzagako igoeran

### X.G. ARRASATE

Lehenengo lasterketa egin zuen duela gutxi eskuratu duen 205 autoarekin, eta ahoan irribarrea zuela amaitu zuen proba.

### Nola bizi izan zenuen debutaren eguna?

Oso ondo, sekulakoa izan zen. Eurria egingo zuen beldur nintzen, baina sekulako eguraldia egin zuen. Lagunak eta familia etengabe animatzen aritu ziren, eta dena ezin hobeto atera zen, egia esan. Gatzagako pertsonarik zoriontsuena ni nintzen.

### Gustura, lortutako emaitzarekin?

Gustura, ez, oso gustura. Autoa ondo joan zen, ez zidan inongo arazorik eman, eta, alde horretatik, ondo. Bestalde, txandatik txandara sentsazioak hobetuz joan nintzen, eta denborarik onena hirugarren eta azken txandan lortu nuen.

### Matxurarik gabe amaitzea ere garrantzitsua, ezta?

Autoa erosi berritan, eta hainbat lasterketarekin aurretik, oso albiste positiboa da matxurarik ez izatea.

### Eta Gatzagakoaren ostean, zer?

Ba, asteburu honetan kopilotu lanak egingo ditut Gorka Urrutiarekin Azkoitiko Rallysprintean. Eta hurrengo asteburuan Gorlako igoeran parte hartuko dut nire autoarekin berriz ere.

## NIRE USTEZ

AÑE GOROSABEL

## Ortu txiki, proiektu handi

Emakumea protagonista. Distantzian baina hain gertu ditugun herrialdeen saretzea helburu. Euskara bide, zentzu eta giltza. Lurra eta natura erreminta Arrasaten ari da gertatzen. Elkarlana lagun, Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik, proiektu ederra dugu esku artean. Astero, jaioterri desberdinetako arrasatearrak batzen gaituen ortu txiki bat jarri dugu martxan. Ortu txiki, proiektu handi. Bailarako baserritar gazteok gogoz ekin diogu proposamen honi, bide honetan ikasteko duguna xurgatzeko desioz.

Ustelkeria ardatz hartu gura duen sistema eredu inposatu baten aurrean jaiotzen diren estrategiak beharrezkoak ditugulako, bazterkeria normaltasunez hartzen duen gizarte klasista bati aurre egin gura dioten proposamenak sortzeko gaitasuna dugulako, eta interes indibidualetatik urrundun nahian proiektu kolektiboan alde apustua egiteko ordua iritsi zaigulako:

Batu gaitezen lurraren inguruan, defenda dezagun naturak eskaintzen dizkigun harreman osasuntsuak, arnaguneak aldarrikatu ditzagun. Bidea egiteko dugu, sinistu dezagun gurea dela eta ireki gaitezen konpartitzera, bilkurara, harreman berrietara... Herriatik ortura, ortutik herrira. Zatoz?

## Zaldibarren final-laurdenetarako txartelak garestitzen

Bosgarren jardunaldia jokatuko da asteburu honetan, eta talde guztiak final-laurdenetarako sailkatzeke aukerarik daude oraindik. A taldean Altza Porru taldea da liderra, eta jada sailkatuta dago.

B taldean, aldiz, Aldatz eta Legends lidergoan berdinduta daude, eta biek dute final-laurdenetarako txartela poltsikoan.

# Miren Odriozolaren bizitza liburu baten bueltan

El Salvadorko gerran aritu zen, erizain, eta Pakito Arriaranekin lotura estua izan zuen. Leire Iburguren idazleak haren bizipenak batu ditu 'Laura deitzen zioten' liburuan, eta gaur, egubakoitza, aurkezpena egin ostean, solasaldia egingo dute

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Askapenak eta Pottogorriak taldeak batera egindako proposamena da gaur 19:00etan Kulturaren hasiko dena. Bertan, Miren Odriozola internazionalistak bizitakoak batzen dituen liburua aurkeztuko dute idazleak eta protagonistak.

"Ez nuke sekula ere pentsatuko nire bizipenak edo esperientziak liburu batean pilatuko zirenik inoiz. Nolabaiteko lotsa eta beldurra ematen zidan, eta Leire Iburgurenek pazientzia handia izan nuen ni konbentzitzea lortzeko. Baina hark emandako aldeko argumentuetatik, bik eman zidaten zer pentsa: alde batetik, nire esperientzia plazaratzea aberasgarria izan zitekeela esan zidan, baina, batez ere, emakumeek bizitako oso esperientzia gutxi daudela jakiteak animatu ninduen urrats hori egitera.

## Damutu gabe

Konbentzitzeak lanak eman zizkion idazleari, baina Odriozola ez da damutzen erabakia hartu izanaz; batez ere, izan duen harrera beroa ikusi ondoren. "Egia esan, jendeak oso ondo hartzen

gaitu goazen tokira goazela. El Salvadorko gerrak, Bizkaiko langile borroak eta emakumeen aldekoak interesa pizten dutela ikusteak asko bete nau, eta jendeak asko galdetzen dit horien inguruan".

## El Salvadorko bizipenak

Miren Odriozolak 1983ko otsailan zapaldu zuen lehen aldiz El Salvador, gerra garaian zeudela. "Beste garai batzuk ziren, 70eko hamarkadatik genduzen; Vietnamgo gerra, 68ko uda Frantzia, Nikaragua... Gure artean asko eztabaidatzen genuen sozialismoari eta internazionalismoari buruz, eta sozialismoaren alde borrokatzen ari zen herri batera joan nahi nuela erabaki nuen".

Aurretik, Venezuelan eta Nikaraguan egon zen. Venezuelen Pakito Arriaran ezagutu zuen, eta harekin batera egin zuen El Salvadorerako bidea. "El Salvadorko gerraren gaineko pelikula bat ikusi genuen, eta hori ikusi ostean erabaki genuen hara joango ginela. Elkarrekin maitemindu ginen, eta gerra batera joateko ataritan hasi genuen bikote harremana."

Bera zertxobait geroxeago heldu zen eta bertan biziak salbatzen aritu zen erizain gisa. "Chalatenangon nengoen eta bertan ez zen apenas medikurik. Amerikako lurraldetakoak, italiarrak, alemanak, euskaldunak edo katalanak ginen zauriak sendatzen aritzen ginenak, eta askok han utzi zuten euren bizia".

## Dantzak eta playback festa Al-Andalusko Kultur Astean

Aurreko egubakoitzean hasi zuen bere bidea Al-Andalus elkartearen Kultur Asteak, eta domeka honetan esango diote agur, datorren urtera arte. Gaur, egubakoitza, haurren eguna ospatuko dute, 18:00etan puzgarriekin eta 19:00etan ipuin kontaketarekin. Bihar, Alegria de la Sierra taldearen emanaldia-ekin hasiko dute eguna, 13:15ean; handik ordu erdira, Al-Andalus talde errozieroaren txanda izango da. 18:00etan *Sube y baja* txapelketa egingo dute eta ostean, afaria eta playback jaialdia.

Domekan, Sueños de Andalucía taldeak emanaldia egingo du, 13:00etan; gero, dantza eta dantza arituko dira sevillanekin.

## Gaur Nevadah eta Magnetico Grupo Robot gaztetxean

Azkenaldian bailarako rockzaileen artean interesa piztu duen Nevadah bizkaitarrak eta Magnetico Grupo Robot talde eroa Arrasateko Gaztetxeko oholtza gainera igoko dira gaur, egubakoitza, 22:30ean.

Magnetico Grupo Robot bermeotarrek euren moztarrok eta doinu bitxiak ekarriko dituzte, eta ziur bat baino gehiago zur eta lur utziko dutela. Aurretik, Eureka Hot IV, Los Frenos, Los Brebes eta beste hainbat bandatan aritutako musikariak dira.

Bestalde, Nevadah taldekoek euren rock doinu txukunak taulatuko dituzte, berezkoa duten zuzeneko indartsuarekin ikusleak dantzan jartzeko.

## BASERRITARREN AZOKA ETA ARTISAU FERIA



### Maiatzak 20 zapata

Arrasateko Seber Altube  
plazan (08:00 - 14:30)



- Bitxigintza
- Erroberen hagunekin egindako gerrikoak
- Biserak
- Grafika
- Ilustrazioa
- Zeramika...

Materiala erakusgai eta salgai



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Miren Odriozola, erdian, liburua lehen aldiz aurkezterakoan. UROLA KOSTAKO HITZA



Kurtzebarri eskolako ikasleak udalbatzako kideei lanaren berri ematen, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

## Ikasleen proposamenak klima aldaketa saihesteko

Kurtzebarri eskolako neska-mutikoen ikasturtean zehar landu dute gaia eta neurri txikiak hartuta aretxabalarrek ere murriztu dezaketela eragina ondorioztatu dute; horregatik, udalbatzako kideekin elkartu dira hainbat eskaera egiteko

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Klima aldaketa lantzen jardun dute Kurtzebarri eskolako ikasleek aurtengo ikasturtean, eta landutako horren berri eman zioten udalbatzari eguaztenean. Herriarrek zeresan handia dutela horretan uste dute, eta horregatik, hainbat proposamen egin zizkieten udal ordezkari,

pauso txikiak emanda klima aldaketarengan duten eragina murrizteko.

**Mugikortasuna eta elikagaiak**

Lehen Hezkuntzako bigarren mailako Udal langileen autoak aztertu dituzte; behatu dute bai udaltzainenek, bai brigadako langileenek urte asko

dituztela eta guztiek erabiltzen dutela gasolioa: "Ondorio nagusia da lurraren beroketari eragiten diotela, eta zera proposatzen dugu: udaltzainenek bizikletak erabiltzea ahal dutenean eta ibilgailu aldatzerakoan elektrikoak erostea".

Laugarren mailako herriarrek mugikortasun ohiturak

aztertu dituzte, eta ondorioztatu dute "batez ere autoan eta bakarrik mugitzen" direla. Horregatik hainbat eskaera egin dituzte hobetzeko: "Autoa partekatze kanpaina bat jarri beharko luke abian Udalak, eta alokatze bizikletak ipin daitezke herriz herri mugitzeko".

Seigarren mailakoek, oster, elikagaiak landu dituzte, herriarrek dendetan duten elikagai eskaintza, hain zuzen ere. "Oso ortu gutxi dago inguruan eta bertako produktu gehiago ez saltzearen arrazoia da ez direla ekoizten". Horregatik proposatu zieten udal ordezkari ortu jarri gura duten aretxabalarrei laguntzea.

DBHko lehenengo mailako ikasleek Aretxabaletan lurrari ematen zaion erabilpena behatu dute, eta ondorioztatu lantegiei, errepideei eta autoei eman zaiela lehentasuna azken urteetan: "Eta horrek eragin zuzena du klima aldaketarengan". Horri aurre egiteko proposatutako artean daude hutsik dauden etxeak berrerabiltzea, eraikuntza berrietan lorategiak eginaraztea eta berdeguneak errespetatzea ezer eraiki gabe.

Udal eraikinetan erabiltzen duten energia aztertu dute DBHko bigarren mailakoek, besteak beste, kiroldegian, udaletxean, eta Kurtzebarri eskolan. Eta behatu dute gas naturala erabiltzen dutela gehien –erregai

fosilean gutxien kutsatzen duena– eta argiztapenerako erabiltzeko artean %90 iturri berriztaezinetatik datorrela. Hori horrela, jatorri berriztagarria duen energia hornitzailea kontratatze eskatu zioten udalbatzari eguaztenean.

**Ikasleen konpromisoak**

Udalari ekarpenak egin bakarrik ez, konpromiso batzuk ere hartu zituzten ikasleek; hona hemen horietako batzuk: jatekoa berrerabili daitezkeen ontzietan eramateko kanpaina bat egitea; elikadura osasuntsuagoa bultzatzea –fruta, fruitu lehorrak...–; berotasuna gordeko duten leihoak jartzea eskolan; eguzki plaka gehiago jartzea berrerabili daitezkeen energia gehiago sortzeko; eta zuhaitzak landatzea (urtean 54) garraioak sortutako kutsadura konpentsatzeko.

Alkateak erantzun zien proposamen guztiak aztertuko dituztela datozen hilabeteotan, eta jasoko dutela erantzuna. Gazteei eskaera ere egin zien Herriko Plazan zaintzeko eta zakarrontziak erabiltzeko eskolatik ateratzen direnean.

**ORTUA JARRI GURA DUTEN HERRITARREI UDALAK LAGUNTZEA PROPOSATU DUTE IKASLEEK**

## Homo, lesbo, bi eta transfobiaren aurkako adierazpena

EH Bilduk egin zuen proposamena eguaztenean egindako osoko bilkuran eta aho batez onartu zuten

**M.A.** ARETXABALETA

Maiatzaren 17an, Homo-Lesbo-Bi-Transfobien Aurkako Nazioarteko Egunean hain zuzen ere, adierazpen instituzionala onartzea proposatu zuen EH Bilduk eta udalbatzarrak onartu egin zuen aho batez.

Oraindik asko dagoela eraldatzeko instituzioetan eta gizarte adierazi dute adierazpen horretan: "Izan ere munduko herri askok urratzen dituzte oraindik LGTBIQ (lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual, queer) kolektiboaren eskubideak. Azken

aldian entzun izan ditugu Errusia edo Txetxeniaren kasuak". Guztira 73 herrialdeetako gobernuak zigortzen dutela sexu bereko harremanak adierazi dute. Eta erasoak Euskal Herrian ere badirela diote: "Azken asteetan ezagunak izan dira Iruñea edo eta Irunen gertatutako eraso homofoboak, baina lehena-gotik ere Gasteiz eta Bilbon bizi izan dira halakoak". Horregatik Euskal Herriak ezin duela beste aldera begiratu diote: "Aretxabaleko Udaltatik, LGTBIQ eskubideak bermatzeko politikak

bultzatuko ditugu. Bide batez, gizarte eredu justu eta anitz baten alde lan egingo dugu, homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia amaitzeko lan egiten duten pertsona eta eragile guztiekin batera". Eta egun horretan LGTBIQ-fobiaren kontrako ikurra zintzilikatzea udaletxean onartu zuten.

**Azbeko arau aldaketa**

Eguaztenean egindako ohiko osoko bilkuran Azbe guneko arau aldaketa ere onartu zuten behin behinean. Lantegia izandako eraikin hori merkataritza gunea izan dadin eman beharreko pausoak jarri zituen abian Udalak, eta alegaziorik egon ez denez behin behinean onartu zuten –EH Bilduko eta Irabaziko zinegotzien abstentzioarekin–, eta Aldundi- ra bidaliko dute orain.

## OHARRAK

### Odol ateratzea astelehenean

Durana kalean izango da Arabako odol bankuko autobus maiaztaren 22an eta 29an, 16:15etik 20:00etara.

### Perkusio emanaldia hilaren 24an

Leizarra musika eskolako ikasleek perkusio emanaldia eskainiko dute eguaztenean, hilaren 24an, Arkupen, 18:00etan. Eta hilaren 29an, astelehena, trikiti eta pandero-joleen kontzertua izango da.

### Santa Ritaren omenezko meza

Maiatzaren 22an bukatuko dute Santa Ritaren bederatziruena eta arrosak bedeinkatuko dituzte orduan. Meza 19:00etan da parrokiaren hiletan balego egun horretan, 11:00etan–.

### Musika eskolako matrikulazio epea zabalik

Ekainaren 16a arte dago epea Leizarra musika eskolan matrikulatzeko. Arkupen duen bulegotik pasatu behar da arratsaldeetan (17:00-19:00).

### Zerendepya taldea Gasteizko Hell Doradon

Aretxabaleko Zerendepya taldeak maiatzaren 26an joko du Hell Dorado elkartearen (22:00), Kintxofest jaialdiaren barruan.

# Euskalgintzako lagunak elkartzeko aitzakia

Euskeriaren Eguna egingo du Loramendi elkarteak bihar, zapatua, eta euskara ahoan dela kale bazterrak girotuko dituzte. Lehiaketekin hasiko dute eguna, bazkaltzeko elkartuko dira gero eta ospakizuna dantzan bukatuko dute iluntzean

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Maiatzaren erdian dator Euskeriaren Eguna, beste behin, eta, oraingoan ere, euskara ahoan hartuta lagun asko elkartzeko dira: "Herriko euskalgintzan dihardugun lagunok elkartzeko aitzakia polita da", jakinarazi du Martin Berrizbeitiak, Loramendi elkartearen teknikariak.

## Oilaskoa gertatzeko lehiaketa

Aurten beste helburu bat ere zehaztu dute: "Herriko elkarteak jaiegun horretan inplikatzeko". Horregatik, bi lehiaketa antolatu dituzte horiendako: batetik, Mingainluze lehiaketa; plazan izango da, 11:30ean: "Mihiluze

## Egitaraua

- **11:30** Mingainluze lehiaketa Herriko Plazan.
- **14:00** I. Lehiaketa Gastronomikoaren sari banaketa ekitaldia.
- **14:30** Herri bazkaria plazan.
- **Jarraian** Bolo txapelketa.
- **19:30** Larrain dantza Durana kalean.
- **Ondoren**, batukada kalean Sambamaña taldearekin.

lehiaketaren antzera, hainbat proba egingo dituzte, eta ekitaldia aurkeztuko dute "Iñigo Iñurategik eta Lierni Zangituk". UDA, Lekaixoka, Kantu Poteo Taldea eta Iristu izango dira nor baino nor gehiago.

Bestetik, gastronomia lehiaketa egingo dute, lehenengoz, elkarte artean. Gero, herri bazkarian jango duten oilaskoa gertatuko dute hainbat elkarte; hona hemen: Muru Alde, Uratz Alde, Basotxo, Eguzki Alde, batzokia eta gaztelekua.

Arratsaldean larrain dantza dantzatuko dute, eta ondoren, batukada doinuak izango dira kalean gora eta behera.

## Literatura lehiaketako lanik onenak sarituta

Eguaztenean banatu zizkieten Loramendi literatura lehiaketara aurkeztutako lan onenari sariak. Guztira, 451 lan jaso dituzte aurten, eta, epaimahaiko kideen esanetan, maila polita izan da, beste behin. Hona hemen irabazleak:

### Ipuinak LH 3-4 (155 lan)

- Eñaut Uribarren
- Iraitz Larrañaga
- Danel Zubillaga

### Bertsoa LH 3-4 (71 lan)

- Nekane Ziardegi
- Maren Negro
- Irati Fernandez

### Argazkia LH 3-4 (5 lan)

- Ainhoa Zubillaga
- Martxel Lasagabaster

### Ipuina LH 5-6 (42 lan)

- Olatz Maidagan
- Arkaitz Leturiaga
- Unax Perez

### Bertsoa LH 5-6 (7 lan)

- Izaro Hernandez

### Argazkia LH 5-6 (40 lan)

- Haizea Ezkurra
- Oinatz Linazisoro

### Gutuna LH 5-6 (29 lan)

- Xabier Gabilondo
- Beñat Beitia

### Iritzia DBH 1-2 (39 lan)

- Enaitz Garai
- Malen Basabe

### Gutuna DBH 1-2 (31 lan)

- Pello Berrizbeitia
- Yuli Corres
- Naroa Urtaza

### Bertsoa DBH 1-2 (24 lan)

- Malen Basabe
- Igortz Ramos
- Talha Hussain

### Iritzia DBH 3-4 (2 lan)

- Amaia Uribetxeberria eta Laia Arriola

### Gutuna DBH 3-4 (6 lan)

- Edurne Martinez
- Sara Pagalday



Sariak jasotako neska-mutikoak. M.A.

## Kirolez Busti ekimena bertso olinpiadekin hasiko du UDAk

Hilaren 25etik 27ra antolatutako egitarauaren barruan, Arzallus eta Soto bertsolariak izango dira eguenean

**M.A.** ARETXABALETA

Kirola herritarrei gerturatzea helburu duen Kirolez Busti ekimena antolatu du UDAk, beste urte batez, eta maiatzaren 25etik 27ra bitartean egingo du. Aurtengo nobedadearekin dator, gainera, bertso olinpiadak jarriko du-eta abian.

Eguenean, hilak 25, Amets Arzallus, Julio Soto, Xabi Igoa eta Martin Berrizbeitia bertsolariak elkartzeko dira Iturrigorri pilotalekuko oholtzan, 19:30ean –sarrera 3 euro da–. Eta Ane Zuazubiskar gai-jartzailearen

aginduetara jardungo dute lanean goi mailako olinpiada eskaintzeko.

### Bi egunetan gura beste kirol

Hurrengo bi egunetan kirolari egingo diote lekua kaleetan. Egubakoitzean bizikleta sprintak, gimnasia erritmiko erakustaldiak eta xakea ezagutzeko partidak izango dira. Eta zapatuan: doke txapelketa; herriko pilotarien partidak; elite mailako emakumezkoen pilota partidak; paella dastaketa; boulderra; eta hiruko saskibaloia.



MIRARI ALTUBE

## Arizmendi UDAkoak Euskal Ligan

Euskal Ligara igotzeko txartela Ostadarren aurka Lasarten jokaturako partiduan zuen Arizmendi UDAk, baita lortu ere. Azken minuturaino egin zuten borrokan, eta, hiruko berdinketarekin bukatu arren, nahikoa izan zuten puntu bakar hori. Datorren domekan (16:30), UDAREN eta Oiarzunen arteko norgehiagoka hasi aurretik, harrera egingo diete Arizmendi UDAko jokalariei.

## Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak salgai Arkupen

Ekainaren 3an eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Tipi-Tapa Korrika!* ikuskizuna. Ibarra kiroldegian izango da, 18:00etan, eta ordu-rako sarrerak dagoeneko salgai dituzte Arkupen: aldeztu aurretik erosiz gero 5 eurotan eta eguenean bertan, kiroldegian, 6 eurotan. Lagun bakoitzeko bost sarrera salduko dituzte gehienez.

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

# Ate joka dago Kirol Elkartearen eguna

Maiatzaren 27an izango da klubaren egun handia, eta, urtero legez, egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek egun osorako. Kirola oinarri izanda, herri bazkaria, motorzaleen topaketa eta Super-Eskolote zozketa izango dira, besteak beste

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Kirol Elkartearen eguna hamaikagarrenez ospatuko dute aurten, eta, urtero bezala, egitarau zabala prestatu dute elkarteko kideek egun osorako. Hala, maiatzaren 27an kirola izango da protagonista, baina beste hainbat ekintzarekin ere beteko da herria.

Egunari areto futbol eta saskibalo saioekin emango diote hasiera, Manuel Muñoz kiroldegian. 09:00etan atezainen erronka egingo dute, eta ostean, beteranoek saskibalo partidua jokatuko dute. Horrekin batera, plazan umeentzako jolasak hasiko dira, eguneko ekintzen gune nagusia izango da hura. Patata-tortilla lehiaketa ere egingo da. Parte hartu nahi duenak 12:00ak aurretik eraman beharko du tortilla plazara eta pintxotan salduko dira. Horren ondoren, epaimahaiak 13:00etan emango ditu sariak.

Urtero legez, motorzaleak ere batuko dira elkartearen festara, eta topaketa 13:30ean egingo dute. 14:30ean, berriz, herri bazkaria egingo da. Arratsaldean, argazki erraldoia, ginkana eta gurasoentzako eta umeentzako txapelketa izango dira, besteak beste.

**Jesus Candelas berriz ere**

Iaz, Jesus Candelas, munduko areto futboleko entrenatzaile onena birritan izendatutakoa, elkartearen egunean izan zen, eta aurten, berriz izango da Eskoriatzan.

Maila ezberdinetako jokalariei entrenamenduen metodologiaren eta plangintzaren inguruko ikasgai magistrala emango die. Ibarraundin izango da, goizeko hamaiketara.

**Herri bazkarirako azken txanpa**

14:30ean Herriko Plazan izango den herri bazkarirako txartelak maiatzaren 22ra arte (astelehe-



Iaz, elkartearen egunean egindako herri bazkarian batutakoak. ESKORIATZA K.E

na) egongo dira salgai, hamar eurotan: Toki Alai, Benta Motz Berri eta Inkernu tabernetan. Menua, berriz, ohiturari jarraituz, paella erraldoia izango da, eta, horrez gain, sagardo kupe-lak jarriko dituzte.

Afaltzeko, txuleta-parrillada egingo dute, eta 21:00 aldera Super-Esko lotearen zozketa egin ostean, Bartzelona eta Alaves taldeen Kopako finala ikusiko dute plazan, pantaila erraldoian, egunari amaiera emateko.

## "Jokalariak herrira ateratzea da asmoa"

**JAVI CORBAL**  
ELKARTEKO PRESIDENTEA

Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidentea gogoz dago klubaren eguna ospatzeko eta, bide batez, kirola oinarri izanda, herria girotzeko.

**Zein helbururekin antolatzen duzue jaia?**

Eguna antolatzen hasi ginenean, elkarteko kirolariak kiroldegitik plazara ateratzeko asmoz hasi ginen. Horrekin batera, herria girotzeko, egiten duguna herrian ikusteko, eta dirutxo bat ateratzeko asmoz



GOIENA

antolatzen dugu, kluba finantzatzeko.

**Aurten, berrikuntzarik?**

Beste urte batzuetako egitarauaren antzekoa izan arren, hainbat aldaketa eta berrikuntza jarri ditugu. Goizeko partiduetan, atezainen desafioa izango dugu, beteranoen saskibalo partidua egongo da... eta, berrikuntza ez izan arren, Jesus Candelas berriz etorriko da aurten hitzaldia ematera.



LUIS EZEIZA

## Luis Ezeizakoak grebarekin bat

Hezkuntzak azken urteetan egin dituen eta egiten jarraitzen duen murrizketen kontra azaldu dira Luis Ezeiza herri eskolakoak; hala nola ordezkapenak lehen egunetik ez burutzea, behin betikotasun lanpostu eskasia... Hala, hilaren 23ko grebara ere batuko dira, eta maiatzaren 22an eta 26an ere elkarretaratzeko egingo dituzte, 08:45ean, eskolako patioan.



IMANOL SORIANO

## Motxila 21, zoragarri

Atxorrotx Kultura Elkartearen egunaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek, batez ere; herrigintzan egin zen lanarengatik. Ekintza guztiek izan zuten arrakasta; batez ere, Motxila 21 taldearen kontzertuak. Herriko Plaza beteta, ikuskizun berezia eskaini zuten, eta oholtzan izan ziren musikariak zein entzuleek asko disfrutatu zuten egunaz.

## Txikirri-Txikirri ekainaren 18an izango da

Hildako eskoriatzarren omenezko Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia ekainaren 18an egingo da aurten, hamaikagarren urtez. Irteera 07:30an izango da, Herriko Plazan, eta parte hartu nahi duenak lasterketa hasi baino ordubete lehenago egin beharko du izen-ematea, bost eurotan. Informazio gehiago, 943 71 43 27 telefono zenbakira deituta.

## Peter Roberts mimoak erakustaldia egingo du Zaldibarren

Alcoholicos Anonimos taldearen 40. urteurrena dela-eta, 18:30ean, Peter Roberts mimoa Zaldibar antzokian izango da maiatzaren 26an, egubakoitzean. Erakustaldi honen bitartez, magia, umoreaz eta ikusleen parte hartzeaz baliatuz, gehigizko alkohol kontsumoaren inguruko gogoe-ta eginarazi nahi da. Sarrera doan da.





Santa Ana aparkalekua. I.B

## Santa Ana aparkalekuaren etorkizuna kolokan dago

Pasa den legealdian egindako akordioa aldatu egin nahi dute Santa Ana-Santa Marina bitarteko lurren jabeek

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Herri erdigunean dagoen Santa Ana aparkalekua berbagai da herrian; izan ere, lur eremu horietako jabeek ez dute akordiorik egin Udalarekin, eta, ez badute egiten, laster itxi egingo dute.

Santa Ana eta Santa Marina bitarteko lur eremuak hiru promotore edo jabe ditu, Razkin, Arbietxe eta Guneka, eta aparkalekua beraien lur eremuetan dago. Razkin eraikuntzetako arduradun Jon Razkinek azaldu du akordioa ez dela aparkalekuarena soilik, lur eremu osoarena dela: "Aparkalekuaren alokairuaren kontratua abenduan amaitu zen, eta, bizpahiru bilerearen ostean, ez gara adostasun batera iristen. Orain, aparkaleku batzuk egiten ari da Udala herrian zehar, eta obrak egin bitartean Udalak eskatu digu aparkalekua uzteko, uztailearen

15 arte edo lehenagora arte. Hala ere, herriko hainbat auzunetan egiten ari diren aparkaleku horiek amaitu ostean, ez dakit, baina, agian, berriz batuko gara hitz egiteko".

**Akordiorik ez**

"Pasa den legealdian akordio batera iritsi ginen aparkalekuaren alokairuari dagokionez, eta, oraingoan, aldatu egin nahi dugu", adierazi du Razkinek. Eta gaineratu du: "Ez dugu zifra jakinik eskatu; edozein modutan, errenta formal bat jarri nahiko genuke, baina ez dago gure esku bakarrik. Izan ere, esparru hartan etxeak eraikitzeke lurrak ere badaude, aparkalekuaren eremuaren barruan, eta jakinikoa da horrek duen balioa. Guretzat, pena litzateke aparkaleku itxi beharra, baina proposatzen diguten akordioarekin ez gaude ados".

## Eginoren lana ikusgai dago

Iñaki Ruiz de Egiño eskultorearen lanaren zati bat maiatzeko lehen astea ezker dago Ibarraundi museoan, eta erakusketa hila bete osoan egongo da zabalik. Aste honetan, *Una dimensión creativa* hitzaldia eskaini du, eta, bere lanaren inguruko azalpenak emateaz batera, artisten bizitzaren ingurukoak ere entzuteko aukera izan da.



I.B

# "Jende berria ezagutuz, taldean egin gura dugu"

**OIER ETXEBARRIA** ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

'Gatzagatik Bermeora mendiz mendi' ekimena zapatu honetan gauzatuko da. Bizkaiko udalerrian izango den Arrain Azoka baliatuta, ura eta gatza eramango dute bertara

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 20an, zapatu honetan, 07:00etan, Bermeorainoko 77 kilometroko bidea egingo dute, Leintz Gatzagatik, mendiz mendi, eta 21:30 inguruan helteza aurreikusten dute. Ura eta gatza lekuko moduan eramanda, udalerrri bizkaitarrera Hiruerreketako ura eta Gatzagan ekoiztutako gatza eramango dute, Arrain Azoka dela-eta, hemengo produktua ezagutarazteko asmoz.

**Zein asmekin antolatu duzue ekimen hau?**

Egun-pasa ederra egitea da helburu nagusia, ibilbide berriak ezagutarazteko. Gatzagako Gatz Museokoek dutena eta guk dugun nahia elkartzuz, Gipuzkoa barrualdean ekoizten den produktua, Bermeen, kostaldean ezagutarazteko eta promozionatzeko. Bestalde, jende berria ezagutzeko aukera ematen duen ekimena da, eta taldean egin gura dugu.

**Nork har dezake parte mendi marxa horretan?**

Parte-hartzea zabalik dago, eta nahi duena etorri daiteke; hala ere, gurekin etortzeko asmoa dutenei, abisatzeko eskatzen diegu; niri (688 88 12 90) edo Rosari (608 34 85 22) deituta. Ibilaldia bakarrik, taldeka edo



Oier Etxebarria. MIRARI ALTUBE

nahi bezala egin daiteke, eta, gainera, ibilbidea osorik edo tarteka egin daiteke.

**77 kilometro guztira; osorik egingo duenik ba al dago?**

Markoa zein den jakin behar da, ez da lasterketa bat. Batzuek Gatzagatik Bermeoraino joateko asmoa dugu. Beste bat, Asier, bizikletan ere animatuko da osorik egitera... Hala ere, Durango eta Gernika izango dira puntu nagusiak, bertatik hasi edo bertaraino ere egin daitekeelako bidea. Hala ere, asmoa denok batera taldean egitea da.

**Lekuko bitxia eramango duzue, gainera?**

Hiruerreketako ura eta Gatz Museoa ekoiztutako gatza eramango dugu Bermeora. Izan ere, han, Arrain Azoka ospatuko dute asteburuan, eta aukera aparta dela uste dugu hemengo produktua han ezagutarazteko. Donostiara joan ginenean, iaz, berdin egin genuen, eta opariak elkarbanatuko ditugu han jasoko dugun ongietorrian. Bestalde, Leintz Gatzagak saltokia izango du, eta tailer batzuetan hartuko dugu parte.

**Bidea ezagutzen al duzue? Galtzeko arrisku barik joango zarete?**

Egingo dugun hainbatek ezagutzen dugu, gutxi gorabehera, bidea eta, gainera, ibilbidearen track-a GPS bidez egingo dugu. GR-38 bidearen zati bat hartzen du, *Ardoaren eta arrainaren ibilbidea* deritzona, eta jende asko ibiltzen da, ez dut uste galduko garenik...

**Gaur, 19:00etan, Gatz Museoa elkartuko zarete azken batzarra egiteko?**

Hala da, batzar informatiboa egingo dugu; logistika, eraman beharreko gauzak... azken gauzak lotzeko. Batez ere, Bermeotik bueltatzeko nola egingo dugun, kontaktuak elkartrukatzeko, Whatsapp taldea eratzeko...

## Puntaik Punta ekimenera bizikletan, erreibindikazio gisa

Maiatzaren 17an hasi eta 21era arte, Puntaik Punta 2017 bidezidorren jaialdia ospatuko da Debagoienan; Bergara gunen nagusia izango da, eta Leintz Gatzagako herritarrek ekimenera batuko dira domekan.

Bergarara bizikletan joango dira: Gatzagatik Eskoriatzara errepidetik jaitsiko dira eta Kuartuenan bidegorria hartuko dute.

10:00etan irtengo dira, eta bialarako herritarrei ekimenera batzeko dei egin diete, martxan parte hartu dezaten eta herriz herri jendea gehitzen joan dadin.

Ekimen horren bidez, erreibindikazioa ere egin nahi dute gatzagarrek. Izan ere, Gatzagatik Eskoriatzara bidean ez dute bidegorririk. Joanes Mendizabal Kultura zinegotziak azaldu duenez: "Trenbide zaharra, Marin-Zarimutz tartea ez dago erabilgarri, Kuartuenan galdu egiten da bidegorria..."

## Ingurumen Asteak eman ditu bere fruituak Gatzagan

Herritarrei hondakinen berrehabiltzaren gaineko mezua helarazita, balorazio "positiboa" egin du Udalak, eta, batez ere, zapatuan izandako *Konpost eroak* antzerkiak eta umeekin egindako jolasak azpimarratu dituzte ekintza borobil moduan. Hala ere, eskolara ere joatekoak dira, umei konpostaren gaineko azalpenak emateko.



Eguaztenean aurkeztu zituzten euskararen erabilera datuak, Sastiñan. ENEKO AZURMENDI

## Elkarrizketen %63,4 euskaraz dira Aramaion

Soziolinguistika Klusterrak Aramaioiko Udalaren eskariz egindako neurketa batek ondorioztatu duenez, kalean euskaraz gehien egiten duen adin taldea haurrena da, %74,5; gazteen, helduen eta adinekoen euskara erabilera %60 inguruan dago

### Eneko Azurmendi ARAMAIO

Soziolinguistika Klusterrak udazkenean behaketa bitartez egin zuten euskararen erabilera gaineko ikerketa, eta asteon aurkeztu dituzte emaitzak. Ondorio nagusia da Aramaioiko kaleetan egiten diren elkarrizketen %64,7 euskaraz direla -2.409 hitzun neurtu dira eta horietatik 1527k egiten dute euskaraz egunerokotasunean-.

Lau adin taldetan banatu da ikerketa: haurrak -2 eta 14 urte bitartekoak-, gazteak -15 eta 24 urte bitartekoak-, helduak -25 eta 64 urte bitartekoak- eta adinekoak -65 urtetik gorakoak-. Emaitzak aztertuta, haurrek gainontzeko taldeek baino "dezenteko" gehiago egiten dute euskaraz, Asier Basurto Soziolinguistika Klusterreko kidearen arabera. Izan ere, ia 15 puntuko aldea dago batzuen eta besteen artean.

Beste datu esanguratsu bat gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tartea utzi du. Izan ere,

sei puntuko aldea dago bien artean: emakumezkoen %66,5ek egiten du euskaraz eta gizonezkoen %60,1ek.

2003. urtean egin zen lehenengoz euskararen erabilerearen gaineko ikerketa bat Aramaion eta ordutik, orokorrean begirata, datuak egonkorra dira, mantentzeko joera dute: "Datuak nahiko antzeko mantendu dira, ez da ikusten gorako edo behe-rantzko joerarik. Beraz, Aramaion euskararen erabilera egonkorra dela esan dezakegu", adierazi du Basurtok.

### Arnas gunea

Basurtoren esanean, Aramaio euskararen arnas guneeetako bat da. "Dagoen ezagutza maila altua

**EMAKUMEZKOEN  
%66,5EK EGITEN DU  
EUSKARAZ ARAMAION  
ETA GIZONEZKOEN  
%60,1EK**

da eta ez datuak ez dira harritzekoak. Euskaldunak gehiengoak diren herri bat da Aramaio", azpimarratu du.

### Balorazioa, positiboa

Udalak positiboki baloratu ditu ikerketak utzitako emaitzak. Rosa Mondragon Aramaioiko euskara teknikariak azaldu du emaitzak "onak" direla. Hala ere, kezka puntu bat adierazi du, gazteen erabilerari dagokionez. "Gazteen artean euskararen erabilera jaitsi egingo zelako susmoa bageneukan, eta neurketa honek baieztatu egin du, neurri batean. Hala ere, udaltik ez dugu mezu katastrofistarik helarazi gura. Orokorrean datuak mantendu egiten dira eta horri eman behar diogu garrantzia", adierazi du.

Gaineratu du hurrengo pausoa dela gai hau Euskararen Jarraipen batzordean aztertzea eta herriko beste eragile batzuekin elkarlana bilatzea, euskararen erabilera bultzatzeko.

## "Gure aurrekoen bizimoduaz hitz egitea merezi du"

BITTOR ARBIZU FILOLOGOA

Baserriek daukaten garrantziaz mintzatu da Arbizu

### E.A. ARAMAIO

*Baserria: bizitza eta ingurua. Janariak eta ohiturak* hitzaldia eskaini zuen atzo, udaletxean.

### -Zeri buruz hitz egin zenuen?

Euskal Herrian etxeak, hau da, gure baserriak garrantzi izugarria du. Bertan jaio, bizi eta hiltzen zen. Orain, gauzak nahiko aldatu dira, baina gure aurrekoen bizimoduen gainean hitz egitea merezi du, haien omenez eta gure urte askotako bizimodua gogoratzeko.

### -Asko aldatu al da Aramaio azken 100 urteetan?

Bai; Euskal Herria osoan zehar gertatu den moduan, baserriak nolabait hustu egin dira, bertakoak industrietara joan direlako, soldata ziur baten bila. Lehen, etxaldeak guztiz landatuta zeuden; zenbait menditan ere patata ereiten zen, eta lan itzela egiten zen bertan zeuden familia zabalei zer jan eman ahal izateko. Orain, aldiz, pinuz bete dira landak.

### Zein izan da Aramaioaren bilakaera?

Aramaion, nolabait, eusten zaio lehengo baserriari, eta hurbileko kooperatibetako lana ere garrantzitsua da. Dena dela, aipatu behar da duela ia 200 urte bazeudela bertan hainbat irin-errot, baita aizkorak eta antzeko lan-tresnak egiteko lantegi bat ere, zeinari esker 100 bat familia bizi ziren.

### Elikadurari dagokionez, zer esango zenuke?

Egon den aldaketa nabaria da. Lehen, autohornikuntza izaten



Bittor Arbizu. B.A.

zen baserrietan, dena bertan ematen zelako: txerriak ia urte osorako zer jan ematen zuten. Horrez gain, ardiak, behiak, ortuko fruituak, patatak, ogia eta beste hainbat animalia eta produktu. Garai batean, kafea eta azukrea bakarrik erosten ziren kanpoan, esnea edo oilandaren bat trukatur. Gaur egun, aldiz, kanpoan erosten da ia gehiena.

### Zer moduzko harrera izan duzu Aramaion izan zarenetan?

Aramaion egona naiz, behin baino gehiagotan, eta, oro har, oso jende atsegina aurkitu dut. Baina atzokoa nire lehenengo hitzaldia izan zen. Beste tokiren batean emana dut eta eman beharko ditut baserriaren gaineko hitzaldi gehiago. Orain arte emandakoetan gustura egon izan dira hartzaileak. Hor dago nire ahalegin apala.

## Ipuin lehiaketako sari banaketa arrakastatsua izan da

63 ipuin aurkeztu dira: haurren kategorian 61 eta helduen kategorian bi. Hori dela eta, helduen parte-hartzea sustatu gura izan dute datorren urtera begira.

Sariak honakoak izan dira: lehen mailan, Monkiren istorioa izan zen onena eta , bigarren mailan, Basurde Bizkorra. Hirugarren mailan, lehenengo saria Udazkeneko abenturak eta

bigarren saria Martin eta Xabierren abenturak; laugarren mailan, lehen saria Basurdeak arriskuan eta bigarren saria Gregororen okerkeria; bosgarren mailan, lehenengo saria Jon maisua eta bigarren saria Takolo Sevillan; seigarren mailan, lehenengo saria Hitzik gabeko maitasuna eta bigarren saria Baztertutako liburuak; azkenik, helduen kategorian, lehenengo saria Ipuinen matxinada eta bigarren saria Hizkiak odol nabarian.



Eguzkierripa Rock eguneko kontzertu bat, duela bi urte. GOIENA

# Eguzkierripa Rock eguna musikaz blai aurten ere

Maiatzaren 27an bederatzigarren urtez egingo dute, Aramaion, bereziki gazteei zuzendutako egun osoko jaialdi hau; musika izango da egunaren ardatz nagusia; izan ere, herriko zein kanpoko hainbat taldek kontzertuak eskainiko dituzte Andra Marin

## Eneko Azurmendi ARAMAIO

Aramaion dagoeneko egonkortuta dagoen jaialdia da Eguzkierripa Rock. Izan ere, aurten bederatzigarren aldiz egingo dute Aramaioko Gazte Asanbladak antolatutako festa eguna. "Hasieran, gazte egun baten moduan sortu zen jaialdi hau. Aramaioko Gazte Eguna bezalako da. Ideia horrekin sortu zen, gazteendako egun bat izateko, aurrez ez zegoelako halakorik. Gainera, halako festa bat antolatzeke leku ona dela uste dugu", adierazi du Ainhoa Kortabarriak, Gazte Asanbladako kideak.

Egun osoko egitaraua izango da. 12:30ean poteoarekin hasiko dute festa, herriko tabernetan zehar, eta gero, Andra Mari ermitara igoko dira. Ondorengo ekintza guztiak bertan izango dira. Lehenengo urteetan ez bezala, orain, bazkalostea ere girotuta egongo da, antzerki batekin eta kontzertu akustiko batekin, eta ondoren, kontzertu nagusiak izango dira.

Aramaioarrak bakarrik ez, inguruko herrietatik ere hurbiltzen da jendea, Kortabarriaren esanetan: "Arrasatetik eta beste herri batzuetatik urtero etortzen da jendea eta aurten ere hala izatea espero dugu. Aramaion ez da askotan egoten halako festa girorik, eta egun hau horretarako da, ondo pasatzeko eta disfrutatzeke", azpimarratu du. Horrenbestez, interesatuei, bertaratzeke dei egin nahi izan die.

## Txartelak salgai

Bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko, Eki, Añai eta Anboto tabernetan eta herriko okindegian, 5 eurotan.

## Datorren urtean hamargarrena

10. urteurrena gertu du Eguzkierripa Rock egunak, eta hori "modu berezian" ospatu gurako luke Gazte Asanbladak. "Oraindik ez dugu ezer erabaki, baina zerbait desberdina egingo dugu", adierazi du Kortabarriak.

## Eguneko egitaraua

Maiatzaren 27an, zapatua, egingo dute Eguzkierripa Rock eguna. Hona hemen Gazte Asanbladak prestatutako egitaraua:

- **12:30** Poteoa herriko tabernetan zehar.
- **14:30** Bazkaria Andra Mari ermitan.
- **Bazkalostean**
  - Antzerkia: *Txabela Bragas* emanaldia.
  - Kontzertu akustikoa: Jusus Kraist.
- **20:00** Kontzertuak:
  - Aiaraldeko Soinu Sistema
  - Pecoza United.
  - Los WC Rock&Roll.
  - CRAP.
  - Red Iron Squad.

## Pilotaz gozatzeko arratsaldea bihar, zapatua, Aramaion

Arabako Herriarteko Pilota Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da bihar, zapatua, Aramaio pilotalekuan, 16:30ean.

Aramaio eta Agurain arituko dira nor baino nor gehiago, hiru kategoriatan: kadete mailan, jubenil mailan eta senior mailan. Bestalde, Julen Olaizolak eskuz banakako finala jokatu du bihar, Bilbon..

## Mus eta briska kanporaketak jokatu dira bihar

Mus eta briska txapelketak antolatu ditu Udalak, eta, auzo batzuetan egindako kanporaketen ostean, bihar jokatu dira lehen kanporaketak, Ibarra, Jubilatuen Elkartean, 17:00etan.

Izen-ematea elkartean, udal txean edota [itxasokultura@gorbeialdea.eus](mailto:itxasokultura@gorbeialdea.eus) helbidean egin ahal izango da. Txapelketen finalak ekainaren 3an izango dira.

## Administratzailea behar du Aramaioko Argindar Banatzaileak

Enpresak administratzaile lanak, kontabilitatea eta bezeroekin harremanak kudeatuko dituen pertsona kontratatu nahi du, ordezkapen bat egiteko. Ezinbestekoa izango da EGA izatea eta ekonomia arloko ikasketak edukitzea. Astelehenera bitartean egin ahal izango da eskaera. Informazio gehiago, Aramaioko Udalaren webgunean.

## Aitor Ugarte Euskal Herriko finalerako sailkatu da

Pasa den zapatuan Bertsoa Bizi Gazte Eguna egin zuten Legutio, eta, horren baitan, Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala ere jokatu zuten. Bigarren postua eskuratuta, Euskal Herriko Eskolarteko finalerako sailkatu zen Aitor Ugarte. Martin Abarrategi aramaioarrak ere hartu zuen parte Legutioko finalean.

## NIRE USTEZ

MANEX  
ARRIOLABENGOA

## Fedearen boterea

Mundua zazpi egunetan sortu zuen jainkoak, eta batzuek zazpigarren egunean bere obraz gozatzeko zelai berde baten etzan zela diote. Sineskorra dirudien arren, gaur egun, ausarta izan eta lan sakona egin behar da fedea bertan ezartzeko, edota ipuin horren barruan gordetzen diren bizi balioetan sinisteko.

Gezurra dirudi, baina Darwinen eboluzio teoriari erreparatu gero, gizakia gizaki bilakatu denetik, bizitzeko fedea ezinbesteko tresna dela esango nuke, denboraren poderioz eraldatzen eta egonkortzen jarraitu duena eta gaur egun ere garrantzi handikoa dena, ezertan sinisten ez duenarentzat ere.

Horregatik, zientzian, politikan, gizakian, maitasunean, naturan edota musikan bestek beste sinistea, gure aukera izango da, gurea baita fedea edonon jartzearen erabakia eta honek emango digun bizi balioen ardura.

Baina norbanakoaren eskubide aske bat izateko ezinbestekoa da bestearen ikuspuntu ezberdina errespetatzea eta ez inoiz gurea inposatzea.

## Musikaren Astea egingo dute, domekatik domekara

Maiatzaren 21ean hasi eta 28ra bitartean musikaz gozatzeko aukera egongo da Aramaion. Gitarra klasikoen kontzertua, Alaiak Kantuan kantu gira, Bobcats Beatbox taldearen kontzertua, musika ikasleen emanaldia, edota blues kontzertua daude egitarauan. Edozein adinetako jendeari zuzendutako ekintzak egingo dira.

# "Luzea eta gatazkatsua izan zen desanexioa"

**MANOLO CAINZOS** ERRETIRATUA ETA HISTORIAZALEA

90 urte betetzen dira Angiozar eta Ubera Elgeta izatetik Bergara izatera pasa zirela. Gaiaren gaineko hitzaldia egingo du Cainzosek, martitzenean, 19:00etan

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Elgetako historia jasoko duen argitalpen bat prestatzen ari da Manolo Cainzos, eta ordu asko eman ditu azkenaldian Udal Artxiboko dokumentu artean. Liluratuta dago egindako hainbat aurkikuntzarekin. Adibidez, 1927ko desanexioaren gaineko informazio ugari dago. Gaiari buruzko hitzaldia egingo du martitzenean, 19:00etan, udal-tereko osoko bilkuren aretoan. **Desanexioaren gaineko informazio berri ugari aurkitu duzu?**

Prozesu luzea eta gatazkatsua izan zen eta hainbat dokumentu agertu dira Udal Artxiboan. 90 urte dira bi auzo horiek Elgeta izatetik Bergara izatera pasa zirela, eta egoki iruditu zaigu egindako aurkikuntzak baliatuz gaiaren gaineko ekitaldi berezi bat antolatzea. Gainera, Elgetako Udalak, Angiozarrek eta Uberak Asentzioko festa berreskuratu gura dute. Mahai-inguru bat prestatu dugu eta hiru alkateak —bi auzo-alkateak dira— gonbidatu ditugu.

**Zergatik erabaki zuten bi auzo horiek Elgeta uztea?**

Hainbat arrazoi ageri dira dokumentuetan. Bergarak zerbitzu hobeak zituen, eta, industrializazioaren eraginez, lehen lanpostuak sortzen hasiak ziren. Harreman komertzialak Bergararekin zituzten eta komunikazioak egokiagoak ziren. Kontuan hartu Angiozar-Bergara errepidea 1890koa dela, eta Kanpanzarko bidea 1972koa. Angiozarrek ez zuen Asentziarako biderik izan 1972ra arte.

**Liskar handiak izan ziren?**

Prozesu gatazkatsua izan zela esango nuke. 1920an Eibarrera-ko errepidea proiektatu zuten. Inbertsio ikaragarria ekarri zuen elgetarrendako eta Angiozarrek eta Uberak ez zioten interesik ikusten. Hor hartu zuen indarra, nire ustez, desanexioaren ideiak. Negoziazio luzean



Manolo Cainzos, martitzenean, Elgetako udal-tereko aretoan. L.Z.

## "BIZTANLEEN ERDIA ETA BASERRIEN ERDIA BAINO GEHIAGO GALDU ZITUEN ELGETAK"

ostean, adostasun batera heldu ziren eta orduko erakundeek baimendu egin zuten desanexioa.

**Elgetarendako zer ekarri zuen?**

Galera handia. Biztanleen erdia eta baserri kopuruaren erdia baino gehiago galdu zituen. Desanexioaren aurretik 183 baserri zituen, eta, ostean, 83 gelditu zitzaizkion. Prozesu luzea eta korapilatsua izan zen; mugak adostu behar izan zituzten, esaterako. Elgetako Udalak, gainera, konpentsazio ekonomikoak eskatu zion Bergarakoari.

**Informazio hori guztia Elgetako Udal Artxiboan dago?**

Noski! Eta altxor handia da! Elgetako historiaren gaineko liburu bat prestatzen ari naiz eta dokumentazio bila sartu ginen artxibora Txema Barrutia eta biok. Gauza asko agertu dira. **Zein egoeratan dago Elgetako Udal Artxiboa?**

Katalogazio eta kontserbazio lan batzuk egin dira, baina asko dago egiteko. Barrutiak eta biok denbora bat daramagu horri guztiari buelta bat ematen, eta martitzeneko ekitaldian artxiboa ikusteko aukera ere emango dugu. Bisita gidatu moduko bat eskainiko dugu.

**Zeintzuk izan dira artxiboan egindako aurkikuntza esanguratsuenak?**

Erdi Aroan Elgeta zelakoa zen erakusten duen plano bat berreskuratu dugu, 1623koa. Martitzenean erakusteko asmoa dugu. Horrekin batera, Lugon (Galizia) lokalizatu dugu hiri-gutunaren konfirmazioa jasotzen duen balio handiko liburu bat. Elgetako hiri-gutunaren erreplika bat ere eskatu diogu Simancasko artxiboari. 1335eko hiri-gutuna da, lehenengoa!

**Martitzenean horiek guztiak ikusteko moduan izango gara?**

Baietz espero dut. Udal Artxibora egiteko dugu bisitarekin batera, gainera, azaldu nahi diogu jendeari pergamino baten berreskuratze lana zertan datzan. Udal Artxiboan badago zaharberitutako liburu bat, eta prozesua zein izan den azaldu nahi diogu jendeari.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

## LGBT eguna Herri Eskolan

Homofobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen eguaztena eta ekintza bereziak egin zituzten eskolan. Kolore biziekien apaindu zituzten eskolako leihoak, musikarekin girotu zituzten sarrera eta irteera orduak, eta hausnarketarako bideoak eta pelikulak ikusi zituzten ikasleek gelan. Talde argazkia atera zuten, eguerdian, eskola atarian.

## Astlehenean emango diote hasiera Azaleko Ipuinak tailerrari

Sarua Bikandik gidatuta, masajea eta ipuin kontaketa uzartzen dituzten 45 minutuko hiru saio izango dira liburutegian. 0-2 urte bitarteko umeendako eta haien arduradunendako ekintza da eta maiatzaren 22an, 29an eta ekainaren 5ean izango dira, 17:30ean. Ekintza martxan den bitartean, liburutegi zerbitzua itxita egongo da.

## 50 bat lagun espero dituzte Elgetako biharko bolo tiraldian

Gipuzkoako hiru txirilo txapelketako zortzigarren tiraldia 17:00etan hasiko da. Antolatzaileek aurreko jardunaldietako parte-hartzea aurreikusten dute. Jose Muñoz azkoitiarra doa sailkapenean lehenengo 35 txirilo jota. Elgetako taldean bi lagunek dihardute. Sebastian Arantza-balek 26 txirilo jo ditu eta Antonio Ibarluzeak, 25.

## Kanturako eta dantzarako egun aproposa, domeka, Elgetan

Eguerditik iluntzera arteko egitaraua gertatu dute eta parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek

**Goiena komunitatea**

Herrixa Dantzan / ELGETA

"Hirugarren urtez Kantu eta Dantza Eguna antolatu dugu Elgetan. Kantu-jira, bazkaria, bazkalosteko kantua eta Jainagaren eta Narbaizaren zuzeneko musikarekin dantzaldia izango ditugu.

Ohi bezala, Elgeta Kantuan taldeak etortzeko gonbidapena egin die Arrasateko, Aretxabaleko eta Eibarko bi kantu talderi. Aurreko urteetan bezala, espero dugu parte-hartze handiarekin eta giro onean ematea

eguna. 12:30ean egingo zaie harrerera kantuzaleei plazan; 13:00etan kantu-jira hasiko da; 14:30ean bazkaria egingo dugu kiroldegian eta kantuan bazkalostean. Herrixa Dantzan dantzaldia 18:00etan izango da, kiroldegian, Patxi Monterok gidatuta. Errepertorioa moldatu egin dugu. Joan den urtean bezala, dantzarako pieza asko kantuz laguntzekoak izango dira".

Aurretik, 10:00etan, Intxortako ibilbide tematikoa egiteko aukera izango da Puntaik Punta jaialdiko egitarauaren barruan.

# AUTOAK

## Berrikuntza, lau gurpiletan

Urte berriarekin, produktu berriak merkaturatu dituzte auto-etxeek. Berrikuntza ugari daude horietan; esangura handikoak, teknologian

Autoen merkaturatua berrikuntza prozesuan murgildurik dago etengabe; 2017an ere nobedade ugari aurkeztu dituzte. Azpimarratzekoak, teknologiaren eta segurtasunaren alorrak.

### UDALAITZ AUTOAK:

#### AUDI, VOLKSWAGEN, SEAT ETA SKODA ETXEETAKO AUTOAK

Udalaitz kontzesionarioak auto-etxe ezberdinekin dihardu elkarlanean; hor daude Audi, Volkswagen, Seat eta Skoda etxeak.

Audi markari dagokionez, Jon Galdosek –kontzesionarioko langilea– Q2 modeloan sakondu gura izan du. Aipaturikoa SUV motako autoa da, diseinu berri-tzailea dakarrena; kirol-automobilaren itxura ere bereganatu du, nolabait. Daroan motorrak ere kirol izaera horretara hurbiltzen laguntzen dio: 85 eta 140



Ford Custom.



Opel Crossland X SUV.



Renault Koleos.



Citroën Space Tourer.



Volkswagen Golf GTI.



Nissan Micra.



Innovation that excites

## STOCK-A KANPORA OPERAZIOA GAURSAN

20

NISSAN QASHQAI UNITATE

GEHIENEZKO

%20

KO DESKONTUA\*

APROBETXATU AUKERA ETA ERAMAN DAUZKAGUN 20 QASHQAI UNITATE MUGATUETAKO BAT %20RAINOKO DESKONTUAREKIN



**GAURSA ARABAUTO** Gamarrako Atea, 46 A-B 01013 - Vitoria-Gasteiz. Araba - Tel. 945 262 501

Kontsumo mistoa: 3,6 - 9,5 l/100 km. CO<sub>2</sub> isurpenak: 94 - 172 g/km.

\*Eskaintza baldiduna stock-ean dauzkagun ibilgailuentzat soilik, eta indarrean egongo da 2017/04/30a arte. Qashqai-ren eskaintzaren baldintzak kontsultatu (sustapen deskontua). Eman daitekeen gehienezko deskontua ibilgailu bakoitzaren gomendaturiko FAPAN Penintsulan eta Balearretan. 3D RCI Banque-ren bidez (kontratuaren baldintzen arabera) finantzatzen duten bezero partikularrentzat, enpresentzat eta autonomoentzat.



Audi Q2, kirol-automobil itxura ematen dion diseinu berritzailea.



Seat Ateca, baldintza meteorologiko eta lurzoru anitzera egokigai.



Skoda Kodiaq, bitarteko teknologiko aurreratuekin.

kW bitarteko potentzia duten TFSI eta TDI motorrak ditu bezeroak eskuragai.

Bestalde, Volkswagen Golf GTI-az mintzo da Galdos. Modeloak gidariari eskaintzen dion laguntzarako sistema azpimarratu du. Haren esanetan, horrek autoaren segurtasuna hobetzen du: egoera arriskutsuak menpeartzeko edo saihesteko lagungarri da aipaturiko sistema.

Seat etxeaz mintzo, Ateca modelo aipa daiteke. Autoak duen Off Road sistemari esker, baldintza meteorologiko eta lurzoru anitzetara egoki daiteke; Driving Experience botoia besterik ez da sakatu behar horretarako.

Azkenik, Skoda etxeko Kodiaq autoa ere eskuragai dago Udaltz kontzesionarioan. Aipagarriak, automobilak eskaintzen dituen bitarteko teknologikoak. Batetik, ibilgailuaren zenbait funtzio smartphonearen bidez kontrola daitezke. Bestalde, wifi konexioa ere badaroa Kodiaq modeloak. Horiez gain, Phonebox sistema azpimarratzea. Hala, mugikorra autoan karga daiteke; eta, seinalea ahula izanda ere, deiak egin edo jaso daitezke.

#### GAURSA: BERRIKUNTZA MICRA ETA XTRAIL MODELOEN BIDEZ

Nissan etxearen autoak saltzen ditu Gaursak. Asier Guardañoren, kontzesionario langilearen hitzetan, "etengabe berritzen diharduen marka da Nissan, betiere, bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaini guran". Bide horretan, Micra eta X-Trail modeloak azpimarratu ditu.

Nissan etxeak merkaturaturiko azken modelo da Micra baitaiaturikoa. Merkaturatze kanpainan dago murgildurik, eta, Guardañoren arabera, "jendeak oso gustuko du, batez ere, erabiltzaileari eskaintzen dizkion diseinu eta prestazioengatik". Europan diseinatu eta produziaturiko modeloak gama altuagoko autoen teknologia bitartekoak eskaintzen dizkio erabiltzaileari; hainbaten artean, 360 graduko kamera, Nissan Connect nabigatzailea eta Apple Car Play daroatza. Horrez gain, Nissan etxearen segurtasun bitarteko guztiak ditu.

Bestalde, X-Trail modeloaz mintzo da Guardañ. Nissanek D segmentuan duen kirol-izae-rako autoa da aipaturikoa. Guar-



Nissan Micra, auto-etxeak merkaturaturiko azken modelo.



Nissan X-Trail, bezeroaren bizitza erritmorra egokituz.

deñoren esanetan, bezeroaren bizitza erritmorra egokitzen den modelo da, eta, gainera, berorien eskakizun "zorrotzenez" erantzuteko gai ere bada; hor daude, segurtasunari, barnealdeari, teknologiari eta ibilgailuaren materialei loturiko eskakizunak. Bestetik, bere segmentuan, auto salduena izatea lortu du hainbat hilabetez, Guardañoren arabera, "bezeroek atzemaniko kalitate altuaren eraginez". Amaitzeko, esan beharreako, Nissan Xtrail autoak erabilgarri duen espazioa: 445 litroko maletgia du, eta, kasu batzuetan, zazpi bidaiarientzat toki eskaintzen du.

#### RENAULT AUTOBERRI: KOLEOS ETA SCENIC, SEGURTASUNA OINARRI

Renault eta Dacia etxearen autoak daude erosi Renalt Autoberrri kontzesionarioan. Eskaintzen artean, Koleos eta Scenic modeloak aipatu ditu Yolanda Bujandak, kontzesionario langileak.

Renault Koleosen kasuan, autoaren diseinua eta tekno-



10.000€-rainoko deskontua

www.mugarri.eus

Euskadiko kontzesionario espezializatua

Tel.: 943 790744 - 670 827186 • San Andres auzoa 6 - Arrasate



Golf GTI, gidariari laguntzarako sistema aurreratua eskainiz.



Renault Koleos, nortasun handiko aurrealdearekin.



Renault Scenic, espazio handiko barnealdea duen autoa.

logia daude azpimarragai. SUV estiloko auto horrek nortasun handiko aurrealdea, Full LED argiztapena, eserleku zabalak eta linea estilatuak daroatza. Bujandaren aburuz, "elegantzia handikoa eta ederra da" Renault Koleos modelo. Bestetik, aintzat hartu beharrekoa, teknologia ezaugarriak –eta horrek segurtasunari egiten dion ekarpena–. Besteak beste, autoak pantaila txiki bat daroa; eta horra bere mugikorra konektatuz dezaite gidariak. Hala, begirada errepidetik kentzeko

aukerek behera egiten dute; horrek eragina du segurtasunean.

Bestetik, Scenic autoaz mintzo da Bujanda. Kasu horretan, autoaren diseinua eta segurtasuna azpimarratu ditu. Haren esanetan, "estilo handiko" modelo da aipaturikoa. Hainbat artean, lurzoruaren eta karrozeriaren arteko distantzia handitzea eragiten duten 20 hazbeteko gurrupilak ditu. Horrez gain, autoaren barnealdeak eskaintzen duen espazio zabalerak ekarri du gogora Bujandak.

Horri dagokionez, Kadjar eta Megane modeloen arteko nahasketak gisa aurkeztu dute. Azkenik, Renault Scenic-en segurtasuna azpimarratu du Bujandak. Aipatzea, balorazio gorena –bost izar– erdietsi duela EuroNCAP ebaluazio programan. Besteak beste, esku libreko aparkatze aukera, abiadura erregulatzeko sistema eta gidariaren nekea atzemateko sistema daroa Renault Scenicek. Horrenbestez, Bujandaren hitzetan, "auto seguruenen artea da" aipaturikoa.

#### CITROËN CHAPIME: BERRITASUNEKIN DATOZ SPACE TOURER ETA C3 BERRIA

Citroën etxeko autoekin jarduten du Chapime kontzesionarioak. Mikel Loiti gerentearen esanetan, "teknologia eta diseinu aurrerakoiak dituen marka" da Citroën. "Hortik dator kio *creative technology* leloa", gaineratu du. Salgai dituen autoen artean, arreta berezia jarri du Citroën C3 berri eta Space Tourer modeloetan. Markak merkaturaturiko azken bi modelook dira aipaturikoak.

Citroën C3-a berritasun ugariarekin merkaturatu dute. Loitiaren aburuz, "bezero mota askora egokitzen den modelo da, 36 kolore konbinatzeko aukerarekin". Segurtasunari dagokionez, dienez, oso ekipaturik dagoen modelo da. Oro har, autoaren diseinua, pertsonalizatzeko eskaintzen dituen aukerak, segurtasuna eta konektibitatea –besteak beste, *connected cam* sistema– azpimarratu ditu.

Bestetik, Space Tourer modelo dago Citroënen eskaintzen



OPEL CROSSLAND X BERRIA. ZATOZ IKUSTERA!



San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

DEBAGOIENEN CITROËN  
ZERBITZU OFIZIALAK:

Lagunekin edonora.

TALLERES CHAPIME S.C.L.  
San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

## CITROËN SPACETOURER BUSINESS

THE WELCOME CAR

CITROËN ADVANCED COMFORT-en abarretak ditu 9 PLAZA / ALBOKO ATEAK ESKU LIBREKO IREKITZEAREKIN 3 LUZERA AUKERAN / 1,90 M GARAI

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN prefere TOTAL

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM)

EMISIOA CO<sub>2</sub> (G/KM):

CITROËN SPACETOURER: 5,1-6,0 / 133-159



citroen.es

AUTOMOVILES ION  
Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA



Citröen C3, berritasun ugarirekin datorren modeloa.



Citröen Space Tourer, hiru tamaina ezberdin eskuragai.



Opel Crossland X SUV, sektore askorentzat erabilgarri.

artean. Luzerari dagokionez, hiru tamaina ezberdin eskaintzen dizkio bezeroari: XS (4,60 m), M (4,95 m) eta XL (5,30 m). Besteak beste, Loitiren esanetan, "modelo aproposa da aisialdirako". Horiez gain, aipatzea, errepideko abiadura mugak atzematzen dituen sistema duela, hazitakoaren gainean daroan kamerari esker. Horren bidez, abiadura mugatzeko aukera eskaintzen zaio gidariari.

Esan bezala, Citroën etxeak merkaturatu dituen azken bi modeloak dira aipaturikoak; eta, salmentei begira, aurreikuspen baikorrak dituzte. "Salmenta handiko autoak izango direla aurreikusten dugu", azaldu du Loitik.

#### FORD MUGARRI ARRASATE FORD CUSTOM: AISIALDIRAKO EKIPATZEKO AUKERA

Lehiakideen jarduna ikusita, aisialdirako ekipa daitezkeen furgonetetan sakontzen hasia da Ford Mugarri. "Furgonetak aisialdirako ekipatzeko aukera eskaintzen diogu bezeroari", dio Rafa Etxabek, kontzesionarioko arduradunak.

Alor horretan, Ford Custom furgonetarekin jarduten dute, gehienbat; dena den, aisialdirako ez ezik, erabilera partikular eta komertzialerako ere eskaintzen dute aipaturiko modeloa.

Etxaberen esanetan, merkaturiko furgoneta askok ez bezala, Ford Customek segurtasun maila gorena erdietsi du EuroNCAP ebaluazio programan. "Oso arraroa izan ohi da furgoneta batek segurtasun maila gorena izatea. Honek, baina, EuroNCAPek eskaintzen dituen bost izarrak erdietsi ditu", dio.

Bestetik, teknologia aldetik ere auto osoa da. Besteak beste, gidatze kontrol egokituak daroa, talkak saihesteko sistemarekin. Alegia, gehienez harrrapatu nahi duen abiadura aukera dezake gidariak, eta autoa ez du muga gaindituko. Horrez gain, aurreko autoarekin segurtasun neurria mantentzen du; trafikoa motelduz gero, autoak berak abiadura moteltzen du, adibidez.

Horren gain, aipatzekoa, autoaren Ecoblue motorra. Horrela, autoak potentzia handiagoa du; eta, horrez gain, CO2 eta nitrogeno oxidoak murrizteaz



Ford Custom, aisialdirako egokitzeoko aukerarekin.

gain, diesel gutxiago erabiltzen du.

Gainera, erabilera kostu murriztagoa dakarkio erabiltzaileari. "Marka fidagarria da; eta 7 urteko garantia eskaintzen du kasu askotan", dio Etxabek.

#### OPEL TAKOLO AUTOAK: CROSSLAND X, ESPAZIOA ETA SEGURTASUNA ESKURA

Opel etxearen autoak dituzte eskuragai Takolo Autoak kontzesionarioan. Gogoratzea, azken lau urteetan, Opel nagusi izan

dela Debagoiengan; eta, horri heltzeko jardunean, auto berria aurkeztu du: Crossland X SUV.

Meriva autoa ordezkatzera dator aipaturiko modeloa, eta Ibon Rubio, Takolo Autoakeko langilea, pozik da emaitzarekin: "Sekulako autoa da; orokorrean, kritika onak ari da jasotzen". Besteak beste, segurtasuna eta espazio zabalera azpimarratu ditu Rubiok.

Segmentuan lehiakideek eskaintzen dituzten autoekin alderatuz, espazio zabalena duena da Crossland X SUV modeloa.

Bestalde, aipatzea, espazio handia duela ardatzen artean; eta horrek egonkortasuna ematen dio autoari.

Horrez gain, auto segurua da, Rubioren hitzetan. Horretan, besteak beste, eragina du Opel Eye sistemak. Autoak, errepideko seinale zein trabak atzematzen dituen kamera daroa aurrealdean; besteak beste, ibilbidean ezusteko traba aurkituz gero, horri erantzuten laguntzen dio gidariari. "Adibidez, bidean, ezustean, baloi bat aurkituz gero, autoa automatikoki balaztatzen da", azaldu du Rubiok.

Gainera, itxura berritzailea dakar modeloak; izan ere, bi tonu nahasteko aukera du. "Lehiakideen autoekin alderatuta, auto desberdina dela esan daiteke", dio.

Amaitzeko, aipatzea, dituen ezaugarriak aintzat harturik, eskaintza ez dutela herritar sektore batera mugatuko. "Auto osoa da; sektore askorentzat izan daiteke baliagarri. Batetik, egokia da jende nagusiarentzako; batez ere, altueragatik. Horrez gain, haurrak dituzten familientzat ere bada, espazio zabalak baitu", esan du Rubiok.



- Karabanen, autokarabanen, Camperren eta furgoneten **konponketa** eta edozelako **osagarrien muntaia**.
- Karabanen, autokarabanen eta Camperren **salerosketa**.
- Bigarren eskuko karabanetan aukera zabala.
- **Across** markako karabana, autokarabana eta **Camper berriak**.
- **Globetrotter** markaren banatzaileak
- **Trukean** zure karabana edo autokarabana zaharra hartzen dugu ordainketaren zati bezala.
- **Desguaze**rako diren karabanak batzea



Okamika industrialdea  
1. pab. 10. nabea  
48289 Gizaburuaga,  
**BIZKAIA**  
(Lekeitiotik 10 minutura)

696 50 93 73  
www.caravanasmikel.eus  
info@caravanasmikel.eus





RENAULT  
PRO+

# Renault Gama Ibilgailu Komertzialak

Ez utzi pasatzen UTBrik gabeko hilabetea



## UTB\* %0

\*10.000 € finantzatuko dira gehienez, 48 hilabeterako Mailegu edo Leasing bidez finantzatuz gero. Gainerakoa eskura ordaindu behar da.

**Renault PRO+**: European, 19 urte lider salmentetan\*\*.

Ibilgailu komertzialen gama: kontsumo mistoa (l/100km), 4,3tik 10,8ra bitarte. CO<sub>2</sub> isuria (g/km) 112tik 249ra bitarte. \*RCI Banque SÀren eskaintza Penintsularako, Balearretarako eta Kanarietarako. Renault VU ibilgailu bat erosi eta BOX2arekin finantzatuz gero, partikularrei, autonomoel eta distantzia laburreko flotak dituztenei aplikatu dakiekeen mailegu eta leasing sakurtsala Espainian. Gehienez 10.000€ finantzatuko dira. Gainerako kopurua eskura ordainduko da. RECSA-k diruz lagundutako interesak. Iraunkortasun-kontratua: 24 hilabete gutxienez. Eskaintzak 17/05/01etik 17/05/31ra arte iraungo du. Bateriaezina da beste finantza-jarduera batzuekin. \*\*Iturria: Ibilgailuen Europako Merkaturia (EU28+Suitza+Norvegia+Islandia), Ibilgailu Komertzialen (Pick Up) ibilgailuak izan ezik) atalari dagozkien estatistikak, 1998tik 2016ra bitartekoak; salmenta-prezioari kontuan harturik erabiltako autoa ematen dela.

RENAULT-ek gomendatzen du

[renault.es](http://renault.es)

**AUTOBERRI**

San Andres Auzoa, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE

[www.autoberri.com](http://www.autoberri.com)



Mikel Karabanak-eko produktuak.

banatzaileak dira. Eta Globetrotter markaren banatzailea ere bada Bizkaiko enpresa hori. Horrez guztiaz gainera, desegiterra bideratuta dauden karabanak batzeaz ere arduratzen da. Zerbitzu horiek guztiak eskaintzen ditu Mikel Karabanak-ek. Gainera, bigarren eskuko karabanen eskaintza oso zabala du eta, salerosketan, trukean, bezeroen karabana edo autokarabana zaharra hartzen du ordainketaren zati bezala.

## Produktu eta zerbitzu asko eskaintzen ditu Mikel Karabanak-ek

Karabanen, autokarabanen eta kanperren salerosketara bideratuta dago Bizkaiko Gizaburuagan dagoen Mikel Karabanak enpresa. Hala ere, horien salerosketa ez da eskaintzen duen zerbitzu bakarria.

### Askotariko zerbitzuak

Karabanen, autokarabanen, kanper eta furgoneten konponketaz arduratzen da. Baita edozelako osagarrien muntaiaz ere. Horrez gain, Across markako karabana, autokarabana eta kanper berrien

### Harremanetan jartzeko

- **Helbidea:** Okamika industrialdea 1. pabiloia 10. nabea. 48289 Gizaburuaga, Bizkaia (Lekeitiotik 10 minutura)
- **Telefonoa:** 696 50 93 73
- **Webgunea:** [www.caravanasmikel.eus](http://www.caravanasmikel.eus)
- **Helbide elektronikoa:** [info@caravanasmikel.eus](mailto:info@caravanasmikel.eus)

## Zurich Aseguruak: hainbat bereizgarri bezeroen eskura

Zurich Aseguruak esperientzia handia daukan enpresa da. Frankezia orain dela 50 urte jarri zuen martxan bulegoaren zuzendari Mari Mar Urrutiaren aitak: "Ogibidea aitarengandik ikasi nuen; eta orain, nire semeak emango dio jarraipena", aitortu du Urrutiak.



Mari Mar Urrutia, Oñatiko bulegoan.

### Bereizgarriak

Zurichen Flexifrankezia deritzon aseguru eskaintzen dute enpresa horretan. "Nik dakidala, merkatuan dagoen bakarra da. Parterik ematen ez bada, urtero ordaindu beharreko kopurua jaisten dugu", dio Urrutiak. Konfiantza da beste bereizgarri bat; aurrez aurreko tratua asko baliotzatzen dute: "Jendea ez da ohartzen zein garrantzitsua den norbaiten laguntza izatea. Nik neure mugikorraren zenbakia

ematen diet bezero guztiei, beharra baldin badute laguntzeko", azpimarratu du. Horrez gainera, Zurich Aseguruak-ek kalitatea ere bermatzen du: "Gure aseguru-etxea ezaguna da dituen zerbitzuen kalitateagatik; beti mantendu ditu, gainera, prezioak", azpimarratu du Mari Mar Urrutiak.



Zure ibilgailu-alokairua GASTEIZEN

Gamarrako Atea, 46



618 88 12 42 [rentacar@gourso.com](mailto:rentacar@gourso.com) [www.goursarentacar.com](http://www.goursarentacar.com)



Gaurisa Rent a Car-en auto, furgoneta eta ibilgailu elektrikoak.

# Ibilgailuak errentan ematen ditu Gaurisa Rent a Car-ek

Enpresa horrek askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu eta guzti-guztiak bezeroarekiko malgutasuna, bizkortasuna eta berotasuna garantizatzen dute; horrela, bezeroek dituzten behar guztiei erantzuna ematen diete

Ibilgailuak errentan ematen ditu Gaurisa Rent a Car-ek. Hain zuzen, enpresa hori aditua da bai partikularren, bai enpresen mugikortasun beharrak asetzen; eta, betiere, eskaintzen duen zerbitzua oso pertsonalizatua da. Duela 35 urte jarri zen martxan, eta profesionaltasuna eta konpainia handi baten egitura eskaintzen ditu; eta, horiekin batera, malgutasuna, bizkortasuna eta berotasuna. Gaurisa Rent a Car-eko arduradun Noemi Peredak dioenez: "Tokiko mailan, Euskal Herrian, autoak, furgonetak eta ibilgailu elektrikoak alokatzen dituen enpresa liderra gara. Hainbat bulego ditugu: Bilbon, Donostian, Gasteizen, Eibarren, Irunen, Iurretan, Biarritzen eta Hendaian, zehazki. Gasteizko bulegoa zabaldu berria da, Gamarrako Ateko 46an, Renault eta Nissan Gaurisa instalazioetan".

## Zerbitzu pertsonalizatua

Enpresei eta partikularrei eskaintzen zaien zerbitzua pertsonalizatua dela azpimarratu du Peredak: "Gure bezeroek ordu-beterako, hilabeterako edota epe

luzeagorako alokairua egin dezakete. Modu horretan, bezeroek izan ditzaketen behar guztiei erantzuten diegu, hala nola etxe-aldaketa, oporraldiak, negozio bidaiak, eta abar asebetez". Enpresei dagokienez, bakoitzaren beharrei egokitzten den zerbitzua eskaintzen dute. Adibidez, beharra egonez gero, alokatu duen pertsonaren bizilekuan ibilgailuaren entrega zein biltzea egiten dute. Horrez gain, Land & Drive zerbitzua ere eskaintzen dute. Euskal Herriko edozein aireportutara gerturatzen dira –Forondakoa barne–. Nahikoa da bezeroak zehaztea zein den hegaldia, eta Gaurisa Rent a Car bertan izango da bezeroak alokatu duen ibilgailuarekin; bezeroek ibilgailu bat alokatzeko itxaron behar dituzten ilarak saihesten dituzte.

## Harremanetan jartzeko

Gaurisa Rent a Car enpresarekin harremanetan jartzeko edo informazio zabalagoa eskuratzeko, [gaursarentacar.com](http://gaursarentacar.com) webgunea bisitatu, 618 88 12 42 telefono zenbakira deitu edota bulegoetara jo daiteke.

## Economy ordezkoko piezak: 5 urtetik aurrerako ibilgailuendako kalitatea

Volkswagen jatorrizko ordezkoko piezak\*



Das Auto.



Urteen poderioz, zure ibilgailuaren jatorrizko piezek higadura sufritzen dute; horregatik, **Economy gama** sortu dugu: Volkswagen kalitatea eskaintzen dizuten ordezkoko piezak.

**5 urtetik aurrerako ibilgailuentzako** soluzio bikaina eskaintzen dizugu; gainera, prezio ekonomikoagoetan oinarrituta. Nola lortu dugu hau? Erreferentzia berberaren diseinuaren aldatzarekin eta barianteen murriztearekin.

Gainera, beste abantaila osagarri batzuk eskaintzen ditu gama honek; esaterako, ordezkoko piezen diseinuan erabilitako **goi mailako teknologia**.

Economy gama osatzen duten ordezkoko piezak zeintzuk diren azalduko dizugu; aurrerantzean, baina, gama honetan pieza gehiago egongo dira.

### Economy freno-pastillak

Iraunkortasun handia. Egiaztatutako iraupen luzea. Frenaketa ona.



### Economy bateriak

Mantentze-lanik ez. Balio-bizitza luzea.



### Economy freno-diskoak

Frenaketa-potentzia ezin hobea. Balio-bizitza luzea.



### Economy motelgailuak

Segurtasun osoa. Portaera egokia martxan.



### Economy homozinetika-juntura

Iraunkortasun eta fidagarritasun handia. Zure ibilgailuaren ezaugarriak kontutan hartuta diseinatutako pieza.



### Economy isilgailuak

Korrosioarekiko erresistentea. Enkaje perfektua. Balio-bizitza: 8-10 urte artean.



### Economy bujia

Fidagarritasun handia. Kontsumo-efizientzia. Balio-bizitza luzea.




### Economy eskuilak

Garbiketa ezin hobea. Zarata txikia. Erresistentzia handia.



### Economy alternadorea

Zure ibilgailuak uneoro sortzen dituen kontsumo elektrikoak jasaten ditu. Zure ibilgailuari egokitutako karga ezaugarriak.



# Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Volkswagen Service

Zure Volkswagenak kalitatezko zainketa behar du; eta zuk, preziorik onenak.

**Economy ordezkoko piezak: Volkswagen kalitatea prezio paregabe.**

# Bigarren eskuko autoen eskaintza oparoa eskura

Debagoieneko auto kontzesionarioek bigarren eskuko autoen eskaintza zabala daukate. Ford Mugarriko salmenta arduradun Rafa Etxabek adierazi du erdi mailakoak eta txikiak diren autoak eskatzen dituela, gehienbat, bezeroak; horrez gain, nabarmendu du Internetek kalte handia eragin duela autoen salmenta mota horretan, partikularren arteko salmenta geroz eta gehiago gertatzen ari delako



Bigarren eskuko auto bat. UDALAITZ

Bigarren eskuko autoen eskaria handia da gaur egun eta bailarako auto kontzesionarioek badaukate eskari horri aurre egiteko eskaintza. Ford Mugarriko salmenta arduradun Rafa Etxaberen arabera, hiru maila bereizten dira bigarren eskuko autoen baitan: ia berriak direnak –urtebete eta lau urte bitartekoak–; lau eta zortzi urte bitartekoak; eta, azkenik, bederatzi eta hamabost urte bitartekoak.

Kontuan hartu behar da azken multzo horretako auto asko krisiaren aurretik erositakoak direla, baina oraindik egoera onean eta erabilgarri daudela. "1998an hasi eta 2005 ingurura arte mozkorraldi handi bat izan zen eta mundu guztiak erraz erosten zuen, diruari begiratu gabe. Gero, oster, krisia iritsi zen eta horietako asko saldu egin ziren", adierazi du Etxabek. Eta nabarmendu nahi izan du, nahiz eta 15 urte izan, auto asko egoera onean daudela, gutxi erabilia: "Profil horretako autoak eskatzen dira gehien, merkeak direlako eta egoera onean daudelako oraindik. Hala ere, produktu hori gutxi dago". Izan

ere, jende gaztearentzat oso praktikoa dela nabarmendu du, "unibertsitatera ikastera doanarentzat, zein lanera doanarentzat".

## Erdi mailakoak eta txikiak

Etxaberen esanetan, bezeroak gehien eskatzen duen auto mota erdi mailakoa eta txikia da. "Bigarren eskukoak diren gama altuko autoak gutxi saltzen dira, normalean. Horrez gain, lur orotako ibilgailuen salmentak ere jaitsi egin dira".

Hain zuzen, bigarren eskuko autoak gehiago saltzen dira auto berriak baino. "Guk berriak gehiago saltzen ditugu, baina, orokorrean, alderantziz da".

## Internetek, kalte

Gaur egun, partikular askok Internet bitartez saltzen dute autoa, eta horrek auto kontzesionarioei kalte egiten die. "Jabeek eurek saltzen dute autoa, Internet bidez, eta partikularren artean egiten da aldaketa. Horrek pobretu egiten du merkata, ez du aberastasunik sortzen eta gu bezalako enpresek kalteak jasaten dituzte, baita beste arlo batzuek ere", azaldu du Etxabek.

## Bigarren eskuko autoen eskaintza

### UDALAITZ

#### Audi A3 Sportback 1,6 TDI.

2016 / 23.500 km / 20.900 euro.

#### Volkswagen Golf 1,6 TDI.

2015 / 28.500 km / 17.000 euro

#### Seat Leon 1,2 TSI.

2016 / 11.000 km / 13.900 euro

#### Audi A4 2,0 TDI.

2016 / 15.500 km / 26.500 euro.

#### Volkswagen Polo 1,2 TSI.

2016 / 13.000 km / 12.400 euro.

### GAURSA

#### Nissan Qashqai 1.5DCI Acenta.

2016 / 7024 km / 17.900 euro.

#### R. Clio Limited Energy TCE.

2016 / 29.202 km / 10.950 euro

#### R. Mégane Zen Energy DCI.

2016 / 13.206 km / 16.800 euro

#### Nissan Juke 1.5 DCI Acenta.

2014 / 42.215 km / 12.800 euro.

#### R. Scénic S. Energy DCI.

2015 / 72.890 km / 12.900 euro.

### RENAULT AUTOBERRI

#### Renault Zoe Intense

2013 / 26.000 km / 13.000 euro.

#### Renault Twizy Urban 45 CV.

2012 / 100 km / 3.000 euro

#### Renault Clio Limited TCE 90 CV.

2017 / 0 km / 13.500 euro

#### Dacia Sandero Stepway TCE.

2017 / 2.000 km / 10.000 euro.

#### Renault Clio Zen TCE.

2016 / 6.000 km / 13.000 euro.

### Citroën CHAPIME

#### C3 Puretech FEEL 82 CV.

2016 / 2.200 km / 14.500 euro.

#### C3 Picasso COLLECTION HDi 110.

2015 / 52.878 km / 11.950 euro

#### C4 Picasso Blue120 SEDUCTION.

2015 / 25.250 km / 16.700 euro

#### Grand C4 Picasso eHdi 115 INT.

2015 / 65.016 km / 17.800 euro.

#### Berlingo Blue100 FEEL.

2016 / 8.546 km / 14.700 euro.

### FORD MUGARRI

#### BMW 330 CDI Coupe .

2011 / 130.000 km / 20.900 euro.

#### Audi A3 1,6 TDI 105 CV.

2011 / 150.000 km / 9.900 euro

#### Toyota Land Cruiser 4x4 2,7 D4D.

2017 / 4.000 km / 36.800 euro

#### Opel Astra 1,7 DTI 100 CV.

2008 / 90.000 km / 6.700 euro.

#### Ford Focus 1,6 TDCI 115 CV.

2013 / 120.000 km / 9.500 euro.

### OPEL TAKOLO AUTOAK

#### Toyota RAV4 2.2D-4D.

2013 / 89.000 km / 17.900 euro.

#### Seat Exeo TDI ST.

2012 / 136.000 km / 12.900 euro

#### Opel Insignia CDTI ST.

2015 / 40.000 km / 17.800 euro

#### Opel Astra 1700 ST, Business.

2011 / 70.000 km / 10.300 euro.

#### BMW 320 D, Touring, 184 CV.

2012 / 105.000 km / 19.900 euro.

ESKAINITZA BALIAGARRIA, AKATS TIPOGRAFIKORIK EZ BALDIN BADAGO

## ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, % 10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak tailerretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Meliá...) eta paradoreetan
- Deskontuak bidaietan ( opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



**ZURICH**  
M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea  
20.560 OÑATI  
Tel./Faxa: 943 78 30 09  
Polts.: 620 77 66 20

# 'Los Garay' izena du Azpiazuren azken lanak


Lantegiak Oñatin izan duen pisuaz eta herriarekin izan duen harremanaz ari da Jose Antonio Azpiazu historialaria azken liburuan. Joan den egubakoitzean aurkeztu zuten, osoko bilkuren aretoan. Liburua eskuragarri dago Txokolateixan, 10 eurotan

## Miren Arregi OÑATI

Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak azken liburua aurkeztu du. Hijos de Juan de Garay lantegiak herrian izan duen pisua eta garrantzia azaltzen da *Los Garay, una saga industrial en Oñati durante 150 años* izenburua daraman liburuan. Izan ere, badira 150 urte garaytarrek lehenengo lantegia ireki zutenetik. Hasiara baten, pospoloak egiten hasi ziren. "Garay oñatiko lantegia da. Kooperatibak-eta sortu baino askoz lehenagokoa. Gero kooperatibetara lanera joan zen jende asko eta asko Garayn formatutakoa zen", dio Azpiazuk, lantegiaren antzinakotasuna eta garrantzia nabarmenduz. Duela 150 urte, lehenengo pospolo lantegia sortu zenean, Oñatiko egoera ez zen batere erraza. Krisi garaiak ziren, orduko industria, ulte-gintza edo saskigintza, esaterako, galtzear baitzeuden. "Testuiguru hartan, Garay familiak jakin izan zuen etorkizuna izango zuen sektore bat martxan ipintzen", gaineratu du. "Eta ez zen gizonezkoen lantegia soilik. Emakume asko ibili zen lanean orduko pospolo lantegian", erantsi du.

## Garai berrietara egokitu

Bost belaunaldi igaro dira ordutik eta garaytarrek jakin izan dute beti egoera berrietara egokitzen. Gerra karlistak gainditu zituzten lehenik, Espainiako gerra ondoren. Pospolo lantegia Espainiako Estatuak monopolizatu egin zuen eta diru iturri hori ere galdu zen, "baina egoera zailtan ere jakin izan dute aurrera egiten". Pospoloak egiten hasi ziren haiek aterkiak egitera pasatu ziren: "Etxeetan lan handia egiten zen orduan, bereziki emakumeek, eurek eskuak abilagoak izaten baitituzte. Gero hasi ziren automoziorako hodiak egiten: "Talgoaren



Jose Antonio Azpiazu, Goienako platoon, *Los Garay* liburuarekin. ANDONI BODES

## GARAI BATEN 700 LANGILETIK GORA IZAN ZITUEN GARAY LANTEGIAK, EGUN, 300 INGURU DITU

lehen estruktura oñatin egin zen eta duela 15 bat urtera arte hemen egon zen, gainera. Azkenean, bota egin zuten". Garai berrietara egokitze horretan, garaytarrek beti izan dute bultzatzaile bat, dio Azpiazuk. "Cornelio izan zen lehena; ondoren, Juan etorri zen, haren semea. Beste Juan batek, hil berri den Inazioren aitak, bultzada ederra eman zion. Jakin zuten nonahi eta bertako diruarekin aurrera egiten; beste batzuk Ameriketako diruarekin ibili dira; hauek, hemengoarekin".

## Garai berrietara egokitu

Garay lantegiko ugazaben eskaerari erantzunez osatu du liburua, baina familiak dokumentu gutxi zituenez gordeta -gehienak gerra garaian galdu ziren-, artxibotan lan handia egin behar izan du Azpiazuk: "Oñatiarrek eurek ere badute memoria historikoa eta informazio asko eta asko herritarrengandik jaso dut. Alderdi teknikoak ugazabengandik jaso dut".

## Liburuan denetik

Familiako kontuak kontatzen dira, kulturarekin lotutakoak ere bai: "Esaterako, musikalaria oso famatu bat izan zen familian, XIX. mendean, Vicente Arregi Garay". Herriko kontuak ere kontatzen dira, azken finean, lantegiaren eta herriaren arteko lotura handia.

## Sietevientosko bidegurutzea zabaltzea eskatu du EAJK

Jeltzaleek adierazi dute "inposatutako neurri horrek zirkulazio-kaosa" sortu duela, konpondu egin behar dela

## M.A OÑATI

Oñatiko EAJren udal taldeak Txaketua bidegurutzea berehala zabaltzeko eskatu dio Udal Gobernuari. Jeltzaleek hau adierazi dute: "EH Bilduren gobernuak inposatutako neurri horrek ikaragarritzko zirkulazio-kaosa sortu du eta lehenbailehen konpondu behar da". EAJko kideek, gainera, "babesa eta laguntza" eskaini diete "EH Bilduren gobernuak itxitako kaleetan kalte-tuta izan diren merkatariari".

Jeltzaleek, bestetik, salatu dute joan den astean Udal Gobernuak

Sietevientosko bidegurutzea astean zehar zabalik mantentzearen erabakiaren berri egunkarien bitartez ezagutu dutela. Gainera, EAJk exijitu du Udal Gobernuak sistema berria zein izango den erabaki eta beharrezko neurriak hartu bitartean, "Txaketua berehala irekitzea eta trafikoa goren dagoen orduetan udaltzaingoaren laguntzarekin bideratzeko". Horrez gain, jeltzaleek trafikoa asteburuetan soilik ixtea proposatu dute, zapatuko 13:00etatik igande gauera arte, hain zuzen ere.



MIREN ARREGI

## Bigarren faseko lanak hasi dira

Astehenean hasi dira Zubillagako eraberritze proiektuaren 2. faseari dagozkion lanak. Hain justu ere, Zubillagako 45. eta 54. zenbakien arteko urbanizazioa konpontzea aurreikusten da fase honetan. Besteak beste, oinezkoen bideak berrituko dira, berdeguneak txukunduko dira eta auzoko errepele nagusiaren ondoko espaloiko baldosak aldatuko dira.

## Urgaintxorekin batera ospatuko dute bihar Urgain Eguna

Bihar ospatuko du Urgain ikasketxeak Urgain Eguna. 11:30erako finkatu dute lehen hitzordua, eta, hala, Urgaintxok eta Senzala Batukadak jaiari hasiera emango diote. Herriko kaleetan zehar egingo duten kalejiraren ostean, 14:30ean bazkaria egingo dute, DJak lagunduta, eta ez dira faltako antzerkia, puzgarriak, kirol festa eta dantzaldia.

## Eguaztenean hasiko dira ospakizunetan Txantxiku Ikastolan

Ikastolara Oinez ekimenarekin hasiko dituzte ospakizunak Txantxiku Ikastolan, eguaztenean. Egubakoitzean izango da ikasleen eguna, eta jolasak, kirol probak, bazkaria, puzgarriak, eta abar antolatuta dituzte. Zapatuan, berriz, tailerrak, puzgarriak, luntxa eta Pirritx eta Porrotxen emanaldiak egongo dira. 16:30ean eta 18:30ean izango dira horiek.



German Ormazabal, Ainhoa Garmendia, Garikoitz Mendizabal, Andoni Egaña eta Pello Ramirez. ARTXIPIELAGOA

## Domekan, 'Artxipielagoa' ikuskizuna Santa Anan

Kilometroak 2017ko lantaldeak hainbat ekintza antolatu ditu oraingo asteburura begira. Bihar, magia tailerra eta ikuskizuna egingo dira. Etzi, mendi irteera egingo da Aloñara. Hori gutxi ez eta 'Artxipielagoa' ikuskizuna ere egingo da Santa Ana antzokian

### Miren Arregi OÑATI

Andoni Egaña bertsolaria, Belen Ibarrola artista, Ainhoa Garmendia sopranoa eta Pello Ramirez, Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal musikaria Artxipielagoa ikuskizunarekin etorriko dira Oñatira domekan, Kilometroak 2017ko lantaldeak antolatuta. 19:00retan izango da emanaldia, Santa Ana antzokian, eta sarrerak eskuragarri daude Txokolateixan eta *kilometroak.eus*-en, 12 eurotan.

Ikuskizunak musika eta bertsolaritza, narrazioa, abestia eta bideo-proiektzioak uztartzen ditu;

osagai horiek lirateke artxipielagoa osatzen duten irlak.

Ordu eta erdiko emanaldian, Egaña bertsolari zarauztarra izango da esatari lanetan ibiliko dena eta hizketaldian zehar, irlen eta artxipielagoen inguruko gogoetak plazaratuko ditu, baita musikaren eta kulturaren inguruko hainbat hausnarketa eskaini ere.

### Magia eta Mendimetroak

Kilometroak 2017ren testuinguruan beste bi ekintza izango dira asteburuan. Batetik, magia tailerra egingo da bihar, 10:30ean,

gaztelekuan. Tailerrean ikasitakoak praktikan nola ipintzen diren ikusteko aukera izango dute 17:30ean gaztelekuan bertan egingo den Eriz Magoaren ikuskizunean.

Mendizaletasuna sustatzeko ekimena egingo da domekan. Bailaraka, Gipuzkoako Ikastola guztiek mendi martxak egingo dituzte. Oñatikoa Aloñara izango da. 09:00etan Foruen plazan elkartu eta autoetan igoko dira Arantzazura. Handik egingo dute Gorgomendirako joan-etorria. Tontor guztietan argazki erraldoiak egingo dituzte.

### Txirrinka elkarteak antolatuta irteera Gasteizera

Maiatzaren 27an, zapatua, Gasteizera irteera egingo da Txirrinka elkarteak antolatuta. Gasteizko eraztun berdea egingo dute bizikletaz. Guztira 30 kilometroko ibilbidea egingo dute –Salburuan hasi eta bukatuko da–, eta tartean hainbat geldialdi egingo dituzte; horietako bat, esaterako, bazkaltzeko –bazkaria norberak eraman beharko du etxetik–. Txirrinkak furgoneta bat alokatuko du bizikletak Gasteizera eramateko. Bizikleta biran parte hartu gura duenak maiatzaren 21era arte, domeka, du izena emateko aukera. Hain zuzen ere, [txirrinka@gmail.com](mailto:txirrinka@gmail.com) helbidera idatzita egin ahalko da hori.

### Mutrikuren kontrako futbol partidurako autobusa

Aloña Mendik gauzak zail ditu Ohorezko Erregional Mailari eusteko. Izan ere, sei puntu daude jokoan eta sailkapenean aurrean daukan taldea –Elgoibar– lau puntura daukate oñatiarrek. Mailari eusteko, geratzen diren bi partiduak irabazi beharko lituzkete Gotzon Urzelaireren mutilek eta Elgoibarren hutsaren zain egon. Bi final geratzen zaizkie, beraz, eta lehena bihar, zapatua, izango da, Mutrikun, 15:15ean.

Taldeari animoak emateko autobusa jarriko du Aloña Mendik. 14:15ean irtengo da Ibarrik eta Aloña Mendi tabernan eskuratu ahal izango da txartela –gaur azken eguna–.



Zeka elkarteak kideak, kultur etxeko erakusketan. MIREN ARREGI

## Zeka elkartearen erakusketa ikusgai kultur etxean, egunero

Egunero dago ikusgai –zapatu eta jaiegunetan ere bai– Zeka taldearen erakusketa (18:00-20:00)

### M.A OÑATI

Hiru bildumatan banatuta dago erakusketa. Batetik, Oñatiri zuzendutako zatia dago; bestetik, txantxikuen bilduma; eta azkenik, automobilen gainekoa. Oñatiko Zeka elkarteko –filatelia eta numismatika elkarteak da Zeka– hiru kideren bildumak dira horiek. Oñatiri zuzendutako zatia Mikel Untzilaren bilduma da; txantxikuena Luis Maiztegirena eta automobilen zigiluen gaineko bilduma Fernando Garciarena. Zigiluen hainbat ezaugarri tekniko deskribatzen dira erakusketaren

lehen zatian, halako sarrera bat eginaz.

### Bitxikeria ugari

Zentsura militar bat pasatu zuen kartazal bat eta *Virgen de Aranzazu* izeneko Talgoa azaltzen den postal bat dira Oñatiri eskainitako zatian ikusgai dauden elementuetako bi. Txantxikuen atalean daude txantxiku espezie desberdinak azaltzen diren zigiluak, edo literaturan edo zineman azaldu diren igelei erreferentzia egiten dietenak; automobiletan, berriz, garai bateko autoak, lasterketakoak, suteen aurkakoak...



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

## Euskalduna bai, baina...

Joan den astean euskararen erabilera datuak ezagutu genituen. Eta bai, Oñati herri euskalduna da; bai, behintzat, kaleko ahozko erabileran. Gure kaleko berriketaldietatik 10etik ia 7 euskaraz izaten dira, baina, euskalduna, batez ere, haur eta gazteen artean da euskalduna. Izan ere, 2-24 urtekoen artean, hamar elkarriketatik bederatzi euskaraz dira. Datu bikaina! Bejondeiela gure gazteei! Datu hauek erakusten dute beraiantzat euskara garrantzitsua dela, euskaraz bizi nahi dutela eta, gainera,

euskaraz bizi direla. Bestelakoa da 24 urte baino gehiago ditugunontzat euskaraz duen lekua, gure arteko elkarriketen erdiak baino zertxobait gehiago dira bakarrik euskaraz. Adinekoen artean (>64), berriz, kopuru hori %40ra jaisten da. Helduok atxikimendu gutxiago diogu euskarari, gutxiago erabiltzen dugu, errazago pasatzen gara gaztelaniaz egitera, nahiz eta gure solaskidea euskalduna izan edota euskaraz gutxienez ulertu. Arlo horretan, sarritan, pentsatzen edota

esaten duguna eta egiten duguna ez datoz bat.

Hau guztia kalean entzundako elkarriketen gaineko analisisia da, baina zer gertatzen da lantegietan edota herriko komertzioetan? Oñatiarrok euskaraz kontsumitzen dugu? Badugu euskaraz kontsumitzeko aukerarik? Garai hauetan bertakoa sustatzea, kontsumitzea, ei da helburua. Kalitatekoa delako, jasangarriagoa delako, justuagoa delako... Ba, aizue, euskara baino bertakoagorik ez dago!.

# "Alor desberdinetako jendeak esku hartu du"

**JOSU ZUBIA** MUSIKARIA

Diskoa kaleratu berri du Josu Zubia oñatiarrak; horren aitzakiapen, kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, gaztelekuan. 22:30erako finkatu du hitzordua

**Iker Oñate** OÑATI

*Ezinen koblakari* bataiatu du Josu Zubiak (1994, Oñati) bigarren diskoa. Ezinari buelta eman, eta, koblakarien laguntzari esker, hamaika kantu sortu ditu; letra egileen eta herriko hainbat talderen kolaborazioen fruitu dira horietako asko.

**Gaztelekuan aurkeztuko duzu lana.**

Lotura berezia dut Oñatiko Gaztelekuarekin. Beti eskaini didate fazeta artistikoa –magia edo pailazo emanaldiak, kasurako– azalerazteko aukera; eta bide beretik dihardut. Logika horretan, diskoa Aitor Regeiro musikariarekin batera aurkeztea ere ez da kasualitatea: duela urte batzuk, musika elkarrekin jotzen pasatzen genituen gaztelekuko arratsaldeak.

**'Ezinen koblakari...'**

Hala da. Lehen diskoa kaleratu ostean, abesti berriak egiten hasteko saiakerari ekin nion. Dena den, ideia asko banituen ere, nekez amaitzen nituen abestiak; frustrazio sentimendua eragiten zidan horrek. Hortik dator *ezinen* terminoa. *Koblakari* hitza, bestetik, diskoa aurrera ateratzen lagundu didaten letra egileen omenez doa. Alegia, nire kabuz amaitu ezin izan nituen abestiak bukatzen lagundu didatenei egiten die erreferentzia.

**Orduan, kolaborazio ugariko diskoa duzu?**

Bai. Eta horrek aberastu egiten du diskoa; izan ere, alor eta estilo desberdinetako jendeak esku hartu du proiektuan. Kasu batzuetan, azken urteetan hasiak nituen abestiak bidali dizkiet koblakariei, gura bazuten, euren amaitu zitzaten. Beste letra egile batzuek, bestetik, askatasun osoa izan dute; hutsetik, inolako oinarririk gabe, ekin baitoite letrak sortzeari.



Josu Zubia, disko berriarekin. IKER OÑATE

**"OSO GUSTURA NAGO LAN BERRIAREKIN; AURREKOA BAINO DISKO OSOAGOA DA, DUDARIK GABE"**

**la lau urte igaro dira lehen lana aurkeztu zenuenetik...**

Patxadaz sortu gura nuen diskoa, epeek eragindako presio oro baztertuz. Dena den, baneien bigarren diskoa izango nuela, batez ere, koblakariekiko eta ingurukoekiko kitatzeko nuen zorragatik. Kaleratze data hasieratik zehaztuta izatearen presio hori baztertuta, hobeto egin dut lan; eta nabari da amaierako emaitzan.

**Hamaika kantu ditu diskoak. Zaila izaten da kantu kuttunenaren dilema atzean uztea...**

Dudarik gabe, teoria zuzena da hori. Bide horretan, *Bidaiaria* deiturikoa da gustukoaren dudaren abestia. Mundua gogoko ez duen haur bat du protagonista; eta, horri aurre eginez, bere gela itxian sorturiko mundu libre eta ireki batez mintzo da. Nire

ustez, denok sentitu izan gara horrela inoiz. Hala, pertsona askok identifika dezakete euren burua haurraren istorioarekin.

**Azken urteotan, beste musikari batzuekin jardun duzu elkarlanean. Bide beretik doa lan berria?**

Bai; boskote bat gara. Bide horretan, doinuak konposatzen jardun dudanean, ditugun musika tresna guztiak hartu ditut aintzat; aurreko diskoan, ez. Gainera, beste kideek ere ekarpena egin dizkiete proposatzen nizkien doinuei.

**Emaitzarekin pozik?**

Oso gustura nago bigarren diskoarekin. Abesti asko nik aurreikusitako bezala geratu dira; zaila izaten da hori lortzea. Horrez gain, lehen diskoarekin alderatuz, kalitatea nabarmen hazi dela esango nuke. Eta, azkenik, aurrekoa baino disko osoagoa dela esatea.

**Eta orain zer?**

Diskoaren sorkuntza lanak amaituta, hura aurkezteko unea da. Kontzertuak eskainiko ditugu; jada hasiak gara hitzorduak ixten.

## Herriko pilota txapelketarako izen-ematea zabalik

Ekainaren 1ean jokatuko da lehenengo partidua eta irailera bitartean iraungo du txapelketak

**Iker Oñate** OÑATI

Maiatzaren 1ean ireki zuten herriko pilota txapelketan izena emateko epea; hilaren 21era arte –astelehena– egongo da zabalik. Ordura arte, Arrano, Ona eta Aloña tabernetan eman daiteke izena, bikoteko 10 euroren prezioan.

Aloña Mendiko pilota sailak eta herriko txosna batzordeak antolatu dute egitasmoa. Urtero legez, ligaxka eran hasiko dute txapelketa, ekainean; eta, udako oporren ostean, azken kanporaketak jokatuko dituzte. Azkenik,

finalistak jai giroan lehiatuko dira, irailaren amaieran; San Migel jaien egitarauaren parte izango dira emakumezkoen eta gizonezkoen finalak.

**Pilota sailak, deialdia**

Aloña Mendiko pilota sailak dokumental bat egin gura du 50. urteurrena ospatzeko. Horren baitan, hura zehaztu eta grabatzen hasteko, pilota saileko zuzendaritzako kideak eta pilotari federatuak batu gura dituzte zapatuan, Zubikoa pilotalekuan, 18:00etan.

## Goiena saria, Oñatira

Maidar Larrañaga oñatiarrak irabazi du Goienak zozketaturiko 100 euroko erosketa bonua. Bada, "pozik" azaldu da Txandak –Oñatiko dendarien elkarte– banaturiko sariarekin. Azaldu duenez, herriko denda ezberdinetan gastatuko du bonua. Sua dendak eman zion saria, astelehenean.

Goienak apirillean eginiko bazkide-tza kanpaina bereziaren harira zozketatu da saria.



IKER OÑATE



ALOÑA MENDIKO ESKUBALOI SAILA

## Herritar ugari taldea babesten

Izarraitz Muñoz Aloña Mendiko mutilek ez zuten Lehen Maila Nazionalera igotzea lortu. Bigarren postua erdietsi zuten Burgosen jokaturiko fasean, sei puntu posibleetatik hiru eskuratuta. Oñatiar asko hurbildu zen; eta, hala, Aitor Aranburu entrenatzaileak babes hori eskertu die zaleei.



Pol-Polen 75. urteurreneko ospakizun egunean, taldearen izen bera duen iturriaren bueltan ateratako familia argazkia. POL-POL

## Mendizaletasunaren eta gizartearen arteko lotura

Puntaik Puntaren barruan, erakusketa ireki zuten atzo Laboratoriumen eta abuztura bitartean bisitatu ahalko da; jaialdiaren antolakuntzan lagundu duen Pol-Pol Mendizale taldeari, 75 urte egin dituela-eta, omenaldia egingo diote domekan (13:00)

### Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara izango da Puntaik Punta Debagoieneko bidezidorren jaialdiaren epizentroa –ikus 4. orria– asteburuan. Eguaztenean hasi ziren ekitaldiak eta domekara arte ez da aspertzeko astirik izango; betiere, Bergararen ondare naturala eta kulturala bertakoen zein bisitarien eskura jartzeko asmoz.

Eta ondare horren parte da, zalantza barik, aurten 75. urteurrena ospatzen ari den Pol-Pol Mendizale Taldea. Atzo erakusketa interesgarria ireki zuten Laboratoriumen, *Mendizaletasuna eta gizartea* izenburuarekin.

### Erakusketa eta omenaldia

Arduradunek iragarri dutenez, erakusketak mendizaletasunaren hainbat alderdi jorratuko ditu: mendizaletasuna eta kirola; mendizaletasuna eta pertsonaren sozializazioa, mendizaletasuna eta espiritualtasuna, mendizaletasuna eta ingurumena... Pol-Poleko kide Loli Larrañagak bere

atala ere izango du, baita gaur egun mendizaletasunak bizi duen egoerak ere. Laboratoriumera hurbiltzen denak mendiko pertsona ezagunen testigantzak entzun eta Euskal Mendizaletasunaren Museoak utzitako hainbat pieza ikusi ahalko ditu, besteak beste. Gaur eta bihar 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik erakusketa; etzi, berriz, 11:00etatik 14:00etara. Abuztuaren 27ra arte egongo da erakusketa Laboratoriumen.

Bestalde, Puntaik Punta jaialdiko antolatzaileek omenaldia egin gura izan diote Pol-Pol taldeari; etzi izango da, San Martin plazan (13:00). "Aurten 75 urte egin ditugula jakinda, Udalak

**POL-POL TALDEAREN  
75. URTEURRENEKO  
LIBURUA "BIDE  
ONETIK" DOA,  
EGILEAREN ARABERA**

eta Mankomunitateak omenaldi bat egitea eskaini zigun. Eta, bide batez, Errenteriako Urda-buru taldeak 75 urte eta Trintxerpeko Trintxer taldeak 25 urte egin dituztela aprobetxatu gura izan dugu, eurek ere omenaldi xume bat jaso dezaten", adierazi du Pol-Poleko kide Aitor Erañak.

### Liburua, "bide onetik"

Pol-Polen 75. urteurrena borbiltzeko, Migel Angel Elkorobereziabar idazlea liburua egiten dabil. "Bide onetik doa baina puzzle handi bat da. Testigantza ugari dira. Oraindik elkarrizketak egiten ari naiz eta jendea laguntzeko prest dabil", dio. Liburu berezia urtea amaitu aurretik argitaratzea da Elkorobereziabarren asmoa.



Egitaraua osorik ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

### Abenturaren xarma

"La abentura es la abentura", esaten dut askotan lagunartean. Betidanik sentitu dut abenturaren deia, baina lehen beste modu baten egiten genien aurre abenturei. Teknologia hobetzen joan den heinean, gauzak asko aldatu dira. Eguraldi iragarpen zehatzak ditugunetik, horren arabera egiten ditugu planak. Lehen, ez genekien zer egingo zuen hurrengo egunetan, plana egin eta aurrera... GPSak ditugunetik, bazter guztiak erraz topatzen ditugu. Lehen, bideak topatzen ibili behar ginen, galdetzen, bideak buruz ikasten, intuizioa erabiltzen... Orain, ez dago pentsatu beharrik. Telefono mugikor inteligenteak ditugunetik, seguruago sentitzen gara, eta, gainera, une oro munduarekin kontaktuan gaude. Aukera horiek ez genituenean, autosufizienteak izan behar ginela ikasten genuen, guk konpondu behar genituela gure arazoak. Segurtasuna ondo dago, baina, dena kontrolpean izatean, xarma galtzen da. Ziurgabetasunak gauzak modu intentsuagoan bizitzea dakarrela uste dut. Badira urte batzuk Pirinioetan galduta geundela istripu larri bat izan nuela; mugikorra gainean genuen, baina ez zegoen koberturarik. Ederrak komeriak!



IÑIGO ZUBELDIA

### Altxatu dute txondorra Elosuan

Erabat amaituta ez badago ere, elosuarrek egin dituzte txondorra eraikitzeko lanik zailenak. Garai baten moduan eta auzolanen aritu dira, belaunaldi berriei antzinako lanbideak erakusteko asmoz. Maiatzeko azken astean sutuko dute eta, hoguei bat egunez gau eta egun zaintzen ibili ostean, Elosuko jaietan aterako dute ikatza –ekainaren 17ko asteburuan–, festa giroan.

### Hondakinen larrialdi guneekin zer egin jakiteko iritzi bila

Udal Gobernuak atez ateko hondakinen bilketarako sortu ziren bost larrialdi guneei beste erabilera bat eman gura die, eta, horretarako, bergararren proposamenak jasoko ditu. Udal webguneko lotura honetan egin daitezke ekarpenak, maiatzaren 25a baino lehen: [www.bergara.eus/eu/node/10101](http://www.bergara.eus/eu/node/10101). Gobernuak ideia guztiak aztertuko ditu.

### OHARRAK

#### San Joxepe: irteera

Logroñora joango dira ekainaren 14an. Izena eman daiteke ekainaren 9ra arte.

#### 'Oparitu Zuhaitz Bat'

Maiatzaren 25ean elkartuko dira, kultura etxean (19:30).

#### Domeka Azoka

Hilaren 28ko azokarako izena emateko azken eguna: maiatzak 22. [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).





Bergarako moto-kroseko parte hartzaileak. GOIENA

## "Ibilbidea prest dago moto-kros lehiaketarako"

Domekan izango da Euskadiko Txapelketaren barne dagoen Bergarako moto-krosa. Motorzaleek 10:00etan ekingo diete entrenamenduei eta hamaiketan hasiera emango zaio Garbigune ondoan izango den lasterketari, Angiozarren

### Ane Vitoria BERGARA

85-90 motorzale inguruk parte hartuko dute asteburuan izango den moto-kros txapelketan; eta, hain zuzen ere, kategoria hauek izango dira lehian: MX65, MX85, SUB18, MX1, MX2 eta Master. Horrez gainera, klasikoeak ere jardungo dute, eta edozein adin tartetako pertsonen parte hartu dezakete, baina lehiatuko diren motorrek zaharrak izan beharko dute. Esan beharra dago talde bakoitzeko lehenengo hamabostak elite kategoriara pasako direla.

### Bergararren presentzia

Gainera, bergararrek presentzia handia izango dute lasterketan; izan ere, parte hartzaile guztien artean bost bergarar lehiatuko dira: Ibon Arebalo -MX65 kategorian lehiatuko da-, Lander Rejanok -MX85 kategoriakoa-, Unai Markiegi eta Urtzi Markiegi -MX2 kategorian lehiatuko dira- eta Asier Blazquez -Master kategorian lehiatuko da-. Lasterketa horren fabori-

toen aurreikuspena egin du Asier Blazquezek, Bergarako moto-krosaren antolatzaileak: "Nire ustez, emaitza onak lortuko dituzte Urtzi Markiegi, Lander Rejanok eta Jon Idiate gasteztarrak".

### Ibilbidearen egoera

"Ibilbidea dagoeneko prest dago moto-kros lehiaketarako. Azken

orduko kontuak falta dira; adibidez, zigilatzea eta publizitateko kartelak jartzea. Horrez gainera, ia euririk egin ez duenez, lurra ureztatuko dugu, lasterketan hautsik ez jasotzeko", azpimarratu du Blazquezek. Lasterketaz disfrutatzekeo grina duenak, hitzordua du Angiozarren domekan goizeko 11etan; sarrerak bost euro balio du.

### San Pedro elizako erretaularen gaineko hitzaldia bihar

Ariznoako San Pedro parrokian dagoen Santo Kristo Hilzorikoa Sevillan dago gaur egun eta lekualdaketa aprobetxatzen ari dira Kristo Hilzorikoa dagoen erretaula horretan ere konponketa eta zaharberritze lanak egiteko. Bada, lan horien inguruko hitzaldia emango dute Artez enpresako arduradunek bihar, zapatua, 11:30ean hasita. San

Pedro elizako parroko Jon Molinak jakinarazi duenez, ordu-bete inguru iraungo du biharko saioak: "Erretaularen zaharberritze prozesuan egin diren lanak azalduko dira xehetasunekin, eta berri den eta berri ez denaren aldea ere erakutsiko da, besteak beste".

Hortaz, erretaulako lan horien inguruan interesa duten herri-tarrek aukera izango dute aldaketa bertatik bertara ikusteko, deialdi irekia eta doakoa da eta.

### Errekaldeko hormaren lanek bi hilabete eta erdi iraungo dute

Astehenean hasi zituzten Errekalde jauregiko hormaren eraberritze-lanak. Lanen helburua da egoera txarrean dagoen lorategiko horma zatia berreraikitzea. Espero dute lanek bi hilabete eta erdi irautea. Bermeosolo SAU enpresa ari dira lanok gauzatzen eta aurrekontua 119.034 euro da, BEZa barne. Lanek irauten duten bitar-

tean, Koldo Eleizalde kaletik erdigunerako sarbidea moztuta egongo da goizez zein arratsaldez, 08:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 18:00etara.

Bestalde, Errekalde jauregian "nahita" egindako apurketak konpontzeko 1.000 euro gastatu behar izan ditu Udalak. Eskaileretako harrizko apaingarriak eta leihotako bost kristal apurtu zituzten, harriak jaurtita. Udalak gertaera salatu, eta herriko ondarea zaintzea denon ardura dela gogoratu du.

### Leire Martinen aldeko jaialdirako sarrerak, erritmo onean

Muskulu-atrofia espinala duen Leire Martin Pineda bergararraren alde ekainaren 17an pilotalekuan egingo den jaialdirako sarrerak salgai daude, lau eurotan, Udalaren webgunean; honako lotura honetan eros daitezke: <https://labur.eus/5u3V6>. Antolatzaileen arabera, erritmo onean doa salmenta. 900 lagunendako lekua dago frontoian.

### Sormen tailerrerako izen-ematea luzatu egin du Udalak

Udako eskaintzaren barruko nobedade nagusia da sormen tailerra, eta, izen-ematea ez denez nahi bezala joan, epea luzatzea erabaki dute, Udalak proiektuaren balio hezitzaileari ematen dion garrantzia "oso handia" delako. Izena emateko lotura honako hau da: <http://www.bergara.eus/eu/node/5879>. Izena eman daiteke hilaren 22ra arte.





*Uztailean, diberti zaituzte ingelesez.*

**2 eta 12 urte bitarteko umeentzako udako ikastaroak**

**DATAK :** Ekainak 26-Uztailak 28

**ORDUTEGIA:** 10:00-13:00.  
Nahi izanez gero (09:00-10:00) doaneko zaintza zerbitzua.

**LEKUA:** San Martin Agirre eskola

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
943 76 26 29 // [bergara@playandsay.org](mailto:bergara@playandsay.org)

*Anima zaituzte!*



**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

**Matxiategi 8. BERGARA**  
Tel.: 943 76 15 09



Kontzertuaz gain, I. Talde Lehiaketa egingo dute bihar. Hemen taldeetako bat, musika jotzen. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

# Udaberriko kontzertuan, talde guztiak elkarrekin

Begarako Musika Eskolak urtero antolatzen duen kontzertuak berrikuntza bat izango du aurten; izan ere, eskolako talde guztiak batera eskainiko dute kontzertu osoa, hasieratik bukaerara; bihar –zapatua– izango da hori, Udal Pilotalekuan, 19:00etan

**Eneko Azurmendi** BERGARA

28. edizioa izango du aurten Begarako Musika Eskolak udaberriro antolatzen duen jai kontzertuak. Aurtengoa, gainera, berrikuntzekin dator. "Orain arte egin izan duguna da eskolako talde bakoitzak bere emandako babesarekin, eta ez da gutxiagorako. Izan ere, elkartasun deia erantzun polita izan zuen. Azkargortari sorpresa emateko asmoz, egitaraua ez zen alde zurreratik xehetasun guztiak jakinarazi. Hasteko, bazkaria egin zuten gaztetxean bertan. 80 heldu eta 30 ume inguru batu ziren mahaiaren bueltan, eta ondoren etorri ziren herriko musika taldeen kontzertuak. Aitor Aldanondok, Jesus Martinez Txus-ek eta Maitanek osatutako hirukoteak ireki zuten zuzeneko musikaren tartea. Haien ondoren igo ziren taula gainera Fly Shit, Azkaite Pelox

Ekitaldiari hasiera emateko, Musika Eskolako Suzuki taldeak hiru abesti herriko eskainiko ditu: *May Song*, *Izaba Rhody* eta *Twinkle, Twinkle Little Star*.

Ondoren, Musika Tailerreko ikasleek, orkestra sinfonikoak, gazte bandak, trikiti taldeak, akordeoi taldeak, txistulari taldeak, dantza taldeak eta abesbatzak, guztiak elkarrekin zortzi pieza eskainiko dituzte: *Hallelujah*, *Lau teilatu*, *Zirkorrika* –aurtengo Korrikaren abestia–,

*Fandangoa*, *Larreerdian*, *Rolling in the deep*, *We are the champions* eta *Ikusi mendizaleak*.

Ondoren, herri afaria egingo dute Munibe plazan, 21:00etan. Afariaren ostean, 21:45ean, beste berrikuntza bat izango da: Talde Lehiaketa. "Urtetik urtera eskolako ikasleek hainbat talde sortzen dituzte eta horiei aukera emateko, I. Talde Lehiaketa sortu dugu. Sei taldek eman dute izena. Talde bakoitzak hiru abesti eskainiko ditu Munibe plazan jarrita dagoen agertokian. Epaimahai bat egongo da eta publikoak ere bozkatzeko aukera izango du", azaldu du Ugaldek. Sei talde horietatik bost eskolako ikasleek osatuta egongo dira eta beste bat mistoa izango

**AFALOSTEAN I. TALDE LEHIAKETA EGINGO DUTE, ESKOLAKO IKASLEEK SORTUTAKO MUSIKA TALDEEKIN**

da; hau da, ikasleak zein ikasle ez direnak. Lehiaketa honetan, lehen saria 200 eurokoa izango da eta bigarrena, berriz, 100 eurokoa. Publikoaren saria irabazten duenak 30 euro eramanango ditu.

**Animatzeko deia**

Musika Eskolako zuzendariak dio "oso entretenigarria eta polita" izango dela biharko kontzertua, eta herritarrei bertartzeko dei egin die. "Musika mota ezberdinak entzuteko aukera izango dute Udal Pilotalekura hurbiltzen direnek, baita kantatzeko aukera ere", dio.

**Sarrerak salgai**

Kontzerturako zein afarirako txartelak salgai daude dagoeneko, Musika Eskolan. Kontzerturako sarrerari dagokionez, bi eurotan daude haurrenak eta lau euro helduenak. Afarirako txartelak, berriz, zazpi euro balio dute haurrenek eta hemezortzi helduenek.



Zigor Azkargortaren aldeko bazkarian 100 lagun inguru elkartu ziren. IMANOL SORIANO

## Lagunen babesa eta elkartasuna sentitu ditu Zigor Azkargortak

Berriki minbizia pasatu duen bergararra oso pozik agertu da zapatuan bere omenez gaztetxean egindako jaiarekin

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Zigor Azkargorta bergararrak nekez ahaztuko du zapatuan bizitakoa. Haren lagun taldeak antolatuta, omenaldi jendetsua eta goxoa eskaini zioten kartzela zaharreen. Azkargorta bera oso pozik agertu zen lagunek emandako babesarekin, eta ez da gutxiagorako. Izan ere, elkartasun deia erantzun polita izan zuen. Azkargortari sorpresa emateko asmoz, egitaraua ez zen alde zurreratik xehetasun guztiak jakinarazi. Hasteko, bazkaria egin zuten gaztetxean bertan. 80 heldu eta 30 ume inguru batu ziren mahaiaren bueltan, eta ondoren etorri ziren herriko musika taldeen kontzertuak. Aitor Aldanondok, Jesus Martinez Txus-ek eta Maitanek osatutako hirukoteak ireki zuten zuzeneko musikaren tartea. Haien ondoren igo ziren taula gainera Fly Shit, Azkaite Pelox

eta Turboshit taldeak. Gauean, egun berezia borobiltzeko, DJ festa egin zuten; parrandak ordu txikiak arte iraun zuen.

**Diruz eta elkartasunez lagundu** Azkargortak minbizia pasa du duela gutxi eta horrek gorputzean paralisia eragin dio. Orain, errehabilitazioan dihardu, mugikortasuna pixkanaka berreskuratzen joateko. Tratamendu horrek gastu ugari dakartza eta lagunek zapatuko festarekin laguntza ekonomikoa eman gura izan zioten. Hori bakarrik ez, "babesa eta elkartasuna" helarazi gura izan zioten. Protagonistari "ilusio handia" egin zion; antolatzaileek ere eskerrak eman nahi izan dizkiete boluntario moduan jai horren inguruan laguntzeko prest agertu diren guztiak; barrako txandak betetzen, musikariei, bazkaria gertatzen aritu zirenei...

## Am...ona! Herriarteko finalera, Bergaran nagusi izan ostean

Herriarteko Bertso Txapelketa finalaurrekoa jokatu zen joan den aste bukaeran frontoian, Gabiriako Osinalde eta Villabona-Amasako Am...ona! taldeen artean; azken talde horrek lortu zuen finalerako txartela. Antolatzaileen arabera, giro polita jarri zuten frontoira hurbildu zirenek, eta bertsolariak saio ona eskaini zuten. Karidadeko

Benta (Asteasu, Zizurkil) eta Am...ona! (Villabona-Amasa) taldeek jokatu dute finala. Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokatu da finala, maiatzaren 27an, 17:30ean. Jarraian, afaria egingo dute Sanagustin Kultur-gunean. Txartelak salgai daude, finalerako edota afarirako, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean.

Tokian tokiko bertsolariak hauspotzea helburu duen txapelketa horretan, 38 taldek hartu dute parte; tartean, Debagoieneko hiru taldek.

GORBEIAK

# Karibera

eraman nahi zaitu

Egin erosketa bat Gorbeian, sartu  
[centrocomercialgorbeia.com](http://centrocomercialgorbeia.com)  
webgunean eta

## PUNTA CANARAKO

bidaia baten zozketan parte  
hartu ahal izango duzu

(aste bat bi pertsonarentzat, dena barne hartzen duen erregimenean\*)

Promozioa indarrean izango da 2017ko maiatzaren 19tik ekainaren 17ra arte  
(\* Kontsultatu oinarriak eta baldintzak [centrocomercialgorbeia.com](http://centrocomercialgorbeia.com) webgunean



**GORBEIA**

[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)

 Parque Comercial Gorbeia



DECATHLON

Norauto



merkal  
calzados



CIMER  
el outlet del electro



Viajes



# Nekazari, abeltzain zein artisau, denak plazara

San Isidro azoka izango da bihar, zapatua, Herriko Plazan, eta Antzuolako ekoizleak izango dira protagonista. Ganadua, artisautza produktuak eta jakiak izango dira ikusgai eta salgai, eta, horrez gain, berrikuntza modura, talo tailerra ere izango da txikientzat.

## Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Astelehenean, maiatzaren 15ean, izan zen San Isidro eguna, eta, urtero legez, bihar, aste bereko zapatuan –hilaren 20a–, baserriarren azoka izango da Antzuolan.

Ganadua, baserriko tresnak, artisautza produktuak eta jakiak izango dira goizean Herriko Plazan jarriko dituzten postuetan. 11:00etatik aurrera salda banatuko diete Trekutz elkartera gerturatzen direnei.

San Isidro azokara animaliak eroango dituzten guztiak Antzuolako baserriarrak dira.

Esate baterako, Irumendi elkartekoek piriniar arrazako behiak eroango dituzte; Altzeta baserrikoek, behorrak eta ardiak; Amaia Laskurainek ere, behorrak eta ardiak; horrez gainera, beste hiru baserriarrek astoak eroango dituzte.

Jatekoari dagokionez, asko kanpotik etorritakoak izango dira, baina herriko produktoreen ordezkariak ere izango da, Pikunieta eta Anbu baserrikoek postua jarriko baitute, esaterako. Gainontzean, goxoak, eztiak, gazta... halako produktuak izango dira.

Horrez gain, irabazi asmorik gabeko Anelkar elkarteak bidezko merkataritzako hainbat produktu jarriko ditu salgai postu batean.

Bestalde, joskintza lantzen duen talde antzuolar batek hariz egindako lanak ikusgai jarriko ditu San Isidro azokan.

Eta, halako feria baten musika ezin denez falta, txistulariak eta trikitilariak aterako dira giroa alaitzera.

## Idolaz taldearen txokoa

Umeak eta gaztetxoek ere ez dira aspertuko bihar. Izan ere,



Ganadua Herriko Plazan, iazko San Isidro azokan. GOIENA

azokaren bueltan, berrikuntza moduan, aurrean, taloak egiten ikasteko tailer bat izango da, Idolaz aisialdi taldearen eskutik, plaza inguruan jarriko duten txokoa. 11:00etan hasiko da ikastaroa, eta gazteek taloak egin eta dastatzeko aukera izango dute.

Talo tailer horretaz gain, aurpegi margotzeko aukera ere izango dute neska-mutikoez, hori ere Idolaz taldekoen eskutik.

Ez hori bakarrik; izan ere, 13:30ean, Antzuolako jakiekien eta produktuekin osatutako otarre berezi baten zozketa egingo dute.

## Kukumarro erakusketa

Azokaren bueltan, kukumarro erakusketa izango da, beti bezala. Hain zuzen ere, 11:00etatik aurrera herritarrek egindako txorimaloak plazako iturri inguruan izango dira ikusgai. Geroago, arratsaldeko ordu batean, sari banaketa izango da, Herriko Plazan.

## San Isidro azoka eguna

- **09:00-13:00** Ganadua azoka, artisautza, salmenta postuak... Anelkarrek bidezko merkataritza produktuen postua jarriko du. Antzuolako gaiei buruz argitaratutako liburuak salgai jarriko dituzte.
- **11:00** - Talo ikastaroa eta aurpegi margotzea, Idolaz taldearen eskutik
- Kukumarro erakusketa
- Salda Trekutz elkartean
- **12:00** Txistularien eta trikitilarien kalejira.
- **13:00** Kukumarro lehiaketaren sari banaketa, plazan.
- **13:30** Antzuolako produktuekin osatutako otarrearen zozketa.

## San Isidro egunez, baserriaz baserri

Azoka bihar izango bada ere, astelehenean izan zen San Isidro eguna, eta bost baserriara bisitak egin zituzten, Udalak eta landa garapenerako Deba Garaia elkarteak antolatuta.

### Ekimen arrakastatsua

Deialdiak arrakasta izan zuen, 40 pertsonatik gora animatu baitziren. Irumendi, Pikunieta, Irala-Torre, Bidaurre eta Lapatza baserriak ezagutu zituzten, ekoizleen azalpenak entzunda.



Aitzol Iturberen azalpenak entzuten, Irala-Torre baserrian. AMAIA TXINTXURRETA

## Emakumeen Bira datorrela-eta, Udalaren gomendioak

Emakumeen Bira Antzuolan izango da gaur, eta herrian autoak ibiltzeko "zailtasunak" izango direnez, pazientzia eskatu dute. Garajeetako jabeek eskatu diete autoak bertan gorde ditzaten, eta herrira datozeinei, posible bada autorik ez erabiltzeko. Antolatzaileei kasu egiteko gomendioa egin dute. Birari buruzko informazioa 38. orrialdean.

## Zarauzko abesbatzaren emanaldia egunean

Datorren egunean, maiatzak 25, Zarauzko abesbatzak kontzertua emango du Antzuolan, Torresoroa aretoan. 18:00etan hasiko da emanaldia. Jaione Eskudero da abesbatza horretako zuzendaria, eta hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea du taldeak, eta munduko hainbat txokotan aritu izan dira abesten.

## Maiatzaren 28an 'Carcassonne' txapelketa

Jolasenea mahai jokoen elkarteak antolatutako *Catan* txapelketan 16 lagun batu ziren, eta Sergio Lopez bilbotarrak irabazi zuen. Ugaitz Iturbe antzuolarra bigarren izan zen. Hilaren 28an *Carcassonne* txapelketa izango da, 17:00etan, Olananen, eta izena Internetez eman daiteke, Jolasenearen Facebookeko orrian dagoen loturan.



Finala jokatu zuen laukotea. JOLASENEA

## OHARRAK

### Odol ateratzea

Hilaren 24an odol ateratzea, 17:30etik aurrera, Olananen.

### Koordaintze eskaerak

Gaur da Landatxopen kopago sanitarioa eskatzeko azken eguna (16:00-18:00). Nortasun agiria, Osakidetzako txartela eta kobratzeko kontuaren titularra dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu behar dute lehenengoz eskatuko dutenek.

# Maia, Lizaso, Akizu eta Ibartzabal Torresoroan

Bertso saioa izango da gaur gauean, egubakoitza, San Isidro azokaren bezperan. Lau bertsolarik hartuko dute parte, eta Alazne Jauregi antzuolarra arduratuko da aurkezle eta lanak egiteaz eta aurrez herriko bertsolariek landutako gaiak jartzeaz

## Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, maiatzak 19, bertso saioa izango da Torresoroa aretoan, biharko San Isidro azokara begira giroa berotzeko balio izango duena. Gauean izango da hitzordua, 22:00etan hasita, eta lau bertsolari arituko dira oholtza gainean. Honako hauek izango dira: Jon Maia, Sebastian Lizaso, Maialen Akizu eta Nerea Ibartzabal. Sarre-raren prezioa bost euro da.

Alazne Jauregi antzuolarra arduratuko da gaur gaueko bertso saioan aurkezle eta gai-jartzaille lanak egiteaz. Hain zuzen, Antzuolako *sasibertsolaixek* aurrez prestatu dituzten gaiak bo-

tako dizkie bertsolariei, haiek inprobisatu dezaten.

## Eskarmentua eta gaztetasuna

Sebastian Lizaso azpeitiarra eta Jon Maia urretxuarra urtetan mila plazan aritutako bertsolariak dira. Lehena bost aldiz izan da Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusiko finalista (1982tik 1997ra), eta 1986an txapela jantzi zuen. Dagoeneko ez du txapelketan parte hartzen, baina herriz herri bertsotan jarraitzen du.

Jon Maiari dagokionez, hiru hamarkada daramatza plazaz plaza, eta lau final nagusitan izan da (1997tik 2009ra). Irailetik

abendura bitartean jokatu duten aurtengo edizioan ere parte hartuko du.

Gaurko beste bi protagonistei dagokienez, gazteak dira biak ala biak. Nerea Ibartzabal markinarrak 23 urte ditu, eta aurtan izan da lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketa finalista, eta Bertsolari Txapelketa Nagusirako sailkatu zen.

Maialen Akizu urretxuarra da, Maia bezala, eta 21 urte ditu. Hura izango da, hortaz, Torresoroako lauren artean gazteena. Umetatik izan du bertsolaritzarekiko zaletasuna, eta abenduan bertsolari gazteen Xenpelar saria irabazi zuen.



MAITE TXINTXURRETA

## Trikitiaren inguruan berbetan

Trikitia izan da protagonista asteon Antzuolan. Bi elkarrizketa saio izan dira: bata, Ines Osinaga musikariaren eta Pako Aristi idazle eta kazetariaren artekoa –argazkian–, eta bestea atzo, eguena, Unai Narbaiza, Edurne Iturbe eta Izer, Laja II.a eta Lutxurdio trikitilariekin. Beñardo Kortabarriak gidatuta, trikitiaren inguruan hausnartzeko tarte izan zen.

# LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN



"etorkizuna zure esku"

## ARETXABALETAN

### ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA

© 943 79 79 00 / 943 79 79 43

ia@iaretxabaleta.com

www.iaretxabaleta.com



## BERGARAN

Ate irekiak:

Maiatzak 25, 18:30ean

### Miguel Altuna LHII Bergara

Ibargarai, 1 • 20570 BERGARA

© 943 76 24 91 / 943 76 38 40

imaltuna@saremail.com

www.imaltuna.com



## OÑATIN

Ate irekiak: Maiatzak 24,  
18:00etan, Larraña egoitzan

### IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g • 20560 OÑATI

© 943 78 21 50

013015aa@hezkuntza.net

www.onati.net



**AURREMATRIKULA:** Ekainaren 5etik 16ra. **MATRIKULA:** Uztailaren 13tik 19ra.



Tropela, Birako lehenengo etapan, lurretatik pasatzen. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKIPRESS

# Gaur, etapa nagusiaren atarikoia Antzuolan

**TXIRRINDULARITZA** Emakumeen Birako lehenengo bi etapak Bizkai aldean lehiatu eta gero, lasterketa Gipuzkoan sartuko da gaur, egubakoitza, Antzuolan hasi eta amaituko dute-eta hirugarren etapa. Ziklistek Deskarga eta Udana gainditu beharko dituzte

**Xabier Urzelai** ANTZUOLA Marta Bastianelli –lehenengo etapako irabazlea–, Moolman-Pasio edota Van Vleuten izango dira, besteak beste, gaur Antzuolan gertutik jarraitu beharreko izenak. Ez dira protagonista bakarrak izango, ezta gutxiago ere, 16 taldetako 110 ziklista batuko direlako ia 78

kilometro izango dituen Antzuola etapari.


## Deskarga eta Udana igotzeko

Etapa 15:30ean hasiko dute, eta atzo Markina-Xemeinen ez bezala –etapa amaitu aurretik bidali zen GOIENA errotatibara–, ziklistek gaur eguraldi txukunagoa izango dute. Hala,

etapako ia kilometro gehienak Debagoieneko errepideetan egingo dituzte; lehenengo kilometroak nahiko lauak izango dira, Antzuolatik Eskoriatzaraino etorriko dira, eta Aingeru Guardan buelta erdi eman eta gero ostera ere Antzuolarako bidea hartuko dute ziklistek. Hor, 44. kilometro

## Antzuola-Antzuola

ITURRIA: EMAKUMEEN BIRA



inguruan, izango dute lehenengo mendatea, bigarren mailakoa den Deskarga –6 kilometro %5eko desnibelarekin–. Horra tropela batera iristen bada, Deskargako maldek min egingo dute, eta, Legazpitik Udana igo ostean, Oñati eta Antzuola bitartean ongongo dira arzen ihesaldi saiakerak. Hor arakastarik ez badute, uztai-lean amateur mailako Antzuola Sarian tarteka gertatzen den moduan, herriko plazan

azkarrenen arteko esprinta ikusi ahal izango da.

## Bihar etapa nagusia

Antzuolakoa etapa nagusiaren atarikoia izango da; izan ere, ziklistek bihar etapa gogorra izango dute aurretik, Etxarri Aranatzan. Ez kilometro askokoa izango delako (55), baina bai Aralarko San Migelera igo beharko dutelako. Domekan, berriz, Erreterian amaituko da Bira.



ARRASATE DRAGOI TALDEA

## Taldeakako lanean bikain Espainiako Txapelketan

**AEROBIKA** Arrasate Dragoi Taldeko gimnastak Guadalajaran izan dira asteburuan, Espainiako Aerobik Txapelketan parte hartzen. Bakarkako lanean Uxue Azkue eta Araitx Altube seigarren izan ziren. Baina

Arrasatekoak taldekako lanean nabarmendu ziren, eta baita hirukoa osatzen ere, hor birritan igo ziren-eta podiumera, bi kasuetan hirugarren postua lortuta. Klubak neskak zoriondu ditu, egindako lanagatik.

## FUTBOLA Bergara KE haserre Antiguoko futbol taldearekin

Bergara Kirol Elkarteak prentsa ohar bidez azalatu du Antiguokorekin duen haserrea. Donostiarrek Bergarako alebin mailako bi jokalaritxatzekeo interesa erakutsi dute, eta horrek hautsak harrotu ditu klubean: "Hamaika urte baino ez dituzte, ez dugu joko honetan konplize izan gura", adierazi du klubak. "Jokalaririk horren gazteak fitxatzeko joera salatu gura dugu, talka egiten du gure formazio modeloarekin, eta halako jokabideak gizarteratzeko hainbat neurri hartuko ditugu; horrela jokatzen dituzten klubak salatzeko gertu gaude". Prentsa oharren xehetasun gehiago [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) atarian.

## BERBALDIA 'Eliteko kirolaren argi-ilunak' berbaldia Arrasaten

AED elkarteak antolatuta, kirolaren gaineko berbaldia egingo dute datorren astean, hilaren 24an, Arrasaten, Kulturaten –Loramendi aretoan, 19:00etan–. Berbaldian, elite mailako kirolak dituen argi-ilunen gainean egingo dute berba, eta horretarako Oihana Kortazar mendi lasterkaria, Jon Odriozola ziklista ohi eta Euskadi Basque Country Murias taldeko zuzendaria eta Malen Ruiz de Azua atleta gonbidatu dituzte.

Eliteko kirolean jarduteak dituen onurak, fisikoki etorkizunean izan ditzakeen ondorioak, kirolari ezagun izateak dakartzanak... Haritz Gallastegik zuzenduko du berbaldia.



Duela bi urte egin bezala, Kanpanzar Arrasatek eskura du mailaz igotzea; erretratua Mojategin, Elorrioren kontra. GOIENA

# Mutrikura bukaerara arte borrokatzera doa Aloña

**FUTBOLA** Liga amaitzeko bi partiduren faltan, Aloña Mendik lau puntura dagoen Elgoibar du begiz jota. Urzelaren mutilek garbi dute matematikak ez dituztela aldeko, baina ez dute amore emateko asmorik; klubak autobusa jarri du zaleendako

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Jaitsiera postuetatik ihes egiteko borrokan Aloña Mendik (33 puntu) Elgoibar du kontrario gertukoena (37), eta oraindik *arriskuan* daude 39na puntu dituzten Touring, Beti Gazte eta Vasconia. Horrek esan gura du talde horietako edozein gainditzeko oñatiarrek geratzen diren bi partiduak irabazi behar dituztela –Elgoibarren eta Zarautzen kontra–, eta ondoren, besteen akatsen zain egon behar dutela.

Zaila da, oso zaila, baina ez da ezinezkoa, eta domekan Vasconia-aren kontrako garaipen lehiatuak (1-0, Unai Gilen golaz) erakutsi zuen oñatiarrek dena emateko gertu daudela. Broma gutxi egon zen berdegunean, eta bihar (15:15) bosgarren dagoen Mutrikuk ez du partidua intentsitate berdinarekin jokatuko; hor Aloña Mendik ezin du parekorik izan. Bada, harmailetan zaleen babesa izateko, klubak autobusa jarri du; 14:15ean abia-

tuko dira Ibarako geltokitik, eta txartelak Aloña Mendi tabernan egongo dira salgai egubakoitzera arte.

**Mondra eta UDA etxean**

Kategoria berean, Mondrak eta UDAk etxeko zaleak agurtzeko aukera izango dute asteburuan. Arrasatekoek Amaiak Baten kontra jokatuko dute bihar

(16:30), eta azken hilabete eta erdiko bolada txarra eten gura dute; bigarren itzulian talde askok neurria hartu diete, lehengoan ligako sorpresetako bat izan eta gero.

Aretxabaletari, berriz, oso gutxi falta izan zaio osterara ere hirugarren mailara igotzeko borrokan ibiltzeko; Oiartzunen bisita izango dute etzi (16:30).

## Bergarak finala du Zumaian

Erregional Preferenteko txapelkun izateko finala jokatuko du Bergarak zapatuan (17:00) Añorgaren aurka, Zumaian. Ohorezko Erregional Mailara igotzeko txartela eskuratuta, liga borobiltzeko aukera izango dute mahoneroek –klubak autobusa antolatu du Zumaiara, 16:00etan, frontoian. Txartelak Depor tabernan, egubakoitz eguerdira arte–.

Bestalde, Lehen Erregionalean, Bergara ere igoera fasea jokatzen dabil eta mahoreoak bigarren postuagatik dabilta borrokan. Saillapenean Oiartzunekin daude berdinduta, eta bigarren sailkatzeko euren aurretik geratu behar dira. Horretarako, asteburuan oiartzuarrek baino puntu bat gehiago batu beharko dute. Ez badute lortzen, oraindik ere promozioa jokatuko lukete.



Oñatiko pilotariak Herri Artekoa hasteko gertu, aste barruan. ARATZ LOSADA

## Zestoa hasiko du Oñatik Herri Arteko Txapelketa, bihar

**PILOTA** Kadete mailako partiduak erabaki dezake, neurri handian, kanporaketa; Arrasate kanpoan geratu da

**X.U OÑATI**

Arrasate Herri Arteko Txapelketatik kanporatuta –joan den asteburuan Donostian ezin izan zioten Uarkapen lortutako 1-2koari buelta eman–, Oñati da txapelketan geratzen den ibarreko ordezkari bakarra.

Hala, oñatiarrek asteburuan bertan hasiko dute txapelketa, eta Zestoa izango dute kontrario: "Oso ondo ezagutzen dugu elkar, eta, zorionez, Zestoaiko frontoia oso ondo ezagutzen dugu", adierazi du klubeko ordezkari Josu Osak. Hala, dagoeneko matematikak ere egin dituzte: "Kadete

mailan egon daiteke gakoa. Pronostikoez diote gazte mailan irabazi egingo dugula eta seniorretan aukera txikiagoak ditugula. Horrenbestez, kadete mailako partidua izan daiteke garrantzitsua. Eta, galduta ere, ahalik eta tanto gehien egitea komeni zaigu".

**Sei pilotari**

Kadete mailan pereztarrek osatuko dute bikotea. Gazte mailan Biain eta Gartzia izango dira Oñatiko ordezkariak, eta seniorretan Perezek eta Otxoak ordezkaturiko dute Oñati.

## Kontinental profesional mailara salto egingo du Muriasek 2018an

**TXIRRINDULARITZA** Jon Odriozolak zuzentzen duen taldea Vueltan, Itzulian eta Donostiako klasikoan egongo da

**X.U ARRASATE**

Euskadi Basque Country–Murias Taldea Kontinental mailako talde profesionala izango da 2018an, taldeko ordezkariak aste barruan Bilbon egindako prentsaurrekoan azaldu dutenez. Muriasko ordezkariak talde txiki baten aldeko apustua egin zuten duela hiru urte, eta orain, beste aurrerapauso bat ematea erabaki dute. Taldeko kirol manager Jon Odriozolaren hitzetan, urrats hau "ezinezko ametsa" da, "lan eta ahalegin handia egin

baita munduko lasterketarik onenetan eta, noski, Itzulian edo Donostiako Klasikoan parte hartzeko aukera izango duen euskal talde kontinental profesional bat lortzeko".

**Laguntzaile kanpaina**

Hala, taldeak 2018rako laguntzaile kanpaina ere aurkeztu du eta Euskadi Basque Country–Murias Taldeari laguntza emango dion talde handia sortu nahi dute. Bada, taldearen webgunean datoz xehetasun guztiak.

# Aste dantzagarria, Jaiki elkartearen eskutik

III. Dantza Astea antolatu du Aretxabaletako elkarteak, Udalaren eta herriko beste hainbat elkarteren laguntzarekin. Herritarrak dantzan egitera gonbidatzeko, tailerrak, erakustaldiak, ikuskizunak eta zine-tertulia izango dira, bihar hasita

## A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Jaiki elkartekoek oso gustuko dute dantzatzea, eta, horregatik, urtean zehar ikastaroak eta beselako ekimenak proposatzen dituzte. Bada, bihartik maiatzaren 28ra, dantza kalera atera nahi dute, eta, horretarako, III. Dantza Astea prestatu dute.

## Askotariko dantza tailerrak

Iazkoaren bidetik, swing, hip hop, dantza sortzaile eta *kontakids* tailerrak egingo dituzte; bihar, zapatua, 10:00etatik 13:00etara bitartean, kiroldegian, mojetan eta kuartelean. "Swing-edo lindi-hop moduan ere eza gutzen dena-iazko bi irakasleek erakutsiko digute: Aiala Larreina eta Paula de la Fuentek. "Iaz oso gustura ibili ziren eta urte osokoa lotzeko eskatu zituzten parte-hartzaileek. Hainbat pauso irakatsi eta segituan praktikan jartzea izango da, orokorrean, irakasleen proposamena. Honako honetan, maila ezberdinetako ikasleak batuko dira. Hip hopak ere arrakasta izaten du eta halaxe izan da aurrean ere, haurren taldea beteta dago dagoeneko, baina helduenean badago tokia. Irakasle gazte bat dator Gasteiztik, Laia Molina. Sormen dantza, berriz, ibilbide luzea duen Mariaje Ariznaba-



Rafa Eizaguirre. R.F.

rretak erakutsiko digu; inprobisazioarekin lotutako dantza mota da hori. Horrez gainera, familia giroan gozatzeko, Zigor Lasagabaster herrikidearekin *kontakids* tailerra berreskuratuko dugu; 2 eta 4 urte bitarteko haurrentzako da eta ezinbestekoa da haur bakoitzeko heldu bat joatea", azaldu du Jaikiko Maier Etxebarriak.

Ikastaroei dagokienez, baina, berrikuntza domekan egingo duten klakea da. "Aspaldi genuen dantza hori ikasteko gogo, baina zaila da irakasle on bat aur-

kitzea, eta, azkenean, ibilbide luzea duen Rafa Eizaguirre aurkitu dugu. Takoidun zapatak ekartzeko gomendatu digu, eta swingerako ere aproposak izan daitezke; baina gainontzeko ikastaroetarako arropa erosoak ekartzeko aholkatuko genuke.

Tailerretan parte hartzeko alde zuretik eman behar da izena honako telefono hauetara deituta: klake eta swing saioetarako: 688 86 21 87; eta gainerakoetarako: 688 81 96 65.

## Erakustaldiak eta ikuskizunak

Beste batzuei begira ere asko ikasten da; horregatik, Herriko Plaza eta Durana kalea dantza-leku bihurtuko dituzte. Bihar, Durana kalean, dantza afrikarrak eta goizeko tailerretako irakasleentzako saioak izango dira, hurrenez hurren, 13:30ean eta 18:30ean, eta domekan, 13:30ean. Herriko Basotxo elkarteak, ludotekak, Saharako emakume eta haurrek eta beste kolaboratzaile batzuek egindako saioak ikusteko aukera ere badago. "Gomendatzekoa da Donostiako Ebi Sorriaren eta Xabi Madinaren *Habrá que ponerse cachas*. Horietako batek garun paralisia du eta gurrpil aulkian dago; Maylis Arrabitek zuzendutako inprobisazio eta dantza integratua egiten dute".

## Julio Galarta pintorearen txoko maitatuak ezagutzeko irteera

Maiatzaren 27an, zapatuan, egingo dute, Leintz bailarako eta Arabako lautadako herrietan zehar

## T. M./A. A ARRASATE

Zizurkilen jaio zen, 1917an, eta umetan Arrasatera bizi izatera joan zen Julio Galarta. Margolari emankorra izan zen; horren erakusle da haren gertukoek osatzen duten Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak dagoeneko 1200 margolanetik gora katalogatuta dituela. Herriko eta inguruetak paisaiak, txokoak eta baserri ugari margotu zituen. "Ogibidez Roneoko langilea zen, baina, Mondragoen pintorerik izan bada, hori Galarta da. Gure susmoa da 3.000 margolan inguru zituela", dio elkarteko kide Albaro Arregik.

## Bisita gidatua datorren astean

Galartaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak antolatzen ari direla kontatu du Arregik. "Arrasateko kale eta herriko bestelako txoko asko

jaso zituen, bailaran ere dezentemargotu zuen; baina Arabako lautadan ere asko ibili zen, herri guztietako irudiak margotu zituen. Horregatik, bada, Galartaren margotzeko txoko horiek bertatik bertara ezagutzeko irteera bat proposatu dugu. Maiatzaren 27an egingo dugu; 10:00etan abiatuko gara autobusean, Garibai geltokitik. Parte hartu gura duenak [galartaelkartea@gmail.com](mailto:galartaelkartea@gmail.com) helbidera idatz dezake edo Maalako Errebalean dagoen Arregi Arte galeriara joan daiteke, bestela. 15 euro dira ordaindu beharrekoak".

## Urrirako erakusketa prestatzen

Arrasateko irudiak dituzten lanekin egin gura dute urrian Kulturaten erakusketa. Hori horrela, margolanen bat dutenei eskaera egin diete elkartekoek eurekin harremanetan jartzeko.

## 'Burbujas de papel' ikuskizuna Amaia antzokian bihar

Ikuskizun poetikoa eta bisuala da Kataluniako Mucab Dans dantza konpainiak bihar, zapatua, 17:00etan eskainiko duena. Burbuilez betetako munduan zehar bidaia bat egitea proposatuko dute taularen gainean izango diren Irina Martinezek eta Joan Laportak. "Dantzarekin, antzerkiarekin, zuzeneko musikarekin eta ikus-entzunezkoekin

jolasten dugu kaleko musikari baten istorioa kontatzeko", azaldu du Laportak.

Familia giroan gozatzeko moduko lana da. "3 urtetik gora koentzako pentsatuta dago, baina, paraleloki, haur horiekin doazen helduentzako ere aproposa da. Orain arte 200 emanalditik gora egin ditugu, eta hori da sumatu duguna".

Sarrerak bost eurotan eskura daitezke Amaia antzokiko leihatilari eta *on line* ere bai, [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus) atarian.

## EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA (EKT)

### GOIENA TELEBISTA,

MAIATZAREN 25EAN, EGUENEAN, 21:00ETAN

GONBIDATUA: ANA GANDARA, EUSKAL KULTURGINTZAREN IKERTZAILEA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA

**goiena**  
ZU HEMEN ZAUDE





# Kulturaren hamaika aurpegi eta ikuspegi

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa ikasketa graduan (MU) grabatutako elkarrizketa saioa da *EKT*; maiatzaren 25ean hasita, eguenetan 21:00etan eskainiko da Goiena telebistan. Idazleak, ikertzaileak, abeslariak, ekonomialariak eta soziologoak izango dira

## Ubane Madera ARRASATE

Kultura ikuspegi askotatik aztertzen edo begiratzen duen aditu titulua da Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT); Mondragon Unibertsitateak eskaintzen du, Aretxabaletan duen Ikus-entzunezkoen Fakultatean.

Ekainean amaituko da seigarren edizioa; hilean behin elkartzeko dira urria ezker.

## Lagin batzuk Goiena telebistan

Ikasturte honek eman duenaren zati bat ikusteko aukera izango da maiatzaren 25an hasita, eguenero, 21:00etan. Elkarlanean egindako proiektua da, MUREn laguntzarekin, hiru euskal komunikabideren artean: Goiena, Bilbo Hiria eta Euskadi Irratia. Txandaka egin dituzte hitzaldi formatuko eskola eman dieten askotariko adituei eta arituei elkarrizketak. Galder Perez (Euskadi Irratia), Ane Zabala (Bilbo Hiria) eta Aitziber Aranburuzabala (Goiena) dira kazetariak.

Ez dira egiteko elkarrizketa samurrak izan, eta ez dira ikusteko errazak ere, gai asko abstraktu samurrak direlako. Hala ere, gonbidatuek oso gertutik kontatu dituzte: batzuek, urteetan landutako tesiak; beste batzuek, euren bizipenak, profesionalak eta pertsonalak ere bai.



Gorka Urbizu.



Mixel Ducau.



Itxaro Borda.



Ana Gandara.



Ainhoa Agirreazaldegia.



Xabier Alkorta.

## Adituak eta arituak

Aurrekoetan moduan, hainbat kultura sortzaile izan dira. Iparaldetik Itxaro Borda idazlea eta Mixel Ducau musikaria. Idazlan kontuez gainera, postari izan zeneko garaia kontatu zituen Bordak. Ducauk, berriz, toki askotan eta kide izan den musika talde eta ekimenetan bizi izandako "abenturak" partekatu zituen, eta, solasaldia borobiltzeko, gitarra eskuetan hartu eta kantu bat abestu zuen.

Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuk ere umiltasun osoz gainbegiratu zuen bere ibilbidea, eta halaxe egin zuen Ainhoa Agirreazaldegik ere, bertsolariaren, euskaltzalearen eta feministaren ikuspegitik begiratuta.

Kulturaren beste aurpegi batzuk erakutsi dituzte, baina, ikasketa graduan izan diren ikertzaileek, filosofoek, soziologoek, antropologoek, enpresariak... Horietako batzuk ere *EKT*-ko platoan izan dira.

## Badator Ganbara Txikiren 'Pinotxo, hariekin lotu gabe'

Ekainaren 16an eta 17an Zubikoa kiroldegian eskainiko dute; sarrerak 12 eurotan eros daitezke, Txokolateixan

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Musika, antzerkia, ikus-entzunezkoak, argi jokoak... horiek guztiak batzen ditu Ganbara Txiki abesbatzak ekainaren 17an estreinatuko duen *Pinotxo, hariekin lotu gabe* musikalak.

Bi ordu eta erdiko iraupena du egurrezko panpina ezaguna protagonista duen istorioaren euskarazko moldaketak. "Guk sortu dugun proiektua da; hortaz, eskainiko duguna ikuskizun berria da. Oraingoan ere, seku-

lako lantaldea ari gara lanean: aktore eta abeslari lanetan, 35 lagun; eta bestelako lanetan ari direnak kontuan hartuta, 75 kide gara guztira", dio Ganbara Txikiko zuzendari Aitor Biainek.

Hiru emanaldi eskainiko dituzte: ekainaren 16an, egubakoitza, 18:30ean eta hurrengo egunean, 11:30ean eta 18:30ean. Sarrerak 12 eurotan eskura daitezke maiatzaren 30era bitartean -hortik aurrera, 15 eurotan-Txokolateixan eta *Sacatuentra-da.es* atarian.

## Goiena Klubaren txokoa



**Apirileko kanpaina berezian Goiena Klubeko bazkide egin diren guztien artean erosketa-txartel bat zozkatu dugu eta irabazlea Maider Larrañaga Sarasola oñatiarra izan da.**



**Oñatiko Txanda dendarien elkarteari esker, Oñatiko komertzioetan erosteko 100 euroko erosketa-txartela jaso du irabazleak.**

**Zorionak Maider Larrañaga, eta eskerrik asko Goiena Klubeko kide berri guzti-guztiei!**

## Irabazi bi lagunendako otordua

### LASA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



**Bazkidetu zaitetz: 2017 (maiatzetik aurrera): 30 euro. Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com**

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



**OROIGARRIA**



**Adoracion Gonzalez Pinto**  
1919-05-04 / 2016-05-17

**Celestino Motrel Corbella**  
1914-02-14 / 1988-05-21



---

*Beti izango zaituztegu gogoan.*

---

Zuen seme-alabak.  
Arrasaten, 2017ko maiatzaren 19an.

**OROIGARRIA**



**Maria Murgoitio Isasmendi**



2017ko maiatzaren 17an hil zen, 92 urte zituela.

---

*Kriseiluaren argi azpian herri honetako askatasun esperantzak bizirik mantendu dituzu tinko. Gure esker ona garaipena izango da.*



---

Arrasateko Etxerat eta enkarteladako lagunak.  
Arrasaten, 2017ko maiatzaren 19an.

**OROIGARRIA**



**Maria Murgoitio Isasmendi**



2017ko maiatzaren 17an hil zen, 92 urte zituela.

---

*Zu sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak. Asko maite zaitugu.*

---

Etxekuok.  
Arrasaten, 2017ko maiatzaren 19an.

**OROIGARRIA**

**Iñaki Bereziartua Odriozola**



2008ko maiatzaren 17an hil zen.

---

*Denbora aurrera doa, aita; bederatzirte urte zu gabe, jada. Baina urteak joan ahala, aldatzen ez den zerbait bada: zure lezioek aurrera egiteko ematen diguten indarra.*

---

Arrasaten, 2017ko maiatzaren 19an.

**OROIGARRIA**



**Tiago Gonçalves Marcelino**



2008ko maiatzaren 17an hil zen.

---

*Negar malkoz bete dugu itsasoa, Sentimendu gazi eta oroitzapen gozoz, ura bezala. Hala ere, itsas zabalean senti zaitzakegu. Arrain aske, jostari, arnas luzeko bidelagun eta bidaiari. Eskerrik asko emundako danagatik.*

---

Zurekin esperientzia, abentura, juerga eta bizipen eder ugari konpartitu ditugun lagunak.  
Oñatin, 2017ko maiatzaren 19an.

**URTEURRENA**



**Maria Jesus Inza Espinosa**



Jose Maria Juldainen alarguna  
2016ko maiatzaren 9an hil zen, 86 urte zituela.

---

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

---

*Gure bihotzean egongo zara beti.*

---

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2017ko maiatzaren 19an.

**MEZA**

**Jesusa Alberdi Arabaolaza**



2017ko maiatzaren 8an hil zen, 76 urte zituela.


---

Ondra meza larunbatean izango da, maiatzaren 20an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.


---

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2017ko maiatzaren 19an.

**ESKER ONA**



**Ignacio Elorza Anduaga**



Maxima Altube Zabarteren alarguna  
2017ko maiatzaren 6an hil zen, 94 urte zituela.

---

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin agurrak bidali zenizkigutenei eskerrik asko, sendikoen izenean.

---

Ondra meza larunbatean izango da, maiatzaren 20an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.  
Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi.

---

Oñatin, 2017ko maiatzaren 19an.

**ESKER ONA**



**Maria Jesus Makazaga Agirre**



2017ko maiatzaren 10ean hil zen, 84 urte zituela.

---

Eskerrik asko momentu hauetan familiaren ondoan egon eta babesa eman diguzuen lagun eta senide guztioi, eta baita ere azken une latzetan arreta eman diguten osasun zentroetako eta GSR Debagoiena egoitzako profesionalai.

---

Aretxabaletan, 2017ko maiatzaren 19an.

**HILDAKOAK**

- Antonio Emilio Dominguez Vazquez.** Bergaran, apirilaren 10ean. 89 urte.
- Ignacio Mari Basterra Muruamendiaraz.** Bergaran, maiatzaren 10ean. 84 urte.
- M. Rosario Madinabeitia Erostarbe.** Oñatin, maiatzaren 10ean. 91 urte.
- Miguel Angel Hernandez Hernandez.** Oñatin, maiatzaren 10ean. 67 urte.
- Maria Jesus Makazaga Agirre.** Aretxabaletan, maiatzaren 10ean. 84 urte.
- Bizente Letona Arejolaleiba.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 96 urte.
- Tiago Gonçalves Marcelino.** Oñatin, maiatzaren 12an.
- Aurelio Saavedra Barreiro.** Arrasaten, maiatzaren 14an. 85 urte.
- Maria Teresa Landa Urrutia.** Arrasaten, maiatzaren 15ean. 89 urte.
- Jesus Simon Gonzalez Cuesta.** Arrasaten, maiatzaren 16an. 82 urte.
- Valentina Valor Horrillo.** Arrasaten, maiatzaren 16an. 90 urte.
- Maria Murgoitio Isasmendi.** Arrasaten, maiatzaren 17an. 92 urte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- |  |   |
|--|---|
| <p><b>ARRASATE EGUNEZ</b><br/>Egubakoitza, 19 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15<br/>Zapatua, 20 M. FCA AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99<br/>Domeka, 21 FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26<br/>Astelehena, 22 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39<br/>Martitzena, 23 AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74<br/>Eguaztena, 24 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65<br/>Eguena, 25 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09</p> | <p><b>ARRASATE GAUEZ EGUNERO</b><br/>(22:00etatik 09:00etara)<br/>2017ko abuztuaren 15era arte:<br/>FERNANDEZ: Maisu Aranbarri<br/>943 79 22 26</p> |
| <p><b>BERGARA EGUNEZ</b><br/>Egubakoitza, 19 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74<br/>Zapatua, 20 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87<br/>Domeka, 21 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87<br/>Astelehena, 22 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05<br/>Martitzena, 23 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63<br/>Eguaztena, 24 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15<br/>Eguena, 25 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74</p>                        | <p><b>BERGARA GAUEZ EGUNERO</b><br/>(22:00etatik 09:00etara)<br/>2017 osoan:<br/>URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4<br/>943 76 11 74</p>               |
| <p><b>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</b><br/>Egubakoitza, 19 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16<br/>Zapatua, 20 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16<br/>Domeka, 21 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16<br/>Astelehena, 22 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22<br/>Martitzena, 23 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22<br/>Eguaztena, 24 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58<br/>Eguena, 25 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58</p>                              | <p><b>Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:</b><br/>COF Gipuzkoako aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.</p>            |

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



**maribi 617 44 21 55**  
**BERGARA**

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Athleticeko lagunarteko kideak, Garitanori bisitan**

Athleticen eta Leganesen arteko partiduan izan ziren talde bizkaitarrak Bergaran duen lagunarteko kideak; domekan jokatu zuten norgehiagoka. Partiduaz gozatu ostean, bisita egin zioten Asier Garitanori, Leganes taldeko entrenatzaile bergararrari. Euren bisita eskertu zuen Garitanok.

**2. Emilioren eta Lydiaren ezkontza**

Bihar, zapatua, ezkonduko dira Emilio eta Lydia arrasatearrak. Berantevillan finkatu dute hitzordua. Egunaren harira, lagunek mezu bat bidali gura izan diote dioketari: "Kuadrillaren partetik, zorionak eta ondo ibili eztei-bidaian!".

**3. Xalbadorpe elkartekoak, Donostia aldean**

Egun-pasa polita egin zuten Elgetako Xalbadorpe elkarteko erretiratuek eguaztenean. 50 bat lagun elkartu ziren. Ordiziako azoka ikusten izan ziren lehenengo; Donostia aldera egin zuten gero. Amaitzeko, Aginagako sagardotegian bazkaldu ostean, Zarautzera joan ziren arratsalde-pasa.

**4. 1940ko arrasatearrak, egun-pasa elkarrekin**

1940an jaiotako arrasatearrek elkarrekin pasa zuten maiatzaren 13ko eguna (zapatua). 12:30eko meza entzun ondoren, txikiteora joan ziren. Horren ostean, Errekan bazkaldu zuten. Azaldu dutenez, lagunartea eta giro paregabea izan ziren nagusi.

**Kontatu, kontatu!**

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzuzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzue eta bidalguzue argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## #DIOTENEZ

**DANBORRADA PRESTATZEN**

Arrasateko umeak hasiak dira San Juan jaietako haurren danborradarako entseatzeko. Helduek, berriz, laster ekingo diete entseguei.

**GERNIKAKO ROCK DOINUAK**

The Riff Truckers musika talde bizkaitarrak kontzertua eskainiko du Arrasateko gaztetxean. Kooiltur Ostegunaren denboraldi berria

hasteaz bat joko lukete. 2005ean jaiotako taldeak azken lana grabatzen dihardu, lokalean.

**ERREKALDEN, ALDAKETA**

Oñatiko Errekalde auzoko jaietan azken orduko aldaketa bat dago, ostiral gaueko kontzertuei dagokienez. Bertan behera geratu da Legazpiko John Dealer & The Coconuts taldearen kontzertua; haren ordez, Durangaldeko

Nevadah taldeak jardungo du agertoki gainean.

**GAZTA EKOIZLE BERRIA**

Antzuolako Lamariano Azpikoa baserriak gazta ekoizteari ekingo dio. Duela bi urte erabaki zuten proiektuari heltzea. Lehen fasean daude; alegia, artegiaren eraikuntzan. Behin hasierako fasea amaituta, hurrengo urtean hasi gura dute gazta ekoizten. Bihar,

zapatua, herriko San Isidro azokara eramango dituzte ardiak, euren proiektuaren berri eman guran.

**BLUSEN OHITURA, GORANTZ**

Azken urteetako beherakadaren ostean, gora doa Bergarako jaietan blusa erabiltzearen ohitura. Duela bi urte, deialdi berezia egin zen, herritarrek blusaren ohitura berreskura zezaten; itxuraz,

fruituak eman ditu saiakerak. Saltzaileen arabera, jende asko dabil blusa eske.

**DEBAGOIENDARRAK FINALEAN**

Madriren jokatu den futboleko Errege Kopako finalean debagoiendar ugari izango da. Horien artean, Gorka Etxabe aretxabaletarra; *speaker* lanak egiten ditu Mendizorroztan. Gozatzeaz aparte, lan ere egin beharko du Etxabek.

## ZORION AGURRAK



BERGARA  
**Ekain Akizu Bilbao**  
Maiatzaren 25ean, 4 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat, familiaren eta, bereziki, Laidaren partetik!



BERGARA  
**Maialen Jauregi Elortza**  
Maiatzaren 25ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna etxekoekin eta lagunekin. Pa, pa eta pa.



OÑATI  
**Alazne Bolinaga Barrena**  
Maiatzaren 24an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat, etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



OÑATI  
**Irati Mendizabal Altzelai**  
Maiatzaren 22an, 9 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu eta muxu potolo bat, etxekoekin partetik! Asko maite zaitugu!



ARRASATE  
**Hugo Ayala Torres**  
Maiatzaren 22an, 4 urte. Zorionak, maitia! Egun polita izan dezazula. Asko maite zaitugu. Aita eta ama, Ainara eta Oscar izeba-osabak, Aimar eta Unai.



ESKORIATZA  
**Itoitz Herrera Etxebarriarteun**  
Maiatzaren 21ean, 3 urte. Patxo potolo pilo bat, etxekoekin partetik!



ARETXABALETA  
**Xuban Elorza Arkauz**  
Maiatzaren 21ean, 2 urte. Zorionak, Xuban! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunien eta patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE  
**Rober Etxenausia**  
Maiatzaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, aitaxo. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



ARRASATE  
**Jokin Guzman Orobengoa**  
Maiatzaren 21ean, 6 urte. Zorionak, maitia! Ederto pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo pila aitaxoren, amatxoren eta Oierren partetik.



OÑATI  
**Uxue Beitia Maisterrena**  
Maiatzaren 21ean, 3 urte. Zorionak, Uxue! Dagoeneko 3 urte! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Patxo handi bat, printzesa!



ARRASATE  
**Unax Gartzia Dorronsoro**  
Maiatzaren 20an, 8 urte. Geroz eta kirolari apartagoa, mutil jatorra... zutaz barro gaude. Muxu potolo bat, etxeko guztien partetik. Maite zaitugu.



ANTZUOLA  
**Aitziber Etxezarreta Mugica**  
Maiatzaren 20an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo, etxeko guztien partetik. Batez ere, ahizpa Ainara eta lehengusu-lehengusina Elene, Irati eta Aitor.



OÑATI  
**Arhane Zelaia Galparsoro**  
Maiatzaren 20an, 5 urte. Zorionak, Arhane, familiako danan partetik. Oso ondo pasatu zure eguna. Besarkada handi bat eta mila muxu potolo!



ARRASATE  
**Beñat Alonso Lopez**  
Maiatzaren 19an, 14 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto ospatu eguna eta oso zoriontsu izan, etxekoekin partetik. Muxutxuek. Maite zaitugu!



BERGARA  
**Ekia Mendieta**  
Maiatzaren 18an, 6 urte. Zorionak, sorgitxo. Ondo ospatu. Muxu asko!



ARETXABALETA  
**Iñigo Zuazo Ibarra**  
Maiatzaren 18an, 42 urte. Zorionak, aitaxo! Muxu potolo bat izarren, Unaxen eta amatxoren partetik!



BERGARA  
**Aimar Osa Jimenez**  
Maiatzaren 16an, 8 urte. Zorionak, Aimar! Ondo baino hobeto pasatu eguna eta muxu handi bat!



OÑATI  
**Galder Lopez**  
Maiatzaren 15ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Egun polita pasatu! Patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



OÑATI  
**Elene Arrieta Sansinenea**  
Maiatzaren 15ean, urtebete. Zorionak, Elene! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat etxekoekin eta, batez ere, Aneren eta Oierren partetik.



BERGARA  
**Eva Calleja Otazo**  
Maiatzaren 15ean, 10 urte. Zorionak eta oso ondo pasatu zure eguna! Zure ahizpa Ireneren eta lehengusina txikiaren partetik!



BERGARA  
**Enara Gisasola Sevillano**  
Maiatzaren 14an, 7 urte. Zorionak neska-handi! Primeran pasatu zure eguna. Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



ARRASATE  
**Paule eta Oihan**  
Paulek 4 urte, maiatzaren 14an eta Oihane 6 urte, maiatzaren 21ean. Zorionak, maitiak. Primeran pasatuko dugu! Familia osoaren partetik, patxo handi bana!



ARRASATE  
**Iargi Sanzberro Iria**  
Maiatzaren 13an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ederto pasatu zure egunian eta patxo potolo bat etxekoekin eta, bereziki, Aratzen partetik!



ARRASATE  
**Ainhoa Azurmendi Casas**  
Maiatzaren 13an, 2 urte. Zorionak, Ainhoa! A ze handia egiten ari zaren. Oso ongi pasatu eguna eta muxu handi-handi bat Oxelen, amatxoren eta aitaxoren partetik.



ARRASATE  
**Aimar Rodriguez Sanzberro**  
Maiatzaren 12an, 6 urte. Zorionak! Etxekoekin eta, bereziki, Iratiren eta Ekainen partetik.



ARETXABALETA  
**Gari Okarantza**  
Maiatzaren 12an, 3 urte. Zorionak, Gari! Ondo-ondo pasatu egune!



ARRASATE  
**Malen Ugarte Salaberri eta Danel Garcia Salaberri**  
Malenek maiatzaren 11n, 12 urte eta Danelek 12an, 3 urte. Zorionak, bikote! Ederto pasatuko dugu elkarrekin zuen urtebetetzeak ospatzen! Muxu handi bat, familiako guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Anje Lagunilla Urzelai**  
Maiatzaren 10ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu eguna eta opari asko jaso!



**ARETXABAETA 'Habr  que ponerse cachas' ikuskizuna**  
Ebi Sorriaren eta Xabi Madinaren ikuskizuna, Dantza Astearen baitan.  
*Duranan, 18:00etan.*

**OÑATI Bularreko minbizia goiz detektatzeari buruz berbetan**  
Arrate Plazaola onkologoak egingo du berba. Bularreko minbiziaren arazoak, prebentzioa, tratamenduak...  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Ekonomia feministako eskolatxoak Euskal Herrian' hitzaldia**  
Josefina Roco Sanfilipporen eta Cony Carranza Castroren berbaldia, gazteleraz.  
*Ibarraundin, 18:30ean.*

**ARETXABAETA Flamenko fusioa**  
Dantza Astearen baitan.  
*Duranan, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 24

**ARETXABAETA 'Ludoteka dantzan'**  
Ikuskizuna, Dantza Astearen baitan.  
*Herriko Plazan, 17:00etan.*

**ARETXABAETA Perkusio emanaldia**  
Leizarra musika eskolako ikasleen kontzertua.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**OÑATI Entzunaldiak**  
Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen emanaldia.  
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARETXABAETA Euskal dantzak**  
Erretiratuendako saioa egingo dute, Dantza Astearen baitan.  
*Herriko Plazan, 18:30ean.*

**ARRASATE Gitarra kontzertua**  
Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**OÑATI Literatura solasaldia**  
Elena Ferranteren *Adiskide paregabea* liburuaz egingo dute berba, Danele Sarriugarterekin.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Kirolaren argi-ilunak' hitzaldia**  
Punta-puntako kirolariek. Oihana Kortazar, Jon Odriozola eta Male Ruiz de Azua. Euskadi Irratiko kazetari Haritz Gallastegi izango da moderatzailea. AEDK antolatuta.  
*Kulturateko Loramendi aretoan, 19:00etan.*

## EGUENA 25

**ARETXABAETA Oihal akrobaziak**  
Ikuskizuna, Dantza Astearen baitan.  
*Duranan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Ostegun kontalariak'**  
*Mundu zabaleko ipuinak* delako saioa egingo du Lupe Lekuonak, 6-9 urte artekoendako.  
*Haur liburutegian, 18:00etan.*

**ANTZUOLA Zarauzko Abesbatza**  
Kontzertua egingo du.  
*Torresoroan, 18:00etan.*

**OÑATI Maria Cruickshank aktorearen hitzaldia**  
*Goenkale*-ko Itsaso edo *Vis a Vis* telesailako Lis paperak egindako oñatiarrak berbaldia egingo du.  
Irekia, herritar guztiendako.  
*Torresoroan, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Substantziarik gabeko mendekotasunik existitzen al da?' hitzaldia**  
Agipad elkartekoek egingo dute berba.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ARRASATE Perkusio kontzertua**  
Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia.  
*Musika eskolan, 18:00etan.*

**ARETXABAETA Tertulia**  
*Flash dance* egingo dute, Dantza Astearen baitan.  
*Arkupen, 19:00etan.*

**ARETXABAETA Bertso olinpiadak**  
*Kirolez busti* egitarauko ekimena. Julio Soto, Amets Arzallus, Martin Berrizbeitia eta Xabi Igoa bertsoan, Ane Zuazubiskarrek ipinitako gaiak. Sarrerek, hiru euro.  
*Iturrigorri pilotalekuan, 19:30ean.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIJA

#### ANTZOKIA

**La excepcion a la regla**  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.  
**Your name**  
Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA

#### ETXEA

**Moonlight**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

#### COLISEO

**El circolo**  
Zapatua eta domeka:

17:00.  
**Maravillosa familia en Tokio**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.  
**Un italiano en Noruega**  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

#### ANTZOKIA

**La cigüeña**  
Zapatua: 17:00.  
**La cigüeña (euskaraz)**  
Domeka: 17:00.

**El circolo**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

#### BOULEVARD

**El caso Sloane**  
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.  
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:30, 21:15.  
**Dejame salir**  
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:15, 20:30, 21:15.  
**Kubo y las dos cuerdas magicas**  
Zapatua: 16:00.  
**Mascotas**  
Domeka: 16:00.  
**Piratas del Caribe**  
Eguena: 18:00, 20:00, 21:00, 22:00.

**Piratas del Caribe 3D**  
Eguena: 19:00.

### ALIEN

Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.  
Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.  
**Fast & Furious**  
Egubakoitzetik domekara: 19:35, 22:20.  
Astelehenerik eguaztenara: 16:50, 19:35, 22:20.  
Eguena: 16:50.  
**Guardianes de la galaxia**  
Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:45, 21:45.  
**Z, la ciudad perdida**  
Egubakoitza eta astelehenerik eguaztenara:

16:30, 19:20, 22:10.  
Zapatua eta domeka: 19:20, 22:10.  
**El circolo**  
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:00.  
Astelehenerik eguenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.  
**Plan de fuga**  
Egubakoitzetik domekara: 21:15, 23:30.  
Astelehenerik eguaztenara: 21:50.  
**Nunca digas su nombre**  
Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:15.  
**Pacto de sangre**  
Astelehenerik eguaztenara: 19:20.  
**Bebe jefe**  
Egubakoitzetik

domekara: 17:15, 19:15.  
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:15.  
**La cigüeña**  
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 17:50.  
**La bella y la bestia**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.  
**Un italiano en Noruega**  
Egubakoitzetik eguenera: 19:40, 21:40, 23:40.  
**Mañana empieza todo**  
Astelehenerik eguaztenara: 17:00.  
**Los pitufos**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 17:40.

## KRITIKA

### Alien Covenant ★★★★★

**Zuz.:** Ridley Scott. **Aktoreak:** Michael Fassbender, Katherine Waterston, Danny McBride.

## Fintasuna eta ikusgarritasuna

### ANTONIO ZABALA

la 38 urte pasa dira Ridley Scottek *Alien* zuzendu zuenetik. Beste zuzendari batzuek jarraitu dute Scottek zabalduak bidea, berriro jatorrizko zuzendariaren eskuetara bueltatu arte. Eta bai, badira espazioan arriskuan dagoen tripulazio bat, munstro beldurgarriak eta androideak, baina, hala ere, bi filmen arteko diferentziak nahiko nabarmenak dira. Lehena lan fina izan zen. Osagai gutxirekin lan kezagarria eta klaustrofobikoa lortu zuen. Dena espazio-ontzi baten gertatzen zen. Zazpi bidaiari euren bizitzagatik borrokatzen, munstro baten aurka. Munstroaren ageraldiak murriztuagoak ziren, eta, askotan, horren agerpena sumatzeak tentsio ikaragarria sortzen zuen. Oraingo honetan, Scottek, batez ere,



ikusgarritasuna bilatu du, eta esan behar da helburua lortu duela. *Alien Covenant* ikuskizun dibertigarria eta nabarmena da. Denetik dauka gehiago: tripulazioa, munstroa, androideak eta paisaia desberdin gehiago. Istorioaren izar nagusiak bi androide dira. Cainen eta Abelen eta Nemo

Kapitainaren eta Frankensteinen itzalak antzematen dira. Eta honekin batera, sarraskiaren barnean badago umore trufariaren ukitua. Igartzen da zuzendaria duela urte batzuk Hannibal Lecterren mundura hurbildu zela. Oraingoan, *Alien* filmetara bueltatzen da lan entretenigarria burutzeko.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

## Udalekuak

Txinera ikasteko udalekuak, Eibarren. Argazkilaritza lantzeko udalekuak, Donostian. Surfa eta ingelesa oinarri dituztenak, Gorkiz. Triatloi udalekuak, Etxarri Larraunen. Pirata udalekuak, Pasai Donibanen. Udaleku ibiltaria, mendian lo eginez, Bidasoa bailaran. Diputazioek antolatzen dituzten betiko udalekuak. Saskibaloia udalekuak. Bertso udalekuak. Euskaraz blai udalekuak. Musika eta antzerkia jorrazten dituztenak. Multiabentura udalekuak.

Oraintxe da izena emateko garaia. Kartelak ikusi ditut kalean. Zenbat udako kanpaleku! Zenbat aukera! Hau inbidia... Haur eta gaztetxoentzat direlako. Jo, eta zergatik ez helduentzat?

Helduentzat atsedeen-eteak daude. Yoga, meditazioa. Elikadura osasungarria, erlaxazioa. Garapen pertsonalerako terapia alternatiboak. Eta oso ondo, e. Plan ederrak dira horiek ere. Baina udalekuak ere nahi ditut. Ume sentitzea. Abentura. Zaku lasterketak, altxorren jolasa. Eta egia da urtetik urtera aukera gehiago daudela. Euskal Herrian, hala ere, ezer gutxi. Bila ibili naiz, eta helduentzat surf kanpamendua bakarrik aurkitu dut, Sopelan. Animatzen olatuak hartzera?

## BUKATZEKO



Jone Jauregi, Nagore Otadui, Uxue Iparragirre, Eider Egaña eta Elene Guridi, garaikurrarekin. IMANOL SORIANO

# Bost debagoiendar, liga txapeldun, Eibarrekin

Jone Jauregi, Nagore Otadui eta Uxue Iparragirre antzularrek eta Eider Egaña eta Elene Guridi oñatiarrek ohorezko kadete mailako txapelketa irabazi dute. Aurreko domekan, zaleen omenaldia jaso zuten Ipuruan, Eibarren partiduaren bukaeran

### Mireia Bikuña EIBAR

Adinez, antzularrek, hirugarren urteko kadeteak dira; eta oñatiarrek, lehenengo urtekoak. Baina talde bereko jokalariek izan dira: ohorezko kadete mailakoak. Guztiendako, lehen urtea izan da Eibarren. Nagore Otadui, Uxue Iparragirre eta Jone Jauregik Antzulan talde barik geratu zirenean erabaki

zuten talde armaginerara joatea. Oñatiarren kasua ezberdina da: kadete mailako torneo baten eibartarrekin jokatzeko gonbidapena jaso zuten, eta, ostean, Aloña Mendi utzi eta Eibarrera joatea erabaki zuten.

### Denboraldi borobila

Ikasteko eta esperientzia berriak bizi izateko asmotan hasi zuten



Jokalariek, Ipuruan, animatzen. I. S.

denboraldia; eta taldeak egin duen lana ikusgarria izan da: 23 lehia irabazi dituzte, bat berdindu eta bi galdu. Guztira, 70 puntu. 81 gol alde eta 13 kontra. "Taldea oso orekatua da. Baina, egin duten lana egin ahal izateko, hiru ezaugarri azpimarratuko nituzke: konpromisoa, lana eta umiltasuna. Horiek dira taldeak erakutsi dituenak", esan du Jose Manuel Loiti entrenatzaileak.

### Debagoiendarren ezaugarriak

Zenbaki horietan zeresan handia izan dute bailarako bost jokalariek. Nork bere ezaugarriekin, asko lagundu diote taldeari. "Nagore zentrala da. Defentsan eta markaketan ona. Jone hegaleko jokalaria da eta oso-oso azkarra. Uxue, proiektio handiko jokalaria eta oso trebea baloiarekin. Elenek etorkizun handia dauka eta ikasi ezin diren berezko ezaugarriak ditu futbolerako. Azkenik, Eider atezaina da. Oso indartsua, bizkorra eta lasaia". Berba horiekin deskribatu ditu bailarako jokalariek Loiti entrenatzaileak. Ezaugarri propioez gain, bostak oso "diziplinatuak" direla esan du. "Entrenamenduei etekin handia atera diete. Bilakaera handia izan dute".

### 23 jokalarik

"Futbola maite" duten 23 jokalariekin osatu dute taldea. Jokalari gehiegi. Astero sei geratu izan dira jokatu barik. "Handikap handia izan da jokalarientzako, baina egoera onartu eta horrekin lan egiten ikasi dute. Eta ondo, gainera. Lehiakortasuna, lana, jarrera.... Urte borobila izan da", dio Loitik.

**2 mō betaurreko:**  
Gama altuko progresiboak  
+  
eguzkitako progresiboak  
**197€**

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA  
LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan